

JAKIN

JOSEBA INTXAUSTI
AMERIKA XV. MENDEAREN AZKENETAN

JAMES PETRAS
LATINAMERIKA

MIQUEL IZARD
IRAULTZA LIBERALA VS. MATXINADA
ANTIKAPTALISTA

LEONARDO BOFF
EBANGELIOA ETA LATINAMERIKA: 500 URTE

EUSEBIO LARRAÑAGA
AMERIKA ETA EUSKALDUNAK

GURUTZ ANSOLA
MAASTRICHT ETA EUOPAR BATASUNA

RAMON SAIZARBITORIA
JESUS GIL MASSA
INAKI IRAZABALBEITIA
BEGOÑA DEL TESO
EGUNEN GURPILEAN

70

MAIATZA-EKAINA 1992



JAKIN

70

MAIATZA-EKAINA 1992



Kultura eta Turismo Sailak diruz lagundutako aldizkaria

AURKIBIDEA

Z	ENBAKI HONETAN	7
G	AI NAGUSIA	
		11
	JOSEBA INTXAUSTI AMERIKA XV. MENDEAREN AZKENETAN	
		39
	JAMES PETRAS LATINAMERIKA	
		51
	MIQUEL IZARD IRAULTZA LIBERALA VS. MATXINADA ANTIKAPITALISTA	
		67
	LEONARDO BOFF EBANGELIOA ETA LATINAMERIKA: 500 URTE	
		81
	EUSEBIO LARRAÑAGA AMERIKA ETA EUSKALDUNAK	
G	AI AK	
		99
	GURUTZ ANSOLA MAASTRICHT ETA EUROPAR BATASUNA	
E	GUNEN GURPILEAN	
		109
	RAMON SAIZARBITORIA JESUS GIL MASSA INAKI IRAZABALBEITIA BEGOÑA DEL TESO	

© JAKIN

JAKINEKO IDAZLANEZ INON
BALIATZERAKOAN AIPA BEDI,
MESEDEZ, ITURRIA

JAKIN

ALDIZKARI IREKIA DA ETA EZ
DATOR NAHITAEZ IDAZLEEN
IRITZIEKIN BAT

ZUZENDARIA

JOAN MARI TORREALDAI

ERREDAKZIO-BATZORDEA

PAULO AGIRREBALTZATEGI - JOXE AZURMENDI - JOSEBA INTXAUSTI

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1. C - 20009 Donostia - Tel. (943) 21 80 92 - Fax 21 82 07

1992ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	4.000 pta.	—
Ale arrunta	670 pta.	1.000 pta.
KANPOAN		
Harpidetza	4.550 pta. (228 FF)	—
Ale arrunta	760 pta. (38 FF)	1.150 pta. (58 FF)

SUMMARY

AMERICA AT THE END OF THE 15th CENTURY

JOSEBA INTXAUSTI

Official historiography of the colonial project disregarded the spreading of pre-Columbus history. This renders difficult the recovery of the historical memory of those scattered and socio-politically formed peoples who did not have the complex organization of state frameworks (although they were members of solidly-formed States and Empires). In addition to emphasizing the most original characteristics of those civilizations, a critical assessment of their respective contributions to history is undertaken.

LATIN AMERICA

JAMES PETRAS

In the last decade, experiments carried out under liberal capitalism have plunged Latin America into the deepest economic crisis it has suffered this century. This problem appears to be extremely difficult to overcome. The crisis is even more serious and widespread than that experienced by Eastern European countries. Recently-elected regimes seem incapable of stopping the economic collapse.

LIBERAL REVOLUTION VS. ANTICAPITALIST INSURGENCIES

MIGUEL IZARD

In 1492, America was set upon by the West. They wished to implant a surplus society based on consumption, in an attempt to change the way of life and social organization of those conquered peoples. In short, it was a matter of imposing a new culture and to this end the West did not hesitate in using all the coercive means at its disposal to resist insurgent movements.

EVANGELIZATION AND LATIN AMERICA: 500 YEARS

LEONARDO BOFF

The discovery of America did not result in the integration of two cultures, but rather a head-on collision between them. There are consequently two perspectives from which to consider the celebration of the Five Hundredth Anniversary: that of the conquistadors and that of the conquered.

To overcome this dichotomy, it is necessary to carry out a profound cultural re-examination and to promote a new model of Church and evangelization so that they can integrate and be part of the Latin American indigenous cultures.

AMERICA AND THE BASQUES

EUSEBIO LARRAÑAGA

In connection with the five Hundredth Anniversary of the Discovery of America, the Basque Government has launched a series of economic aid so that specialists in different subjects may study more thoroughly the mark

left by Basque emigrants in America over the centuries. Thanks to this work, we shall not only come to understand those subjects currently being studied, but also all approved projects and who are carrying them out.

MAASTRICHT AND EUROPEAN UNION

GURUTZ ANSOLA

The Treaty of Maastricht seeks two essential objectives: on the one hand, political union and, on the other, economic and monetary union. This article, that follows on from that published in number 68 of this maga-

zine, analyzes the tasks of the European Community. It also analyzes the path that will have to be followed and what period of time will be needed to reach economic and monetary union.

NEWS TODAY

VARIOUS AUTHORS

In this section, as has been customary since the beginning of the year, Ramón Saizarbitoria, Jesús Gil, Inaki Irazabalbeitia and Begoña del

Teso comment on current affairs related to the world of culture, art, science and entertainment respectively.

ZENBAKI HONETAN

Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 70. zenbakia da eta 1992ko hirugarrena.

Zenbaki honetan ere, aurrekoan bezala, gai nagusi batek hartzen du aldizkariaren orrialde-kopuru on bat. Gaur-gaurko gaia oraingoan ere, bestalde: *1492-Amerika-1992*.

V. Mendeurren hau dela eta, modu informatzaile eta kritiko batez heldu nahi izan diogu gaiari. Izen handi eta ospetsuak ekarri ditugu *Jakin*-en orrialdeetara. Sarrera gisako artikuluan, “Amerika ez zegoen hutsik 1492an” dio Joseba Intxausti historigileak eta garai horretako Amerikako gizarte eta zibilizazioak aurkezten dizkigu. Sozio-ekonomiaren ikuspegitik heletzen dio gaiari James Petras-ek, New York-eko Binghamton Unibertsitateko Soziologi Saileko Irakasleak. Ikuspegi soziokulturala lantzen du Barcelonako Unibertsitateko Historia Saileko Miquel Izard irakasleak. Ez dugu ahaztu nahi izan pers-

pektiba erlijioso-kulturala ere, Leonardo Boff Askapen-Teologiaren ordezkari sonatuaren eskutik ematen duguna. Barcelonako *Fundació Alfons Comín* delakoari esker eskuratu dugun lan honen laburpena eskaintzen dugu hemen.

V. Mendeurrena dela eta, Eusko Jaurlaritzaren jarrera ere bertatik ezagutu nahi izan dugu. “Amerika eta euskaldunak” egitamuaren arduradun den Eusebio Larrañagari eskatu diogu euskaldunek Amerikan utziriko aztarnak aztertu-asmoz antolatatu den ikerketa-egitarauaren berri emateko.

Gaiak sailean Gurutz Ansolak bigarren aldiz heltzen dio Europar Batasunaren eraketa-plangintzari. Oraingo lanean Maastricht-eko Ituna arakutzen du atalez atal.

Egunen gurrpilean sailean Ramon Saizarbitoria, Jesus Gil, Inaki Irazabalbeitia eta Begoña del Teso datozkigu berriro, azken bi hilabeteotako zenbait kultur gertakariren inguruan beren iritziak azalduz.

G AI NAGUSIA

JOSEBA INTXAUSTI

AMERIKA XV. MENDEAREN AZKENETAN

JAMES PETRAS

LATINAMERIKA

MIQUEL IZARD

IRAULTZA LIBERALA VS. MATXINADA ANTIKAPITALISTA

LEONARDO BOFF

EBANGELIOA ETA LATINAMERIKA: 500 URTE

EUSEBIO LARRAÑAGA

AMERIKA ETA EUSKALDUNAK

AMERIKA XV. MENDEAREN AZKENETAN

JOSEBA INTXAUSTI

Amerika ez zegoen hutsik 1492an; bazituen bere bizilagunak, herriak eta zibilizazioak. Jada Historia bat osatutako kontinentea zen, Kolon eta beraren gizonak 1492ko urriaren 12an Guanahani-ra iritsi zirenean (Watlíng/Salbatore irlara, Bahametan).

Gerotik ere egin du Amerikak beste 500 urtetako Historia. Bestalde, Konkistak eta Kolonizazioak —hitzak berak ere, konkistatzaileek hizki handiz eman ohi dituzte—, zalantzarik gabe, balio eta esanahi etikoz beteriko bilakabidea izan dute. Alferrik da, gertakarien azpian dagoen balioen galderari Historiografiak askotxotan ez-ikusi egin nahi izatea.

Iraganak merezi eta behar du dagokion juizioa, eta epai historiografikoetan ez dago zergatik bazter irizpide etikoa. 500 urtetako ibilbide hori giza burubide ezberdinen arragoan borondatez eta erabakiz —beraz, libertatez ere bai— moldatua izan da. Historiografiaren alde larri honetaz hainbat aurpegi eza-gutzeko, ikus, adibidez, R. Jaulin-ek eskaini zigun agiri-bilduma: *Le livre blanc de l'ethnocide en Amérique* (1972; gaztelarazko ed., 1976. Madrid: Siglo XXI).

Hori gogoan izanik ulertu behar ditu irakurleak artikuluko honetako sarrera-ohar hauek, ondoren datozen lanek hain zuzen irabazitako juizio etikoa espreskiago ukituko dutelakoan. Beste honen betekizuna, atari historiko labur bat ematea baizik ez bait da.

AURKIKUNDEA VS TOPAKETA (1492...)

Amerikaren Aurkikundea, nahiz Topaketa, ez zen egun-senti bakar bateko gertaera izan; Topaketaren ordua XVIII. menderaino atzeratu zen zenbait herri eta lurraldetarako. Amazonia aldean, adibidez, XX. mendeko drama da Aurkikunde edo Topaketa hura.

Gogoratuko dugun Aurkikunde europarrak, hau da, europarrek Kontinente ezezagunarekin izan zuten topo-egite hark ondorio luzeak izan zituen, Amerikan lehenik, eta Kontinente Zaharrean berehala.

Amerika ez zen Kontinente *Berrira*, aurkitu-berri zutenentzat baizik, bizilagunez eta kulturez Afrika-ko zenbait lurralde, edo Mesopotamia, Egipto, Txina, India nahiz Europa baino gazteagoa eta atzeratuagoa izan arren.

Baina “atzeratuak” ez du esan nahi kultura zabaleko eta antolamendu sozial konplexuko gizarterik ez zegoenik. Iku-siko dugu ondoko orrialdeetan.

Kolon-en Topaketarena albistea izan zen, eta “berria”, beraz. Baina, egiaz, hain berria izan al zen, gero?

KOLON-ENA, LEHEN AURKIKUNDEA OTE?

Kolon ez zen izan Amerikara iritsitako lehen nabegantea, eta Almirantearekin joan zirenak ere ez ziren Kontinente hartara iritsitako lehenengo aurkitzaileak. Gaur egun frogatutzat eman behar da aurreko mendeetan ere Amerikaraino heldutako espediziorik egon zela.

Leif Erikson, Erik Ilegorriaren semea, Groelandiatik 992an irten zen hogeitamabost lagun berarekin zituela, lehenagotik ezagunak ziren lurren bila. Mendebaldera joz, laster aurkitu zuen Labrador-eko kostaldea eta *Terminua* (*Vinland* deitu zutena). Negualdia han pasata gero, Groelandiara itzuli ziren berriz. Hurrengo bidaia Leif-en anaiarena izango da, Thorvald-ena: orduan izan ziren amerikarrekin lehenengo harremanak.

1020an eratu zen espedizio handiago bat, Thorfinn Karlsefni buru zela: hiru untzitan 160 lagun eta buru zihozen (gizon, emakume eta azienda), eta Kontinente berria lekuhartzeko asmoarekin irten ziren. 1973-1977 bitarteko indusketek agerian utzi dituzten hondakinen arabera, seguraski, Ternuan Meadows-eko bokalean jarri ziren bizitzen (B. Wallace 1978). Hiru negu han iragan ondoren, eta joandakoen arteko ezinkonponduak, amerikarrekin borrokak eta neguaren latzak lur aurkitu-berriak utzi eta Groelandiara itzultzera bortxatu zituzten (COHAT, Y. (1989): *Los Vikingos, reyes de los mares*. Madrid: Aguilar. 37-39, 158-161).

Handik aurrera vikingoek ez zuten beste espediziorik antolatatu, eta Amerika urrun geratu zen europarrentzat, berriz ere aurkitzeko alegia, Kolon-ek bilaketari beste testuinguru tekniko, kultural eta ekonomiko batean heldu zion arte.

HISTORIARIK GABEKO KONTINENTEA OMEN...

Europako erdiarotarrek galdu egin zuten, beraz, begibistan ikusitako Kontinentearen oroimena. Baina, Topaketaren ondoren, beste zerbait larriagoa jazo zitzaion europarrei.

Inoren Historia ezezaguna —ezezaguna eta inorena delako, hain zuzen— ukatzeko joera nabaria izan dute beti konkista-

tzaile eta kolonizatzaileek. Adibidez, XIX. mendean, Afrika konkistatzean (eta konkistatu aurretik ere), Europak egin zion lehenengo azioa Kontinenteari Historia ukatzea izan zen. Afrikarenean hori egin aurretik, lehenago gauza bera egin zen zentsura koloniala Amerikarekin. Geroztik, kolonauurreko kultura amerikarren oroimena berreskuratzea zaila suertatu da azken mende honetan.

Horrela, “lapsus” kolonialista jator baten ondorioz, Geografia ezezik, Amerikako herrien Historia ahantzi zuten aurkitzaile eta konkistatzaileek, hain zuzen hori bait zen hango lurraldeez jabetzeko teknika probetxuzkoena, hau da, menperatzekoak, desmemoriatuz, ahuldu, eta konkistariari gizarte deshistoriatuak eskaini (*desgizatuak*, beraz) konkistagai bezala. Ez da, hortaz, harritzekoa Amerikako politika kolonialistak Historiografiarekin izan zuen jokamoldea.

Laurette Séjourné-k idatzi duen bezala:

Amerikako errealitate historiko hartaz ideiarene bat izateko nolako oztopoak tartekatu diren jakin nahi duenak aski du zera gogoratzea: XVI. mendeko ikerkuntza bikainetatik batere ez zen argitara eman XIX. mendearen azkena arte. Batzuk argitara berriak dira orain gutxi eta beste zenbait —oinarrizkoak, gainera— artxibategietako itzalpeetan daude oraindik itxaroten. Lehenengo hirurehun urte eta gehiagotan, konkistatzaileen azalpenetara mugatzen zen gure jakintza, gero historilari gortesauen albisteetara (...). Orduan, eta horrela, metatutako gaizki-ulertzeak eta kalumniak guganaino iritsi dira, borondate on edo txarragoz, dotrina finkatu bezala. Hori guztia oztopaharri larria da Ameriketako jatorrizko herrien Historia ezagutzeko” (1971: *América Latina. I. Antiguas culturas precolombinas*. Madrid: Siglo XIX. 86).

Historilariak, gaur egun, hiru iturri-mota nagusi ditu kolonauurreko gizarte amerikarrak ezagutzeko:

- Amerikarren beren idazkiak: batzutan Kolon-auurretik eta hango hizkuntzetan idatziak. Ez dira asko, baina bai gero eta areago ezagutu eta aintzakotzat hartuak: Tezozomoc, Ixtlilxochitl edo Huaman Poma de Ayala-ren lanak, eta anonimo bezala iritsi zaizkigunak (*Popol Vuh*, *Chilam Balam-eko Liburuak*, etab.). (Ik. (1983): *Récits aztèques de la Conquête*. Paris: Seuil).

- Baina iturririk aberatsenak misiolari eta idazle kolonialengandik datozkigunak dira, inoiz, gainera, jatorrizko idazkiak sutara botata gero idatziriko lan mardulak (honelako kasu bat dugu, adibidez, Landa-k maiei buruz utzitakoa). Ez da falta, bestalde, indarrean zegoen proiektu kolonialaren kontrako lekukotasunik (honelako kasua da Mendieta gasteiztarraren *Hystoria Ecclesiastica Yndiana*, 1573-1597.etakoa, baina 1810ean argitara emana).

- Azkenik, guganaino iritsi diren aztarna arkeologiko-etnografikoak ditugu. Batzuetan, honelakoek misterioz betetako ahots ozena dute, eta gizarte eratu “modernoak” erakusten dizkigute (Machu Picchu, Chichen Itza edo Tenochtitlan-eko hainbat tenplu, eta abar, zerrenda luze amaigabe batean).

Konkistatzaileei ez zitzaien falta izan lekuko historiko salutaririk, baina zentsura ofizialak eragotzi zuen egia ezagutu ahal izatea, beti ere kolonizazio programatu baten onetan.

AMERIKARREN GIZARTE EZBERDIN-KONTRAJARRIAK

Amerika handia da, eta handia zen: 42 milioi kilometro karratutako kontinentea, eta 90ren bat milioi bizilagun zuena (1492); ipar-iparraldetik hego-hegoalderaino, 16.000 kilometro luze. Mendikate bukaezinak, eta lautada besarkagaitzak. Klima, landaredi eta fauna ugariak.

AMERIKAKO LEHEN BIZTANLEAK

Orain 30.000/40.000 urte agertu zen gizakia Kontinentean, edo, azken hipotesiei jarraikiz, 40.000/200.000 artean. Hortaz, onenean ere eta luze jota, Europa eta Euskal Herriko Neandertalaren (*Homo sapiens neanderthalensis*) garaikidea izango litzateke jatorrizko gizaki amerikarra, eta Afrika-Eurasietako gizakien ondoan askoz beranduagokoa (jada milioika kontatzen bait dira lehen gizaki afrikarraren urteak). (Ik. GUILAINE, J. (1989): *La Préhistoire, d'un Continent à l'autre*. Paris: Larousse.

H. Roche-ren lana: 43-50. Amerikari buruz, J.-F. Le Mouël eta D. Lavallée-renak: 157-200. Eta 280-281).

Gaur egun historiariek, batez ere esplikabide jakin bat daukate Amerikako lehen populamenduaren jatorria argitzeko: *Beringia* deitua, erran nahi bait da, Wisconsin glaziaraldian Bering-eko itsasoa estali zuen izotzarte zabala (1.500 km zabal, K.a.-ko 18.000-16.000. urteetan). Izotz-zubi hartaz baliatuko ziren, itxura guztiz, Siberiatik Amerikara sartu ziren lehenengo biztanleak. Dena den, esplikabide horren hipotesi osagarriak zera lioke: Kontinentearteko zubi hura gabe, Australiara bezalatsu, Itsasarte bera zeharkatuz ere etor zitezkeela lehenengo etorkinak (ik. Le Mouël 1989, 164-166). Ozeano Barearen bidezko hipotesiak, oster, geroagoko zenbait harremanetarako balio balezakete ere, beste lehen une hartarako ez dira normalean aintzakotzat hartzen historilarien artean.

Asiarrak izan ziren, beraz, Amerikako lehen bizilagunak. Haien lehen milakadetako historia, hondakin seriatu handiagorik ezean, badirudi erdi-galdu egiten zaigula (berrikitan Peru-n aurkitutako 22.000 urteko aztarnak ahanzi gabe). Esan dezagun, Amerikan historia “eroso” ezagutu bat K.a. 2000.ean edo hasten dela.

GEOGRAFIA ETA HERRIAK

Amerikako geografia hain ezberdin eta eskualde batetik bestera hain aldakorrek herri, gizarte eta kulturak ere molde hagitz ezberdinetan mamitu ditu. Eskura zeuden baliabideek edo topa zitezkeen zailtasun, ezin edo erraztasunek, ekonomi modu eta gizarte-antolabide kontrajarriak sorterazi zituzten, Arktikoan, Amazonian, Pampan, Yucatán-en, Iparramerikako Lautadetan nahiz Mexiko edo Peru-Boliviako Goi-ordetean.

Historiaurreko ehiztari eta bilketari ibiltarien ondoko kulturak segidatasun ezberdinak izan zituzten: izan zen Konkista europarra arte, eta geroago ere, izan da bere hartan iraun duenik, eta baita artzantza eta nekazaritza egonkor batera pasadenik ere. Bilakaera modernoago hauen kasuan, garapen eko-

nomiko-kulturalon gain eraikiko ziren ondoko kultura handiak.

Inoiz edo bestetako harremanen bat salbu, amerikarrek ez zuten Antzinateko beste herrien albisterik izan, eta historilarien arabera, frogaturiko kultur trukaketa ezagunik ez da egon. Amerikarrek, beren gisara egin behar izan zituzten, adibidez, asmakuntza tekniko berriak: hala nola, lurgintzaren aurkikundeak, zeramika eta idazkeraren asmakuntza, eta kobrea edo urrea lantzeko teknikak.

Amerikarrek ez zuten, ordea, beste hainbat gauza baliagarri eskuratu: burdina eta altzairua, polbora eta beira, alfabetoa eta gurpila ez zituzten ezagutu, europarrak han agertu arte.

Hala ere, ahalegin eta eskarmentu neketsuen ondorioz, Amerikako Neolitoan egindako aurrerapenak oinarri sendoak eman zizkieten ondoko garapen sozio-kulturalari, eta ez hangoei bakarrik. Artoa eta patata, adibidez, iraultza neolitikoko hari zor dizkiogu.

KONKISTAREN BEZPERAN

Kolon-ek, Amerikara iristean, nagusiki bi egitura sozial modu aurkitu zituen: a) Tribu gisakoa, eta b) Estatu eratuena.

“Salbajeak”

Lehen antolamendu haren ardatza, alde batetik, taldearen odol-jatorrizko azpitaldeetan datza (klanak, leinuak), eta, bestetik, taldekideen artean dauden kultur, hizkuntza eta lurralde-batasunetan. Gehiago gabe. Hego-Amerikan, Andeatatik Atlantikorainoko lurraldea, osorik, hartzen zuen: Argentina, Uruguay, Paraguay, Brasil eta Guaianak. Ipar Amerika, bere zabal osoan, kultur molde berekoa zen. Gizarte tribalak lautada eta oihan zabaletan sakabanatuta zeuden; ez zuten erakunde boteretsurik, baina, gehienetan, ekonomia autarkiko bat eramateko lain ziren. Europarrak begitan, antolamendu sozial hau “atzeratua” zen, eta halako bizilagunak “salbajeak” ziren.

“Zibilizatuak”

Bestelakorik ikusi uste izan zuten europarrek Ameriketako herri “zibilizatueta”, honelakoek, izan ere, Estatu zentralizatuak eta erret aginte goren eratuak bait zituzten, hots, Europako Ernazimenduko gizonen biziki maite zuten botere publiko orokorra (eta batzuetan inperialista ere).

Eskuarki, Ameriketako Estatu edo Zibilizazio handiak hiru gunen handitan ikusi izan dira: Mexiko-ko azteken Inperioan, Ertamerikako maien Estatuan eta “Tahuantinsuyu” deituriko inken Erreinuan. Beherago esango da hauetaz zerbaite; baina, xehetasun horietara pasa aurretik, agian komeniko da Amerikako populazioaz zenbaite datu ematea.

Biztanleriari buruzko eztabaida

Topaketa-aurrera Amerikako biztanleriaren kopuruaz eztabaida handia izan da historikarien artean, izan ere, XVI. mendeko kronikarien datu altuak zuzentzat emanik, ondoko mendeetako estatistikek (hain bajuak zirela) Amerika konkistatutuan hondamena salatzen bait zuten. Bide horretatik, demografiaren eztabaida, kolonizazioarekiko eztabaida ideologiko bilakatu zen une batean historikarintzat.

Lehen hamarkadetako konkistatzaile, misiolari eta kronikariek zifra handiak eman zituzten sarritan, eta behin baino gehiagotan baita irudimen luzetxo erabili ere. XX. mendeko kalkuluetan, bizpahiru korrante kontrajarri ezagutu dira: a) Rivet eta Sapper-ek XV. are azkenerako Amerika osoari 40/50 milioi bizilagun egotzen zizkioten. b) Iritzi horren aurka, Rosenblat-ek 13 milioitan uzten zuen bizilagunen kopurua, eta, azkenik, c) Kaliforniako Eskolak, 90/112 milioitaraino jaso du kalkulua.

Eztabaida eta berrazterketa askoren ondoren, badirudi azken zifra hauek dutela segurtasun eta fidagarritasunik handiena; bestalde, XVI.eko kronikarien lekukotasuna berretsi egin da azken ikerlanen ondorioz. Horrela, 1492ko Mexiko-ko biztanleria 25/30 milioitan jarri beharko litzateke, eta Peruk beste hainbeste izango litzuke. (Ik. SANCHEZ-ALBORNOZ, N.

(1973): *La población de América Latina*. Madrid: Alianza Editorial, 53-57 or.).

Konkistako gerrek, Koloniaren lan bortxatuek edo Euro patik eramandako gaixotasun berriek amerikarren artean egin zuten triskantza ikaragarriaren tamaina ondoko zifra modu hauetara irits liteke: Mexikoko 25,3 milioiak (1519), lau urte geroago 16,8 ziren (1523), hirurogei urte geroago (1580) 1,3 milioi bakarrik (1580). Hondamendi demografiko hau beste toki askotakoa ere izan zen: Kolonbiako Tunja-n, mende baten buruan (1537-1636) indiarrek 232.407tatik 44.691 izatera pasa ziren (Sánchez-Albornoz 1973, 62-63).

Hau da Amerika konkistatu-berriaren tragedia genozida! Baina larriagoa gertatzen zaigu hori dena, kolonurreko lorpen sozial, politiko eta kulturalak ezagutzen.

ZIBILIZAZIO HANDIAK: LORPENAK

Orrialde hauetan, zoritxarrez, ez daukagu kultura handi denak aurkezterik, eta hautatu ditugunetan ere, zaila izango da aurkezpen-eskema batetik pasatzea. Arrisku hori gogoan dugula ere, ikus ditzagun maia, azteka eta inken historia laburtuak.

MAIAK: ARTOAREN ERREINUA

Maien Inperio Klasikoa K.o.-ko 300-900 urteetako izan zen; Berria, oster, 989-1697etako da. Inka eta aztekenak ez bezala, maien Inperioak historia luzea zuen, beraz, espainiarrak iritsi zirenean. Desagertu ere ez zen bapatean eta berehala egin, eta erresistentzi agonia luzea izan zuen, XVII.aren hondarretaraino.

Mexikoko hegoaldean, Guatemala eta Honduras-en daude maien lurraldeak: 325.000 bat Km² ditu eskualde honek, eta 500.000ren bat bizilagun ote zituen uste da gaur egun.

Maien gizartea lau klasetan banatuta zegoen: nobleak, apaiak, herria eta esklabuak. Nobleen esku zegoen buruzagitza poli-

tikoa (espainolen *kazikeak*). Apaizen zeregina, erlijiozkoa ezezik, jakintza, medikuntza, zientzia (astronomia, idazkera) eta artearekikoa ere bazen. Herriaren egitekoa, berriz, nekazaritza eta eraikuntza ziren; jatena lortzekoaz gain eraikuntza ederrak egiteko lan handiak egin zituzten, gaur egun ikus litezkeen hondakinek erakusten digutenez (Uxmal adibide ona da, esate baterako). Erreinuko herritarrak gizon-emakume libreak edo ziren, eta esklabuak, berriz, gerrako preso atzeritarrak edo herriko gaizkileak.

Maien ekonomia nekazal ekonomia zen guztiz. Laborantzaren teknikak oso primitiboak ziren: lurrak erre, eta esku-makila baten laguntzaz behar zena erein. Hori zen dena. Maien politika, ekonomia eta gizartea oro landare bakar baten produktioaren gain eraiki zen. *Artoa* zen guztiaren funtsa. Artoaren ekonomiatik jaio ziren kultura eta gizarte maien lan-askatasuna (izan ere, aski zen urtean 69 egunetako lan-egutegia) eta monokultibo haren menpekotasuna.

Lanerako indar-tekniketan muga hertsia izan zituen Zibilizazio honek: burdina ez zuen erabili, gurpilik ez zuen eza-gutu, eta maiek ez zeukaten animalia zamaririk; gizona izan zen Zibilizazio honen zamari bakarra. Halako hiri eta eraikuntza izugarriak jasoko zituen herriarentzat neke gaitza ziren, beraz, lan-energiaren eta teknikaren hutsune horiek.

Inka eta azteken alderantziz, maiek ez zuten apenas Estatu zentralizaturik sortu. Hiri-Estatutan banatuta eratu ziren maien lurraldea eta botere politikoa, Grezian bezalatsu alde honetatik. Hirion buruzagi "gizon jatorra" (*halach uinic*) deitua zen, baina apaiz eta adituak ondoan zituztela; eta arma-buruzagiaren eskuetan egon ohi zen Hiri-Estatuaren defentsa.

Guraso-semeen katean herentzian pasa ohi zen funtzionariaren zeregina, eta orobat apaizena ere. Hortaz, botere-klase gidariak ziren talde horiek, maien gizartean. Erakuntza honen ideologiak bazuen zenbait oinarri onartu: izadiko indarren hezitzailea zen erlijioa, uzta onak erakarri eta zaintzeko asmatua. Horregatik, jakitea eta gizartearen segurtasun eta segida antolamendu politiko teokratikoan oin-harturik zeuden.

Zibilizazio maiaren lorpenik handienak hauetxek ditugu: idazkera hieroglifiko oraindik ere deszifragaitza asmatu zuten;

astronomiari lekurik handiena eman zioten, izadia gidatzeko premiazkoa bait zen berori lehenik ongi ezagutzea; behar horren ondoriz, aritmetika arretaz landu zen, hogeitarra zen zenbaki-sistema bat sortuz. Zeroa ere ezagutu zuten. Egutegia jakintza horietatik etorri zen, eraikita zituzten behategietako lanen fruitu bezala.

Beste hainbat kulturatan baino areago, maien artea eta zientzia gizarteko premietara begira garatu ziren, eta jauregi, tenplu eta behategietan gorputz hartu zuen.

Aurrerapen guztiekin ere, gizarte maiak lur jo zuen, ia zazpirehun urte zutik egondako Inperio Berria behera etorri zenean (1697). Historilariak ez dakite oraindik zergatik gertatu zen ezbehar hori: lurrikarak, gaixotasunak, lurren agortzea, aldakuntza ideologikoak, etab. aipatu izan dira hondamendiaren kausante bezala. Zergatik irentsi zuen kultura bikain hura inguruko basoak? Zergatik utzi zuten Peten bere biztanleek? Jakin, ez daki inork azken erantzun garbirik.

AZTEKAK: HERRI HAUTATUAREN INPERIOA

Cortés espainola Mexikora (Tenochtitlan-era) iritsi zenean, Inperio eta hiriburu handien aurrean aurkitu zen. Hura ez zen bost edo hamar mila laguneko tribu-elkarte bat. Han Estatu antolatu eta zentralizatua aurkitu zuen: Inperioa, gainera, hainbat herri menperatutako Inperio gazte indartsua.

Azteken hura ez zen, ordea, lurralde haietako lehenengo kultura edo Estatu-antolamendu handia. Esate baterako, haien aurretik, *olmekek* (K.o. 200-500) 125.000 biztanle zituen hiriburuaren inguruan (Teotihuacán) Ertamerikako beste zenbait herriekin erakunde politiko zabala eraiki zuten. Oso ezaguna da gaur egun (baita turismo-liburusketan ere) olmeken eskultura sendoa. *Toltekek* (XI-XII. mend.), ostera, azteken orimen historikoan herri jakitun eta aurrerazalearen irudia laga zuten: Mexikoko heladetarrak izan ziren, nonbait, tolteka haiek, eta Tula-n jaso zuten beren hiriburu nagusia (980-1168).

Pentsa daitekeenez, Europa eta Erdi Aroan, Mexiko eta Ertamerika ez ziren baretasun eta bakearen erreinuak izan. Herrien

migrazioek —gehienetan iparraldeagokoek bultzata— hegoaldeko lurraldeak bilatu zituzten. Migrazio-molde hauen artean “barbarrik” ere izan genuen, horixe bait da *txitximeka* izenak esan nahi duena (“tolteka” edo jende zibilizatuei kontrajarria). Europako barbaroek Erroma bezala, kultura ederrez jantzi-tako tolteken Tula hiriburua desegin zuten txitximekek (1168/1224): hain zuzen, XIII. mendetik aurrera indartuz joan ziren aztekek “Eden zerutar eta utopia lurtar” gisara hartu izan zuten tolteken Tula hura. (Ik. SOUSTELLE, J.(1983): *La vida cotidiana de los aztecas en vísperas de la Conquista*. México: FCE. 217-221).

Inperioa eraikitzen

Inperio gehienetan bezala, azteken historia handia eta batez ere haien loraldi politikoa laburra izan zen, eta kasik Cortés-en garaietakoa. Toltekek, txitximekak eta aztekek *nahuatl* hizkuntzakoak ziren denak, baina aztekek izan ziren iparraldetik azkena iritsiak eta azken Inperio handiaren eraikitzaileak. Mexiko/Tenochtitlán hiria 1325/1370koa dugu, eta azteken arrakasta politikoa XIV-XV. mendeetan jarri behar da. Berandukoa, beraz; eta aliantza eta konkisten fruitua izan zen.

Azteken goraldiko gidarien izen-deiturak ezagunak ditugu: Tenochtitlán-go laugarren erregearekin, *Itzcóatlekin* (1427-1440), hasi zen azteken histori une loriatsua; ondoren *Moctezuma I* (1440-1469), eta Itzcóatl-en hiru biloba datoz: *Axayácatl* (1469-1483), *Tizoc* (1483-1486) eta *Ahuítzotl* (1486-1502); Axayácatl-en semea zen *Moctezuma II* (1502-1520), Cortés-ek, iristean, erretaulkian aurkitu zuena.

Itzcoatl-ek jarri zituen Inperioaren lehen zimentarriak, ideologikoak eta lurraldezkoak, Mexiko-tik hegoalderako hedapenari ekinez, menperatutako herrien Historiografia sutara eramanez (tepaneka konkistatuen historiek “gezur asko” omen zuten) eta ideologo batez baliatuz (*Tlacaelel* erreformatzaileaz, alegia). Moctezuma-ri zor zaio Inperioaren ardatza izango zen Lagunarte Hirukoitza (Tenochtitlan, Texcoco eta Tlacopan hirien artean). Horrela, laurogeiren bat urtetan burutu zen azteken inperioingintza, hiriburutik hasi eta, batez ere, hegoal-

derantz eta bi kostaldeetara erret boterea hedatuz, eta hainbat herri menperaturen gobernua eta ustiapen ekonomikoa segurtatuz. (Ik. KRICKEBERG, W. (1977): *Las antiguas culturas mexicanas*. México: FCE. 46-53).

Esan bezala, gerra anker eta luzeen bidez eraikitako Inperio hari, politikari eta ideologo batek jarri zizkion zimentarriak. Gaur egun ezaguna da hezur-haragizko pertsonaia hura: Tlacaélel (1398-1475/80). Jaiotzez Printzea zen, eta erretaulkira igo ez bazen ere, bizpahiru erregeren aholkaria izan zen. Tlacaélel-en pentsamendu eta obraren garrantzia guztiz erabakiorra izan zen Inperio azteka eraiki ahal izateko, eremu politiko, sozial, historiko eta erlijiosoetan burutu zuen erreformagatik: “Con Tlacaélel nace la visión místico-guerrera del pueblo azteca, que se considera a si mismo como el pueblo elegido del Sol”, idatzi du M. León-Portilla-k, zera gehituz: (LEON-PORTILLA, M. (1976): *Los antiguos mexicanos a través de sus Crónicas y Cantares*. México: FCE. 44-47, 86-101. Ik., gainera, KRICKEBERG, W. 1977, 47, 49)).

“(...) modificó la versión de la historia de su pueblo, colocó en lo más alto del panteón religioso a su antiguo numen tutelar Huitzilopochtli, concibió la idea de edificar el templo máximo en su honor, distribuyó tierras y títulos, dio una nueva organización al ejército, a los pochtecas (comerciantes) y consolidando finalmente la llamada “triple alianza” (...), inició la serie de conquistas que habrán de llevar a los aztecas hasta Chiapas y Guatemala.” (Ib. 45)

Ondo kostata eta proiektu ideologiko baten gain eraturako Inperio gaztea zen, hortaz, Cortés-ek aurkitu zuen hura, eta goitik behera ezarritako iraultza baten ardatz inguruan bildutako herriak, mentalitate berriz eta armaz, lortua.

Gizartea eta ekonomia

Azteken gizartea ondoko klase hauetan banaturik zegoen: gidariak, merkatariak, artisauak, herritar xumeak eta esklabuak. Apaiz, gurlari, funtzionari eta auzapezek osatzen zuten *gidarien klase noblea* (nobletasuna, ordea, herentzian jasoa

ez, baizik norberak irabazia izan ohi zen, batez ere gerrako ekintzetan irabazia). *Artisautzak* leku handia izan zuen azteken artean, eta klase boteretsua zen berau; zuten pisu sozial eta artisau-abildadeengatik ohorezko “tolteka” izena ere eman ohi zitzaien. *Merkatarien klaseak* betekizun ezberdinak zituen gizartean eta politikan. Egiteko ekonomikoekin batera, espioilanak ere betetzen zituzten, inguruko herrietan Tenochtitlan-en aldeko azpilana eginez. Klase ekonomiko dinamikoena ziren merkatariak. *Nekazariak* osatzen zuten klase librerik apalena.

Askatasunik gabeko *jopu* eta *esklabuak*, gehienetan gerrako presoak ziren, gaizkileak edo zorrengatik beren buruak saldu zituztenak. Esklabuak tratu txarrik ez zuen, eskuarki, baina presoak tenpluetako opalkuntzetara bidali ohi ziren asko.

Ekonomian, lurgintza eta abelazkuntzatik zetozen produktuen zerrenda nahikoa laburra zen: artoa, babarruna, tomatea, kakaoa, kotoia...; etxeko aberetan oso pobrea zen ekonomia hura: zakur ilesoil bat, indioilarra eta erlea. Apenas zuten etxeko hegaztirik, ez ardi, ez behirik; okela, ehizetik zuten batez ere. Industri lanik zabalduenak, lumagintza eta obsidianazko lanak ziren, eta zeramika ere hedatuta zegoen. Besteak beste, azteken ekonomiak garraioan muga hertsia zituen: animalia zamaririk eta gurpilik ezean, gizakien bizkar egin behar izaten zen garraioa. Esklabutzak zeregin astuna zuen, honetan.

Ondasun-iturri on bat *gerra* zen. Gerrak Inperioa eraiki eta zaintzeko balio politikoa zuen; harrapakinak, esklabuak eta zergak biltzeko ere balio zuen; eta betekizun erlijiosorik ere ez zitzaion falta: tenpluetan opalgai izango ziren esklabuek munduaren jarraipena segurtatzeko balio zuten.

Erljioa eta politika

Azteken gerrek arazo kosmologiko bati ere erantzun nahi zioten. XV. mendean nagusitutako ideologia ofizialak ikusmolde jakin batekin ulertu zuen munduaren historia, eta azteken gizartea ezin da konprenitu haien pentsamendu erlijiosotik at. Herri hautatutzat zeukaten aztekek beren herria: esan bezala, Eguzkiaren herria ziren, eta Eguzki hori etengabe bere indarrean

mantentzera deituak zeuden herri hartako seme-alabak. Munduari bere bizian eusteko, Inperioa indartu ahala, gero eta eskaintza bikainagoak egin behar zizkieten jainkoei. Gaizkiaren eta Ongiaren arteko borroka aspergabea giza sakrifizioak ziren biziaren salbagarri bakarrak. Hortaz, azteken ahaleginei esker salbatzen zen gizadia. Sentimendu hau bere larriune estuenera iristen zen berrogeitamabi urteko ziklo kosmikoa amaitzean.

Testuinguru honetan ulertu behar dira espainolek ikusitako ospakizun-hilketa odoltsuak. Hala ere, esan behar da, ideologia erlijioso-politiko hau, batez ere Ahuitzotl erregearekin indartu zela (1486-1502). Aztekak baino lehenagoko kulturetan, toltekan adibidez, lora, tximeleta, suge eta txoriak eskaintzen zituzten opalgai bezala.

Aldakuntza ideologiko hau hazkunde demografiko baten ondorioz ere gertatu zen. Barne-gatazka demografikoa arintzeko, lur berrien bilaketari ekin zitzaion, eta horretarako premiazko gerra haiek zuzenetsi egin behar ziren jendeen aurrean. Beraz, "arrazoi etikoak" garatu ziren, politika armatu baten bidez kriari aurre egin eta azteken etorkizun zaila hobertzeko.

Ideologia, mentalitateak, ekonomia eta politika elkar ongi besarkatuta ageri zaizkigu, ba, azteken artean.

TAHUANTINSUYU, EDO INKEN INPERIO HANDIA

Inperioaren "Lau Eguzkialdeek" (Inperioko lau herrialdeek), espainiarrak iristean, 4.000 km-tako luzea zuten, Andeetan iparraldetik hegoaldera. Cuzco zen hiriburua. XV. mendean erditik hasita batu berriak ziren erresumako lurraldeak. Cuzcotik goi-lautadara igo eta Tiwanaku konkistatzean (1445) hasi zen benetan hedapen bizkorra. Azken konkista zabalak, Pizarro (1531) agertu baino lehentxeago egin zituen Huayna Capac-ek (1493-1525). Inperioaren historiaurreko legendak ahantzita, esan dezagun zinezko historia Pachacutec konkistatzailearekin hasi zela (1438-1471).

Hainbat Inperiotan gertatutakoaren antzera, galtzadak, propaganda, erlijioa eta hizkuntza erabili ziren menperatutako

herriak Inkaren esanetara jartzeko. Andeetako leizeen gainetik bideak luzatu asmoz, zubi esekiak bota eta mendi-urraketa handiak egin zituzten; bestalde, kostaldeko bidea Tumbesetik Txileraino luzatu zen. Inperioaren hedapena, propagandaz eta armaz egin zen, lehenik Tahuantinsuyu-ren bikaintasunak erakutsiz, eta gero, gerraz eta asimilazio-politika baten bidez. Horretarako, kitxua (*runasimi*) hizkuntza ofiziala ezarri zen, hezkuntza eta irakasleen bidez. Herri menperatuen jainkoak errespetatu egin ziren, baina beti ere Eguzki Inkari lehen-tasun osoa aitortuz.

Armada, diplomazia, hizkuntza, erlijioa, galtzadak, leku-aldaketa bortxatuak, guztiok izan ziren Inperio bat bera eta bakarra egiteko tresnak.

Ekonomia eta gizartea

Boterearen erpinean “Sapa Inka” deitua zegoen, eta Inti Eguzki-Jainkoaren semetzat ezagutua zen. Aginte zibila eta erlijiosoa, biak, haren eskuetan zeuden. Noblezia, odolezkoa nahiz funtzionari edo halakotzat aitortuena izan zitekeen. Nobleak eta apaizak zergetatik libre zeuden.

Gizarte-mailarik apalena “yanacona” deituek eta herri xumeak osatzen zuten. Haiak, itxuraz, gerrako presoak ziren; eta herritar xumeak, berriz, askea izanik ere, Estatuaren egiturari guztiz lotuta zeukan bere bizitza. Estatuaren zerga-iturri nagusia hauxe zen, izan ere norberak bere lurretan ezezik, Estatuarenetan ere lan egin beharra bait zuen. “Mita” bezala ezagutzen zen eginbehar hau, eta berorren bidez segurtatzen zen hainbat zeregin publiko: zubi, tenplu eta bideak eraikitzea, salgaien, armen eta Estatuaren bestelakoen garraioak egitea.

Lana, herritar guztien eginkizun arautua zen, eta lurgintzan, soldadutzan edo artisautzan bete zitekeen. Baina laborantza zen batipat inken sistema ekonomikoaren funtsa; horregatik, lurra- ren ustiapen sistematiko eta planifikatua arretaz zaindu zuen Estatuak. Ezagunak dira Andeetako mendi-maldetan egin ziren zapaldak (higaduraren kontrako horma-mailaketa).

Labore-lurra hiru sailetan banatu ziren: lehenengo motako lurren etekinak Eguzkiaren ospakizunetarako ziren, bigarre-

na renak Inkarentzat, eta hirugarrenak segurtatzen zuen herriaren mantenua. “Ayllu” edo auzo-elkarteari ematen zitzaion lurra, eta honek banatzen zizkien sailak familiei, baina hauek ez zuten saila saldu edo herentzian uzteko eskubiderik. Artoa, patata, babarruna, kotoia, piperrak edo kalabaza ziren batez ere landu ohi ziren landareak.

Maiek edo aztekek ez bezala, inkek bazituzten abere zama-riak, baina balio kaskarrekoak: llama, alpaka, bikuina. Esne eta artile edo larrutarako ziren probetxuzkoak. Ehizak eta arrantzak ez zuten leku handirik izan inken ekonomian.

Merkatal harremanak, funtsean, Estatuaren esku zeuden, edo berak kontrolatuak. Funtzionari berezi batzuek eramaten zuten guztiaren kontua, artxibo ofizialetan sal-erosketen albiste zehatzak jasoz (“quipua” zen horretarako inken tresna mne-moteknikoa).

Kultur bizitza eta erlijioa

Ekonomia bezala jakintza, erlijioa eta artea ere Estatuak gidatzen zituen. Jakintzak balio politiko programatua izan zuen inken erreinuan. Cuzco-n ireki ziren ikastetxe nagusiak, eta bertako erakunde ofizialetara ekarri eta erakarri ohi ziren, probintzietako noblezia ezezik, baita herri menperatu-berrietako aitonseme eta klase politikoak ere. Dena den, inken zientziak ez zuten originaltasun nabaririk izan, bere aplikagarritasun administratiboan ez bada. Aritmetika zenbaki-sistema hamartarra, egutegia eta pisu-neurriak presente zeuden Administrazioaren eguneroko bizitzan.

Eraikuntz tekniketan zinez maisuak izan ziren inkak: nahi-koa da Sacsahuaman edo Machu Picchu ezagutzea. Arkitektura megalitiko honek teknika eta kalkulu aurreratuenak behar izan zituen, eta, nolana ere, izerdi eta gastu sozial nekagarriak ezarri zizkioten herri xumeari, baina hau edozein Zibilizazio handitako eraikuntza erraldoien arazo bera da... Arkitekturan lortutakoaren ondoan, hutsune azpimarragarri bat du hizkuntzaren munduan: ez zuten idazkerarik ezagutu, eta ki-txuen literatura osorik ahozkoa izan zen.

Inken erlijio-bizitzak ez du azteken ideologia eta ospakizun krudelik (inoiz giza sakrifiziorik izan arren), eta Inperioko beste herriekiko tolerantziarik izan zuten, jainko-jainkosa txikiak Viracocha jainko gorenaren babesera ekartzean. Otoitz, bekatu eta barauaren kontzeptuak ezagutu zituzten, eta Cuzco-n Coricancha tenplua zuten topalekurik nagusia.

AZKEN GALDERA ETA IRITZIAK

Zein izan da Amerikako kultura handiok gizadiari egin dioten ekarpen baliozkoena? Esan dezagun zerbait bakoitzari buruz.

Maiak dira beren proiektu kulturallean iraupenik luzeena erakutsi zutenak: behin eta berriz heldu zioten ahaleginari, horretarako lurralde berriak ere bilatuz. Bestalde, ez zuten besteen pareko inperialismo-grinarik izan, eta praktikoa gertatu zitzaizen beren antolamendu politiko polizentrista. Zientzietan abstrakzio-gaitasun zorrotza erakutsi zuten maiek (zeroa, leku-gunezko zenbaki-sistema). Astronomian gailurrik onenak menperatu zituzten.

Oro har, aztekek dira Ameriketara aipatutako hiru Zibilizazioetan antolamendu demokratikoena zutenak, nahiz eta ideologia erlijiosorik gogorrena izan. Hala ere, aztekek ez zuten begiramendurik izan inguruko herriekin, eta bereziki gogorrak gertatu ziren haiekin. Izan zuten, hala ere, zenbait alde-tatik beren kultur atzeramenduaren kontzientziarik, eta saiatu ziren atzerapen horri gaina hartzen, tolteken lorpenetatik ikasiz adibidez.

Inkei buruzko iritziak oso sakabanatuak ageri zaizkigu historilarietan. Batzuentzat, batez ere herri gerlaria izan zen inkena, gizarte kulturaz jasoagoak menperatu eta ito eraziz. Inken erreinua, askatasunik gabekoa izan zen, agintekeria itsuenean eraikia. Hala ere, sortu zuten mundua hain harri-garria eta erraldoia denez, historilari asko izan da, XVIII. mendetik hona bereziki, mirespenez begiratu diona. Andeatako *Tahuantinsuyu* hura da Ameriketara ezagutu den Estaturik ordenatuena, herritarrei segurtasun ekonomikorik egina

emandakoa (segurtasunaren truke norberaren ekimena ito bazen ere). Alde horretatik, aztekak libreagoak ziren beren sistema politikoan.

O ro har, zer pentsa zezaketen Ameriketako konkistari, aurkitzaile eta misiolariak han ikusitakoaz? Garaiko Europarekin alderatuz, zein mailatan zeuden Zibilizazio haiek? Kontinente baten bakardadean eta aurrerapen-autarkia osoan erakitakoak izateko, herri haiek lortutakoa zinez harri-belarri gertatzekoa zen; baina garai bereko Europa edo Asiako aurrerapenen azpitik zegoen, hala ere, Europa. Hona, gogoratu ditugun eskastasun nabari batzuk: gurpilik ez zuten; kasik animalia zamaririk ere ez; burdina oso gutxi erabili zen; goldea ezezaguna zen; idazkera, hastapenetan zegoen eta batzuek izan ere ez zuten izan; inprimategi eta polborarik ez zuten ezagutu...

Aldiz, badaude mundu osoaren ondare bihurtu diren ondasunak ere: gogora ditzagun berriz artoa eta patata, gerora giza-diari jaten emateko halako garrantzia izan dutenak... Azkenik, esan dezagun, amerindiarrek lorturik zutela beren sisteman izadiarekiko ustiapen-oreka bat, garapen ekonomiko-sozialaren eta naturaren arteko oreka.

Pentsamenduaren aldetik, Mendebaldearentzat Mesopotamian, Egipton eta Grezian egindako ahaleginen antzera, Amerikan ere jaio zen kosmogonia bat, eta gizakiarekiko gogoetarik ere bai. Aurkikundea, ordea, estropozo latza gertatu zen, eta ibilia bere gisara egiteko eskubidea zuen Amerikari bere bide historikoa galerazi zitzaion.

Europarrek Amerikarekin topo egitean ez zuten maila historiko bereko edo kultur balio bereko bi Kontinentek edo bi Zibilizaziok elkarrekin topo egin. Europak, lehen-lehenik, *zer bait aurkitu* zuen, eta ez zuen uste izan *norbaitekin topo egin* zuenik. Jarrera horren azpian zeuden mentalitate eta interesek gidatu zuten Europa, oro har, ondoko politikan. Horrek ez du esan nahi, noski, bestelako mentalitaterik ere egon ez zenik, aitzitik salbuespen anitz ekar liteke hona; baina sistema oso arriskutan jartzen ez zuten heinean jasaten ziren salbuespen haiek (XVI.ean Mexiko-ko frantziskotarren proiektu ebanjelikoa, edo XVII-XVIII.etan Paraguay-ko jesuitena, bi kasu adierazgarri dira).

Aurkikundearen zentzu koloniala ongi azpimarratu du historilari espainol klasiko batek ere, M. Ballesteros-Gaibroisek: Kolonizazioa bati ezaugarri bezala dagozkion gobernabide eta administrazioa sortu, eta Amerikara landatzen saiatu zen Espainia. Zeregin hori indiarra bereganatuz egin zuen, berau gizarte berri “sui generis” batean integratuz, arraza eta geografi errealitate amerikarren gain molde europarrak ezarriz, indiarra *desindiartuz* eta arraza-nahastura ugari sortuz. Jatorrizko kultur prozesuak, bertakoak, moztu egin ziren horrela, eten. Egia da, herri indiarrek segitu dutela irauten, baina kolonizazioarekin kolonaurreko kulturen zikloa —europarrak leku bakoitzera iritsi ahala— ezindurik suertatu zen eta ezarriko zitzaion bide “samurragoak” nora eraman zezakeen ere ezin jakinik, zorabiatuta.

Iritzi orokor honek, funtsean berdintsu balio du Ameriketako zibilizaio handientzat eta basoan galduriko herri txikientzat. Historiografiak hobeki ezagutzen du haien hondamendia, eta etnologoek, agian, sarriago gogoratu digute besteona. Denak ere arerio bat beraren aurrean aurkitu dira 1492tik hona; baina horretaz dihardute ondoko orrialdeak.

LATINAMERIKA

Demokraziaren pobrezia eta
pobreziaren demokrazia

JAMES PETRAS

Joan den hamarkadan, esperimentu liberal kapitalistek mende honetan izan duen krisirik sakonenean murgildu dute Latinamerika, atertzeko arrastorik ageri ez duen krisian. Ekonomia desregulatuak (merkatu librea, “ateak zabaliko” inbertsio-politikak, pribatizazioa) aurrez ikusi gabeko gizar-te-polarizazioaren, beherantzako mugikortasunaren eta bizimailaren lurjotzearen sinonimo izan dira milioika pertsonarentzat, soldatagabeko (“noizik behineko”) lanaren hazkunde izugarriaren sinonimo (erregioko lan-indarraren %80aren gaitetik), bai eta “bertakoek”, nazioarteko finantz merkatuen zirkuituetan ihardunez eta altxor publikorako irispidea izanez, egindako bilioika eta biloika dolarretako fortunaren sinonimo

ere. 80ko hamarkada, halaber, harrapaketa eskergen lekuko izan da ekonomi mailan (kanpoko eta bertako inbertsore eta bankeroek egindakoak) eta estatu-mailan (bozketaz hautatutako politikoez eta hautatu gabeko funtzionarioez egindakoak), erregimenak porrot eginda utzi eta klase-eraginezko austeritate-programen era berri eta latzagoetarako aitzakia eman dutelarik.

Kanpainetako promesak eta erretorika eta guzti, aldi honetan kontinentean zehar boterea hauteskunde bidez hartu zuten erregimenek, populazioaren premia sozio-ekonomiko oinarrizkoenak ez soluzionatzeaz gainera, ez dituzte beren erregimen politikoak demokratizatu, ezta eguneroko bizimodurako gutxienezko segurtasuna eskaini ere. Politikagintzarako prozesu demokratikoagoak ekarri ordez, hauteskunde bidezko sistemak ez-errepresentatzaileago bihurtu dira, herri-premietatik urrunduago. Autoritarismoa indarrean dator nonnahi eta errepresioa gobernu zibilen ohizko ezaugarri bihurtu da.

Kapitalismo liberalaren lurjotzeari emandako erantzun politikoa eta alderdi-hauteskunde bidezko erregimenen ajeatzea ez dira uniformeak izan. Hauteslearen mudakortasuna isladatuz, alternatiba konbentzionalak eta mugimendu eta pertsonalitate berriak azaldu dira. Aurreko identitate politikoek dagoeneko ez dute muntarik birlerrotze politiko zorrotzen ondotik, hots, aurrez zentro-ekzteriko, sozial-demokrata gisa identifikatutako alderdiak eta beren buruzagiak neoliberalismora, zentro-eskuinera eta haruntzago mudatu dira. Aldi berean, "txaketa-aldatze" honekin batera ez da gertatu beste hainbeste hauteslearen eskuineratzerik. Mexikoko eta Brasilgo presidentetzarako hauteskundeetan (1988 eta 1989an, hurrenez hurren) herri-esfortzu handia agertu zen ezkerreko hautagaien alde. Brasilen, Lula eta Langileen Alderdiak botoen %47 historikoa lortu zuten (31 milioi gutxi gorabehera); Mexikon, Cuauhtemoc Cardenasek irabazi egin zituen hauteskundeak, PRIren iruzurra medio lapurtu bazizkioten ere. Kontinentearen "eskuineratzearen" kontrako joera hau hauteskunde bidetik eta hauteskunde bidez kanpo azaleratu da, eta aurkaketa masiboetara irits daiteke, baldin eta mugimendu koherente eta antolaturik sortzen bada.

Atzerrian errotutako intelektual talde nimiño batengan salbu, Eki Europako erregimen kolektibisten gainbeherak ez du ekarri sakoneko joerarik kapitalismo liberalaren alde. Merkatu librearen eragindako eguneroko hondamendiak askoz erabakiorrago astindu ditu ikuspegi politiko eta ekonomikoak Moskutik eta blokeko beste hiriburuetatik zetorren erretorika kapitalistazale eta mendebaldeazaleak baino. Inoiz baino gehiago, latinamerikar gehienek enplegu segurua, gizarte-segurantzaren sarea, irabazien sistema justua eta enpresa publiko eraginkor eta demokratikoki kontrolatuak ekarriko dituzten ekonomia nazionalak sortu nahi dituzte. Merkatuak aspalditxo galdu zuen bere mistika Kingston, Lima eta Caracasko hiritar pobrearentzat, Sao Paulo, Buenos Aires eta Santiagoko industri langileriarentzat, eta erregio osoko gizarte-mugimenduentzat.

Politika elektoralistaren eta merkatuak gidatutako ekonomia proگرامen azken ziklo honen porrota, Latinamerikako jendearen bizimodua hobetzeko, ezin zorrotzago eta zuzenago adierazi zuten Brasilgo hegoaldean dagoen Parana estatuko langile baten hitzek, 1990.aren azken aldera izandako kongresu nazionalerako hauteskunderen garaian. Hautestontzira iristean, atzera hartu egin zion boto-papera hautesmahaiko ordezkariari, hauxe adieraziz: "Bertatik egiten diot uko delako eskubide honi, ez bait da gauza niri gosea kentzeko."¹

HAUTESKUNDE BIDEZKO ERREGIMENEN PORROTA, EKONOMI DESINTEGRAZIOA GELDIERAZTERAKOAN

Arau militarretik zibilerako trantsizioarekin batera, jarraitasuna izan bazen estatuaren instituzioen eta pertsonalaren mailan, aldaketa gutxi edo batere ez zuen ekarri aurreko erregimen diktatorialek eraikitako eredu sozio-ekonomiko neoliberaletara. Aitzitik, hautatutako gobernurik gehienek pribatizazio eta liberalizazio-prozesuak areagotu eta irabazien eta soldatapekoen gaineko murrizketa berriak konbinatu zituz-

ten. Argentinan, are jeneralik merkatu librearen aldekoenak ere oztopoak jartzen zizkion ia sektore publikoko enpresak saltzeari edo partehartze pribatuari irekitzeari. Baina hauxe lortu nahian dabil orain Menem presidentea. Bere aitzindari Raul Alfonsínek abiarazitako prozesua izugarri bizkortuz, Menemek pribatizazio dekretuak sinatu ditu, petroli oputzuetan, konpainia petrokimikoetan, komunikazioen sektorean, ur-homikuntzan, elektrizitatean, ikatzean, posta eta telegrafi zerbitzuetan eta itsasportuen agintean eragina duten dekretuak. Brasilen, presidente gisa hasi (1990eko martxoan) eta lehen hilabetearen barruan, Fernando Collor-ek estatuaren 188 industria pribatizatzeko planak barne hartzen zituen ekonomi estrategia sinatu zuen. Harrez gero, enkantean jarri ditu sistematikoki gobernuaren jabetzako korporazioak. Sektore publikoaren suntsiketa errazteko, dagoeneko ia babes guztiak kendu dizkie merkatu nazionalari eta goimailako teknologiaren industria berriei. Uruguayn, Luis Alberto Lacalle herrialdeko buruzagi hautatuak hainbat neurri hartu ditu arrantzu-industria, aire-linea nazionalak, alkohol-produkzioa, aseguru-salmentak eta portu eta telekomunikazio-zerbitzuak pribatizatzeko. Perun, estatuburu zibil berriak, Alberto Fujimorik, petrolio, meategiak eta metal-birfindegiak saltzeko programa bat iragarri du, herrialdearen industri produktua gehiena ematen duten enpresak alegia.

“Demokraziak” gora egin duen hamarkadan, Latinamerikako barne-produktu gordina (BPG) %8 baino gehiago jaitsi zen, eta zenbait herrialdek (Argentina, Peru, Venezuela, Bolivia) %24-26 inguruko beherakadak jasan zituzten.² Gainbehera kontinental honetan salbuespen nabarmen bakarra Kuba sozialista izan zen; honen ekonomia (BPG) 31,6an hazi zen per capita, eta Produktu Sozial Gordinak (PSG) %44,2ko gorakada izugarria izan zuen.³ Emandako zifrak ezberrik gabe zorigaitzokoak badira ere, ilundu egiten dituzte irabazietan gertatutako are galera sakonagoak. Soldata urbano minimoak (erregioko lan-indarraren erdiak inguru jasotzen dituenak) %74 erori ziren Perun, %58 Ekuadorren, %50 Mexikon, %30 Brasilen eta %21 Txilen.⁴ Erregio osoan zehar, langileek hiru, lau eta bost lanbideri heltzen diete doi-doi oinarrizko premiak ase-

tzeko janaria ordaindu ahal izateko. 80ko hamarkadan, Brasilen aberastasuna eta irabaziak gero eta gehiago kontzentratu ziren, goimailako %5aren eskuetan; soldata minimoa jasotzen duen populazioaren %50ak duen erosteko ahalmena inoiz baino beherago dago.⁵ Argentinan, oraintsu arte *per capita* haragi-kontsumorik altuena izan duen lurraldean, eguneroko ikuskizuna dira janari eske ate-joka dabiltzan langabetuak. 1989ko irailetik 1990eko irailera, herrialdeko konpainia publikoetako soldata errealak %49 harrigarrian beheratu ziren, horrekin batera industri sektorean bakarrik milioi bat lanpostu baino gehiago galdu zirelarik.⁶ Fujimoriaren Perun, soldata errealak 1972ko mailan-edo irauten dute.⁷

Aberatsek eta pobreek irabazten dutenaren arteko aldea handiagotu egin den bitartean, sektore sozialeko gastua %50ean baino gehiago jaitsi da aurreko hamarkadarekin konparatuta. Aldi berean, norbanakoaren sektoreak (bereziki osasuna, hezkuntza, garraioa, etxebizitza eta aisia) eta beren klaseak gero eta gehiago isolatu dira elkarrengandik. Argentinan gaur egun, adibidez, aberatsek eskola-maisu baten urteko irabazien hiru halako ordaintzen dute osasun-aseguru pribatuagatik; aldiz, estatuak kudeatutako emakumeen ospitale psikiatrikoak informatu zuenez (1990eko ekainean), 30 paziente hil ziren janari-eskasiagatik. Egia esan, azken hau kontinente osoan dagoen arazoa da, eta ia populazioaren erdia hartzen du zenbait herrialdetan. Sendagileek, erizainek eta medikuntz sorospenak ez dute nahikoa sendagai eta hornidura hainbeste gaixotasuni aurre egiteko.

Ezinbestean, beren burua zaintzeko gaitasun gutxien dutenek ikusten dituzte gorrienak ekonomi desregulatuzaileen eskuetara. Hilkortasun-tasak, jaiotzean hildakoak, eta haurren elikadura-eskasia asko ugaltu dira azken urteotan Argentina, Brasil, Peru eta Mexikon.⁸

“Birdemokratizatutako” El Salvadorren, haurren hilkortasuntasek gora egin dute 80ko hamarkadan, oinarritzko zerbitzuak txartu direlako -batez ere ur edangarria gordetzeko biderik ez izateagatik. 1988an hamar nekazaritatik bederatziri ukatu zitzaizen funtsezko eskubide hau.⁹ 1990ean, Nazio Batuetako

Latinamerikarako Ekonomi Batzordearen (ECLAREN) arabera, kontinenteko populazioaren %44 gutxi gorabehera pobrezia-aren mugaz azpitik bizi zen (1970ean baino 112 milioi gehiago). Multzo honen ia erdia (88 milioi) ezergabeak omen ziren, pobrezia-rik gorrienean bizi zirenak. ECLAK irabazien batezbestekoak izandako erorketari egotzi zion miseria gero eta handiago hau: "atzerapauso izugarria markatu zuen Latinamerikako eta Karibeko populazioaren ohizko bizimailan" 80ko hamarkadan zehar.¹⁰

Lurjotako soldaten, bizimoduaren narriadura kronikoaren eta hazkunde negatibozko portzentaien aro hau zuzenki lotuta zegoen kapital-atzerriratze masiboa errazten zuten gobemu-politikekin. 1982.etik 1989.era, elkargo multinazionalak eta bankuek sekulako festa izan zuten: bederatzirte hauetan bidalitako etekinek eta ordaindutako korrituek 281,5 bilioitako kopuru astronomikoa osatu zuten. Mailegu berriak eta inbertsioak kenduta, Latinamerikak oraindik 200 bilioitako kapital-esportatzaile garbia izaten jarraitzen zuen.¹¹ Hauteskunde bidezko erregimenek bultzatutako eredu sozioekonomikoaren logikak -kapitala (bertakoa eta atzerrikoa) jaregitea eta sektore publikoa murriztea- ondorio hau ekarri zuen ezinbestean (eta aurrerantzean ere hala izaten jarraituko bide du), zeren eta nazioarteko zirkuituak mantentzera behartzen bait zituen, hots, zorra ordaintzera; behin hau erabaki ondoren, ez zuten esportazio-eliteak bultzatzea beste aukerarik, bertako produktugileen eta soldatapeko taldeen bizkarretik. Ekonomi harrapaketa guztiz lotuta zegoen gizartearen pobretzearekin eta polarizazioarekin.

Ekonomi aldaketa hauen ondorio subjektibo sakonena zera izan da, profesionalen eta klase ertainen proletaltze bizkorra, bereziki sektore publikoetan soldata bidezko irabaziei lotuta zeudenena. Hori bezain bizkorra izan da soldatapeko industri lan-indarraren desproletaltzea: azpienplegua eta langabezia aurrez sekula ezagutu gabeko mailetara iristen ari dira (%70 Liman, %50etik gora Caracasen, %20 Buenos Airesen, e.a.), sasoiko eta noizbehinkako lana, legeria sozialak babesten ez duena, soldata minimoak, edo segurtasun-baldintzarik eza lanpostuan, arau bilakatu dira. 80ko hamarkadako hautes-

kunde-erregimenek agian legezko eskubide gehiago bermatuko zizkieten sindikatuei baina, aldi berean, beren politika sozioekonomikoak kidez hustu ditu sindikatu eta lantegiak. Hain zuzen, buru izan dira klase- eta politika-burrukaren bitartez mende erdian zehar lortutako hobekuntza nagusi gehienen atzerakadan.

Ia hutsegite sozioekonomikoa bezain txundigarria izan da moraltasun publikorik eza. Jabego publikoaren lapurreta politikoak sekulako mailak iritsi ditu nonnahi. Perun, Alan Garcia-ren erregimena (1985-90) ehundaka milioi lapurtzeaz salatu dute; altxortegia balantze negatiboz utzi du Venezuelan, Luchini presidente-ohiaren Ekintza Demokratikoaren erregimeneko (1983-88) dozena bat ministro-ohi gutxienez salaketapean daude bilioiak lapurtu dituztela eta petrolio-dirutan —gehienek herrialdetik aldegin dute. Brasilen, Sarneyren erregimena (1985-90) mundu guztian mespreziatu dute estatuaren diru-sarreraren milioika eta milioika dolarrez jabetzeagatik, entretenimendu pribatuarentako hartzeagatik eta ehundaka milioi, bilioiak agian, atzerriko kontuetan sartzeagatik. Argentinan, Menem presidentearen anaiak, Senatuko burua bera, milioi bat dolarretik gora metatu zituen Uruguayko kontu korrante batean, bere postua hartu eta hiru hilabeteren barruan. Bitartean, Txilen, ez dirudi Alwyn-en gobernuak kemenez jazargo dienik diktaduraren azken egunetan Pinocheten “adixkide” eza-gunei egindako estatu-enpresen milaka milioitako salmenta maulazkoei. Erabateko saldukeriak, ustelkeriaren nondik norakoa eta neurria, horixe da hauteskunde bidezko erregimen neoliberalak kapitalismo desregulatuaz -merkatu librea- egin duten intepretazio praktikoa. Era berean, harrapaketa publikoaren neurria, aberasteko aukera pribatuak agortu izanak ere azaltzen du. Bankuek parterik handiena hartzen dutenez, eta sortu diren esportazioko eliteek ukiezin dirautelarik, sektore pribatuari saltzen zaizkien enpresa publikoak eta altxortegi publikoa dira funtzionari elektoralei geratzen zaizkien bi alderdi bakarrak, beren metaketa pribatua egin ahal izateko. Ezbairik gabe, portaera hau azken balioa bailitzen akuilatzten duen merkatu-jite berria ez da lasaigarririk txikiena funtzionari dudatien kontzientziarentzat.

Pribatizazioak esanahi berezia hartu du hauteskunde bidezko erregimenetan -bi adieratan, jabetza publikoa pribatu bihurtze gisa, eta gobernuko goi-funtzionarioek baliabide publikoak bereganatzeko praktika gisa (zuzen-zuzenean nahiz famili edo negozio-loturen bidez). Kapitalaren desregulazioaren, pribatizazioaren eta nazioartekotzearen aro berrian, ustelkeria politikoaren nondik norakoa eta sakona gauza jakina izan da Venezuela, Brasil, Argentina eta Peruren kasuetan —non funtzionarioek literalki estatu-aurrekontuak erabili dituzten erbeste-ko kontuak ondo gizentzeko, enpresa publikoentzako baliabideak bereganatu dituzten, haiei behea jo erazi eta beren kide pribatuei saldu dizkieten.

Ondorioz, enpresa publikoen defiziten parte handi bat ez zaio zor enpresa publikoek berez duten eraginkortasun-faltari; aldiz, partez jabetze pribatuaren eta subkontratazio ustelaren emaitza dira. (Aitzitik, Uruguayn, Montevideoko gobernu sozialista hautatu-berriak, sei hilabetetan, %300ean jaso zituen kasinoetatiko diru-sarrerak, batez ere administrazio zintzoari eskerrak, nonbait). Enpresa publikoen lapurreta pribatua pribatizazio gehiagotarako aitzakia bihurtzen da: estatu-ustelkeria hauteskunde-erregimenek bultzatutako pribatizazio-prozesuaren bi muturrei lotuta dago. Horren ondorena “pilaketa primitiboaren” antzera harrotzen duen ekonomia da, zeinetan funtzionari politikoek lapurreta publikoaren bidez eskuratzen duten beren hasierako aberastasuna, eta ondoren aberastasun hori kapital bihurtzen duten berriki pribatizatutako sektoreetan.

Hauteskunde bidezko erregimenek merkatu librean oinarritutako ekonomi estrategiak jarri dituzte modan; halakoek, ez aberastasuna gizartean justuago banatzea ekarri dute, ez esportazio-eliteen eta soldatapeko taldeen arteko irabazien aldeak txikiagotu dituzte. Aitzitik, lehena sakonagotu dute besterik gabe, eta bigarrena sendotu, legitimitate ideologikoa emateko eginahalak egiten zituztelarik. Gainera, ekonomia bikoitz zurrun-zurruna sortu dute: atzerriko finantz baliabideetatik eta estatuaren lapurretatik hurrupatzen duten nazioarteko zirkuituei lotutako sektore pribatua; eta beste sektore bat, barn-merkatu gero eta meharragoan oinarritua, behe-

raka doazen soldatei, hondatzen ari diren estatu-zerbitzuei eta lan-aukera faltari lotua.

HAUTESKUNDE BIDEZKO ERREGIMENAK ETA KLASE-EGITURA

Hauteskunde-erregimenen eta berauen buruzagien bitxitasuna zera da, klase-borroketatik sortuak izanik ere, bizkor ukatzen dutela beronen garrantzia behin boterera iritsi ondoren. Oposizioan direnean, elektoralistek erregimen ez-demokratikoetako klase-eraketa bideratzen dute; boterean daudenean, estatuaren eta klasearen arteko loturak lasatzen dituzte, esfera bakoitzaren desberdintasuna, berezitasuna eta autonomia azpimarratzen dituen ikuspegi baten alde. Trantsizio politikoarekin baterako aldaketa ideologiko hau oso nabarmena izan da Latinamerikako klase intelektualetan, zeinen kideak sarri bete-betean ihardun bait dute erregimen berriak arrazionaltzen edota berorietan formalki partehartzen. Bigarrenek garrantzia izan dute (?) klase-egituretan eta, ordainez, klase-boterearen eraketa espezifikoek oso sakon eragin dituzte.

Badira zenbait ezaugarri harrigarri, 80ko hamarkadako gobernu zibil berriei (eta zaharrei) amankomun zaizkienak. Lehena hauxe da, ia herri-politikarik eta politika birbanatzailearik eza. Presidentetarako bozketaren aurretik zeinahi koalizio zeudela langileriaren, klase ertainen eta negozio-taldeen artean, ez dute eraginik ondorengo politikan eta bizkor hausten dira gatazka arrenkuratsuetan. Bigarren, hauteskunde bidezko erregimen berrien politikak definitzerakoan, mintzabide ideologiko tradizionalak eta praktika historikoez garrantzi gutxiago dute boterearen egungo eraketek baino, zeinetan sartzen diren erregimen horiek. Adibide argi eta garbi bat Argentinako erregimen peronista da. Menemen politika atzerriko bankarien eta esportatzaile pribatuen aldekoa da, bertako produktugileen eta soldatapeko langileen kaltetan; arbuio zuzena egiten die iraganeko praktikei, eta entzungor sindikatuen "traizio"-salaketari. Menem ondo erantzuten ari zaio Argentinako kapitalista transnazionalen larderiari, erbesteko inbertsoreei eta

bertako esportatzaileei, hots, aurrez Alfonsinen eta militarren erregimenetatik jasotako botere-eraketari. Hirugarren, hauteskunde-erregimenek ez diote ekin klase-sistema eraldatzeari edota klase-desberdintasunak hobetzeari; aitzitik, boterea bermatu eta sendotu egin dute goian, ekonomia garatu ahal zuen klase bakarra bera bailitzen.

Laburbilduz, hauteskunde bidezko erregimenak %20an edo hortik gora ari dira areagotzen nazioarteko mugikortasuna, geldi dagoen ekonomiari lotutako soldatapeko taldeen mugikortasuna behera erasten duten bitartean. Hain zuzen, kanpora begirako klaseek barrura begirako klaseengandik soberakina jasotzeko duten abilezia nazioarteko mugikortasun handiagorako baldintza da. Mugikortasun-modu gatazkatsu baina erlazioan hauek artekari bat dute: estatu neoliberala eta hauteskunde bidezko erregimenak; estatuak soberakina soldatapeko klaseetatik bertako eta atzerriko transnazioaletara ateratzen duen bitartean, hauteskunde-erregimenak legitimatu egiten du prozesua liturgia demokratikoaz baliatuz.

Klase-eraketa eta klase-erlazio nagusiak ez dira beti hauteskunde-erregimenen emaitza, gehienak erregimen militarra zegoenean sortu bait dira. Hauteskunde-erregimenen politikak asko egin dute klase-egituran aurrez zeuden joerak indartzeko.

Gaur egungo klase-egituraren zenbait ezaugarrik arreta berezia merezi dute. Lehena latinamerikar kapitalista transnazionalen (KTN) klasearen nagusigoa da, kontinenteko lehen indar gisa. KTNen ezaugarri klabea ez da produkzioan sartuta dauden ala ez, ezta beren iharduera produktiboaren kokalekua, baizik eta nazioarteko merkatuetan duten sarbidea eta eskuhartzea, nazioarteko kapitalaren harat-honatarekin lotzen dituen. KTNek goialdean duten nagusigoaren parean langile-klasearen sail handien zokoraketa dago: langabetuen eta gaizki ordainduen, azpienplegatuen, autoenplegatuen, sasoikako eta aldikako langileen masifikazioa (segurtasun-onura tradizionalak ere falta zaizkielarik). Polarizazio honek, batetik KTNen klase kohesionatu eta autokontzientea goian, eta bestetik langileen masa desartikulatua behean, oso eragin larria izan du

profesionalen eta soldatapekoen klase ertainean: gutxiengo bat sare pribatuetan sartu ahal izan da (ideologoak, kontableak, legegizonak, sendagileak); aldiz, gehienek beherakada larria jasan dute. Beheraka egin duten profesionalak enplegu-aniztasunari heltzen saiatu dira, eta atzerrira jo dute gero eta gehiago, baita protesta ekintza zuzenetara ere.

Klase-sistema honen dinamika askotarikoa izan da —klaseen segmentuak osatuz eta deseginez, eta klase bakoitzaren berezitasunak eta klase-batasuna ezabatuz. Garapen nagusietako bat lunpen-proletalgoaren hazkundera izan da, langile-klase desartikulatutiko eta autoenplegatu pobretuetatik sorkaria. Erregioan zehar, eta bereziki hiri handietan, krimenaren portzentaiak aurrez ezagutu gabeko neurrietaraino ari dira hazten, eta Nazio Batuetako Latinamerikarako Ekonomi Batzordeak “Latinamerikako populazioaren sail zabalen bizimailaren narriadura nabarmenari...”¹² leporatzen dio hau. Brasil eta Argentina bezalako herrialdeetan, segurtasun-konpainiak bilioi askotako enpresa bilakatu dira. Beste garapen baten arabera, langile-klasearen famili unitatea gizonezko-emakumeen berreraketa berriaren oinarria bilakatu da, eragin politikoa duelarik. Langabeziak familiburu gizonezkoak kolpatu bait ditu gogorren eta, nonbait, sail honek sentitu bait ditu larrien ondorio sozio-psikologiko negatiboak, emakumeak eta gazteak garrantzizkoago bihurtu dira klase-posizioak definitzen gizarte-mugimenduetan eta auzoetan berez sortutako protestetan.

Langile-klasearen desartikulazioa eta gizarte-polarizazioa sakontzearen bi garapenek esan nahi dute kontrol politiko tradizionalak, alderdien makina elektoralen eta sindikatu burokratizatuen bidezkoak, ez direla jadanik eraginkor. Oldeen berezko protestak, denden zakuraketak, kale-mobilizazioak, baimenik gabeko grebak, azaltzen ari dira hauteskunde-erregimenen klase-izaera argi agertzen den heinean. Klase-egitura polarizatuak bere adierazpidea aurkituko ote duen elkarren kontrako mugimendi politikoetan, hori gertagarrien eta parte hartze politikoaren kontua da. Argi dagoena, ordea, zera da, hauteskunde-erregimenek eta hauek osatzen dituzten alderdi nagusiek ez dutela ezarri hegemoniarik gizartean. “Kanpora begirako klaseen” aldebakarreko ordezkariak eta menpeko kla-

seen “beherakako bultzadak” ez du horretarako biderik uzten. Narriatzen ari den klase politiko hegemonikoaren eta haustura politiko garbiaren arteko distantzia, ordea, handia da oraindik eta hainbat bidezidorri lotua. Alderdi tradizionaletatik kontrako jarrerara pasatzeak, hautagaiei protesta egitera, erantzunezko eta bortxazko protesta, eta hedatuta dagoen etsipen eta traizio-sentipenak, jendea aldabera erakusten dute, alternatiba politiko berrien bila ari dena, status quo-aren pragmatikoeak eta errealistek erakarrirako hondamendiari aurre egingo dioten alternatiben bila alegia.

KONKLUSIOA

Latinamerikako kapitalismoaren krisia askoz larriagoa eta hedatuagoa da Eki Europako edozein egoera konparagarri baino, baina agintean dauden eliteek ez dute aldegiten, manifestazio jendetsuak ez dira bakean bukatzen, oposizioko intelektualek botere-karguak hartu eta ez dute garbitzen estatua polizia sekretuaren buruzagi autoritarioz, botere hegemoniko nagusiak ez du xumeki onartzen aldaketarik gizarte-sisteman, ez ditu barkatzen zorrak. Elite politikoak militarretik zibilera pasatzen dira; ekonomia zabuka dabil, doikuntza mingarri batetik bestera; eta herrialde batek, Nikaraguak, USAko bezero bat kanporatzen duenean, Washingtonek interbentzio-gerra luzea finantzatzen du, baita hauteskunde bidezko bezero bat berrezarri ere. Polonian apaiz bat hil dutela eta hori sistema politiko osoa salatzeke adinakoa da; hirurogeitamar nekazari kristau eta dozena bat lekaima eta apaiz hiltzen dituzte Salvadorean, eta Mundu Librearen defendatzaile nagusiak “komunismoaren krisi moralaz” hitzegingo du, eta “merkatu libreko gizartearen nagusitasun moral eta materialaz”.

Eki Europako eta Latinamerikako krisien emaitza desberdinak ez dira ekonomi sistema agortzearen edo sistema bat bestea baino hobea izatearen ondorio; aldiz, zerikusi handiagoa dute Estatu Batuek erregimen politikoak berreraikitzeke duten borondate eta ahalmenarekin, oraindik iraun dirauten

estatu autoritarioekiko eta ekonomi eliteekiko lotura estrategikoei eutsi bitartean. Soviet Batasunak bezero zituen erregimenei laguntza emateari utzi zion bezala, Washingtonek bizkor iharduten du erregioko aliatuak babesteko eta eusteko: laguntza militarri esker, nazionalista disidenteak erreprimitzen dira; zibilen eta militarren hitzarmenek fatxada elektorala ematen du kontinente osoan zehar lapurreta betierekotu ahal izateko. Aldi berean, Latinamerikako egitura bortxazkoek boterean irauteko gaitasuna erakutsi dute trantsizio-aldietan zehar, hartara gizarte-sistemaren iraupena bermatuz, gizarte-mugimendu demokratikoen eta oldeen astinduen kontra.

Nazioarteko botere hegemoniko honetxek, estatu-instituzio autoritarioek eta ekonomi boterea kanpora begira dauden eliteetan kontzentratzen jarraitzen dutelarik, adarjotzea eta trufa dira “eredu suediarretik” ikasteko eta antzeko gomen-dioak.¹³ Jeneralek eta bankariek ez dute negoziatuko eskala handiko eta epe luzerako aberastasun-aldaketa, atzerriko kontuetatik gizarte-ongizaterako programetara aldatzea alegia, ez orain eta ez etorkizun hurbilean. Eliteak hauteskundeetatiko politikoekin egindako negoziazioek askatasuna eman zioten klase politikoiari zegoen eredia kudeatzeko eskua izateko, jendea bakeratuz, atzerriko maileguak segurtatuz eta interesen ordaintzei eutsiz. Hauteskunde bidezko eliteek ondo frogatu dute alderdi autoritarioek baino hobeto kudea dezaketela dagoen sistema: hobeto birnegozia dezaketela zorra —eta ordaintzen jarraitu; herri-hauteskundeak antola ditzaketela, inbertsoreen eliteen konfidantza kaltetu gabe.

Hasieran arrakasta izan zuten, baina histori une labur batez bakarrik. 80ko hamarkadaren azkeneko, hauteskundeeko erregimenak sakon lokaztuta zeuden estankamendu kronikoan eta hauteslegoa bizkor ari zen konfidantza galtzen aukera politikoa batetik bestera; nortasun antipolitiko batetik bestera. Sistemaren atsedeen nagusia krisiaren larria bera zen: egunegun bizi izateko borroka lurjota uzten zuen herria eta hurbilekoei begira jartzera behartzen zuen, talde eta sare primario eta gertukoei. Zein “aukera” elektoral berri agertuko da txarada politikoa betierekotzeko? Bati “kapitalismo neoliberalaren azkenaz” hitzegiteko gogoia sortzen zaio, Mendebaldeko

jakintsuek merkatuaren nagusitasuna Ekialdeko “sozialismoaren azkenarekin” lotzen duten honetan, baina hori errazegia da, eta funtsean okerra. Latinamerikako kapitalismoaren porrot ekonomiko, politiko eta morala gainditzeko bidea luzea eta gogorra da. Heriotz eskuadroien antolatzaileak oraindik indar armatuen buru daude, eta hauteskundeetan agertutako politiko berriek ederki hezi dituzte. Ekonomiak estu lotuta daude nazioarteko finantz sareei: mutur bateko hausturek erreazioak dakartzate beste muturrean. Industrialek Latinamerikan dituzte fabrikak, baina kapitala atzerrian inbertitzen dute. Aldaketa etor dadinean, ez da erraza izango eta ez dira minik gabeak izango lehen neurriak, ekonomia herriaren gizarte-premiei begira berregituratzeko: baliabideen aldaketak eskerga izan beharko du, %20tik beste guztiengana, eta horri, noski, ahal guztiz egingo diote kontra. Aukera ekonomiko eta politikoak xahutu dituzten eliteek ez dute jokia besterik gabe galdutzat emango, ez dira filosofiko bihurtuko. Irrazionalitatea goraka ari da dagoeneko: argi eta garbi erakusten du zer ematerik ez daukan herri guztiaren kontra austeritate-neurri gehiago hartzeko asmo tematsu eta inozoak; interesen ordainketak jarrai dezaten egiten diren presio monomaniakoek, nahiz haur-hilkortasunaren portzentaiak goia jo eta gosea noranahi zabaldu.

Sozialismoak etorkizunik badu (direnak direla une jakin bateko antolamendu-ahalmenak edo ezinak, intelektualen belaunaldi baten edo bestearen porrota edo erretira), merkatu-eromenaren lotura irrazionalari, miseria orokorrari bortxa mugagabez eusten saiatzen bait da, aurre egiteko bide posible bakarra delako du, izan.

Euskaratzailea:
IÑAKI IÑURRIETA

1. STOTT, Michael: "Invalid Ballots Take Lead in Brazil Election", *Philadelphia Inquirer*, October 8, 1990, 8A or.
2. ROSENTHAL, Gert: "Balance Preliminar de la Economía Latinoamericana en 1989", *Comercio Exterior*, 40 bol. 2. zk., 1990.eko otsaila, 124 or; "How Latin America's Economies Look After a Decade's Decline", *New York Times*, 1990eko otsailak 11, E3 or.
3. Nazio Batuetako Latinamerika eta Kariberako Ekonomi Batzordetik hartutako zifrak, "Where Are the Real Good Performers?", *Latin American Weekly Report*, 1991ko otsailak 7, 8-9 or.
4. ROSENTHAL, Gert: "Balance Preliminar de la Economía Latinoamericana en 1989", 124 or.
5. Ikus SILVERSTEIN, Ken: "Collor's 'New Brazil': Shock Treatment for the Poor", *The Nation*, 1990.eko azaroak 12, 555 or.
6. Ikus *Latin American Monitor: Southern Cone*, 1990.eko urria, 822 or. *The Nation*, 1990.eko azaroak 12, 555 or; "Rich Getting Richer, the Poor Poorer", *Latin American Regional Reports: Brazil*, 1991.eko urtarrilak 10, 4-5 or.
7. Ikus *Latin American Regional Reports: Andean Group*, 1990.eko urriak 11, 2. or.
8. Ikus *New York Times*, 1990eko abuztuak 11, 5. or.
9. Ikus GRUSON, Lindsey: "Salvador's Poverty is Called Worst of Century", *New York Times*, 1988ko urriak 16, 14. or.
10. ROSENTHAL, Gert: "Latin American and Caribbean Developments in the 1980s and the Outlook for the Future", *CEPAL Review*, 39. zk., 1989ko abendua, 1. or.; *El Mercurio*, 1989ko uztaialak 14, B1 or; *Latin American Weekly Report*, 1990eko abuztuak 9, 10. or.
11. Ikus "Stagnation Plummeting Regional Economies", *Times of the Americas*, 1990eko urtarrilak 10, 1. or.
12. ROSENTHAL, Gert: "Latin America and Caribbean Development in the 1980s and the Outlook for the Future", 10. or.
13. Ikus, adibidez, WEFERT, Francisco: "Sweden and Latin America", *CEPAL Review*, 39. zk., 1989ko abendua, 31-36 or.

IRAULTZA LIBERALA VS. MATXINADA ANTI-KAPITALISTA

MIQUEL IZARD

Mendeabalea, 1492tik aurrera etengabe Amerika eraso zuena, behin eta berriz saiatu zen —Grezia klasikoaz geroztik egin zuten bezala— lankortasunean eta kontsumoan oinarrituriko gizarte eszedentario bat ezartzen: jendeak bere borondateak agindu baino lan gehiago egingo zuen beste norbaiten onurarako eta honek, koertzitiboki, haiek behar ez zituzten gauzak lortzera behartuko zituen. Hau egin ahal izan zen, lehenik, konkistatutako herriak (estatu amerikar gutxi batzuk, nazio aborigen gehienek aurre egin bait zuten) gauza izan ez zirelako garaiz erreakzionatzeko gainera etorri zitzaizenaren tamaina danteskoaren aurrean, eta inbasoreek egoera bera mantentzeko bortxaketa fisikoan eta ideologikoan, arrazakeria aberegarrian, iraganaren mistifikazioan, beste kulturekiko arbuioan eta, azken finean, beste gizarte

desberdinen funtzionamendua ulertzeko gaitasun-ezean oinarritutako sistema konpulsibo konplexu bat eratu zutelako; eta, bigarrenik, herri haietan zilar-meatoki ikaragarriak aurkitu zituztelako, *per se* balioa ematen zitzaion ondare eszedentariagarria. Beranduago nabaria izan zen eskaera koloniala (esklabu afrikarrak, europar manufakturatuaak edota merkataritza atlantikorako untxiak).

Kaltetuen erresistentziak eta beste hainbat gorabeherak eragin zuten sistema bere koertzio-mekanismoak egokituz joan zedin. Horrenbestez, berehala konturatu ziren, esaterako, emaitza hobekak lortzen zituztela soldata bat irabazten zuten esplotatuekin zigorpean zeudenekin baino. Baina, beharbada, aurkikuntzarik handiena, XVIII. mendearen hasieran, zera izan zen: konturatzea, alegia, giza talde oso bat hezi ahal izateko, lehenik eta behin, bere kultura, bere aisialdi eta bere ohituretatik desustraitu beharra zegoela.

Honenbestez, gizarte eszedentarioa, burgesa, liberala edo kapitalista (hitz baliokideak bait dira) behin-betirako antolatu ahal izateko, behar-beharrezkoa zen aurreko gizartearen funtzionamenduari eragituraren haustea, gizarte haiek oinarri haueztaz baliatzen bait ziren beren izaera osatzen zituzten elementuak lortzeko eta taldeak, existitzeko nahiz defendatzeko, aukuraturik zituen helburuak asetu ahal izateko.

Materialki, erreforma guztiak ardatz baten inguruan higitzen ziren: hornikuntzatik produkziara iragan; egitura autosufizienteari azken aztarnekin eta lurren, bazken eta basoen (oinarrizko elementuak bizitzeko premiak asetzeko, prekarioki bazen ere, beste inoren menpe egon gabe) gozamen komunalarekin bukatu. Aldaketaren ondorioz, kaltetuek alokatu bihurtu beharko zuten, oso zaugarriak beraz, eta lan-kontraturen bat lortu jan ahal izateko.

Oro har, kultura berri bat ezartzea zen gauza: protestariei ezarritako zigorrak justifikatuko zuen erlijio errepresibo bat, hazkunde materiala, arrakasta eta garaipen indibiduala, diru-aurrerapenaren eta lankortasunaren onurak goretziko zituen moral bat, aurrerakuntz ideia baliakor bakarra, kontsumo-merkantzia alienagarri bihurturiko aisialdia, ikaskuntzaren ordezkola.

Enbat berriarekiko oposaketa eragilea izan zen XVIII. mendean erdialdetik aurrera eta une larriak izan zituen, Tupac Amaru-koak bezalakoxeak, eta Amerika, gizarte eszedentarioaren inplantazioan aitzindari zena, aldi berean, geroagoko kalte-tuetuen gaitzespenik itsuena jasan zuen kontinentea izan zen. Gaurdaino iraun duen gaitzespen honek eraginik, geroagoko onuradun eta apostoluek, ikaragarritzko zerrikeriak egiteaz gain (horra hor inbentario txiki bat jarraian), bortxakeria handiago batera eta erresistentziaren maskaramendu esperpentiko batera jo dute.

IRAGANA FALTSUTU

Gaitzespenaren unerik gorenetakoa bat (eta ugariak izan ziren) XIX. mendean lehen laurdenean eman zen, eta kronologikoki, José I.aren monarkia bonapartistaren aurkako oligarkia krioiloaren sezesionismoarekin batera gertatu zen. Programa liberal edo burgesaren aurka klase subalternoek erakutsitako erabakiaren eta irmotasunaren aurrean, desitxuratzeko-etsitu batez, esplotatuen eta esplotatzaileen arteko borrokari beste borroka desberdin baten itxura eman nahi izan zitzaion: espainolen eta amerikarren arteko borroka *nazional*-aren itxura alegia, Penintsulan egin zen bezalaxe.

Historia ofizialaren (HOren) diskurtsua azal-azalekoa, manikeoa eta erabat sinplista da. Porrot egin zuten hainbat saio n ondoren (koloniaren lehen hamarkadetan ere aurki bait daitezke), *herriak* independentzia eta *askatasuna* aldarrikatu zituen (Mexicoren kasua groteskoa dugu), Metropoliarekiko lotura jasanezina zelako eta garapen materiala behaztopatu egiten zuelako. Erabakiak elkarren kontra jarriko zituzkeen HOren arabera espainiarrak edo errealistak direnak eta epe oso bat zeharkatzen dituzten gatazka luze samarretan degeneratu.

Gertatutakoaren konplexutasunaren eta aho-narratibarekin lotutako *analfabeto*-en kopuru handiaren eraginez, HO independentistaren diskurtsua eskematizatu egin zen eta era asko-

tako eginkizunak beteko zituen pertsonaia bakar baten (edo gutxi batzuen) baitan laburbildu zen. Horrela bilakatu zen subdito berriengan barneratu nahi zen moral burgesaren *eredua*. Bolivar-en kasua paradigmatikoa dugu.

Horen diskurtsuak, berriro ere diot, eszedentarizazio-saioaren aurka aborigenek, esklabuek, mestizoez, hiriburutan galdutako nekazari sustraigabetuek nahiz zimarroiek buruturiko herri-matxinada maskaratzeaz gain, jendearengan barneratu nahi ziren birtuteak sakralizatu eta gertaeren interpretazio bat zabaldu ere egin behar zuen, gertaera haiek liberalek defendatzen omen zituzten ezaugarri soziopolitikoaren ezarpenaren sorburu izan zirela sinesteraziz. Hiru elementuen nahasketak, sarritan, eskema arras kontraesankorra erakusten du.

ETNIKOKI BAZTERTU

Eskema manikeoaren arabera, gatazkaren ondorioz espainolak galtzaile eta amerikarrak irabazle atera baziren ere, azken finean, hauetariko gehiengo nagusia izan zen benetan garaitua izan zena, eta hain zuzen ere, hala dirau harrez gero. Izan ere, independentziak ez zuen garapen materialik ekarri, guztiz kontrakoa baizik, eta adierazpide berri bat bilatu behar izan zitzaion gero eta nabarmenagoa zen *atzerapenari*. Gezur bat eratu zen aurrekoa (Metro politiarreko loturari egozten zion errua) bezain faltsua eta saskarra, errepublika berrietako subditu gehienei beren alferkeria aupegiratuz. Gauza, noski, askoz korapilatsuagoa da, baina independentzi gerratzat dauzkagun horiek eszedentarizazioaren aldekoen ustea suntsitu egin zutela esango nuke, euron altxorraren erresistentzia garaitezina zela pentsatzen bait zuten. Liberalek, etnien eta klase subalternoen gaitzespena ikusirik, moral berria ezartzeko presioa alde batera utzi behar izan zuten, haien benetako nahia kultura autosufiziente (gauzak lortu alde aurretik erabakitako beharrak asetzeko adina) bati atxekirik jarraitzea bait zen, eszedente komertzialgarrien produkzioari uko eginez. Baina ez *ahulak* edo *alferrak* zirelako, gogokoago zituzten gauzei loturik jarraitu nahi zutelako baizik. Lan-eskaintzaren aurrean ame-

rikarrek zuten intere s-ezaz jabetuz gero, errazago uler daiteke zergatik ugaltu zen europar langile-eskaera edota jo zen esklabutasun-era paraleloen bila (txinar *culi*-ak edo *yucateco*-ak).

Europarrak —erdialdekoak baziren hainbat hobeto— inportatzeko nahiak, arrazakeria irrazional bat ezkututzen zuen gero eta baztertuago zeuden aborigenen edo afrikarren aurrean eta liluramendu justifikagaitza europar *aurrerapena*-ren aitzinean.

GEHIENGOA ERREPRIMITU

Berriro ere diot, H0ren eskema manikeoaren arabera, gatazkak metropolitarraren hondamendia eta amerikarren garaipena suposatu zuen, hauetako gehienek, benetan garaituak izan zirenek, esklabuak peoi (alegia, zorrez jositako peoi eta inolako askatasunik gabe kapatazen eta jauntxoek menpeko) bihurtu nahi zituen pretentsio liberalari aurre egiten jarraitu zuten arren. Horregatik eman zitzaion, hain zuzen ere, guduaren ondorioz heldutasun bat lortu zuen armadari, askatzailetzat zeukaten armadari, protestari, errefraktario nahiz matxinatu guztiak jarraitu, estutu eta atxilotzeko agindua. Hala ere, Perun nahiago izan zuten gerra zibil bat (1853) sortu Espainiakoaren eredia eta espainiarren aholkua jarraituz, nahiz eta berriro ere agerian utzi Madrilera erregearkiko erakutsitako kontrastasuna itxura gordetzea baino ez zela.

Armada, oligarkiaren agindupean, muga artifizialez haraindikoa anai-arrebak menperatzeko ere erabilia izan zen. Honen lekuko dugu aliantza hirukoitzaren (Argentina, Brasil eta Uruguayren) eta Paraguayren arteko gerra. Guduaren iraupenaren zatirik handiena Paraguayen eman zen eta inbasoreek nekazarien oposizio gogorrari aurre egin behar izan zioten. 1865-1870 bitartean zentzugabeko desgaste-gerra bat garatu zen. Gerra honen ondorioz, guarani herria, are fisikoki ere, ia-ia desagertu egin zen. Hain zuzen ere, 800.000 bizilagun zituen herria laurdenera etorri zen. Horietatik 28.746 baino ez ziren pertsona helduak.

Baina gutxi gorabehera 1880tik aurrera, hazkunde materialak onura fiskalak eragiten zituen heinean eta metropoli berriek (Britainia Haundiak bereziki) beren inbertsioetarako garantiak eskatzen zituzten neurrian, posible izan zen indar iraunkorrek, profesionalak eta ongi hornituak eratzea. Interakzioa maiztasun handiz eman zen eta gertaera puntualetarako sortutako armada berriak ez ziren eraitsi eta ordenu liberalaren bermatzaile gisa iraun zuten behin-betirako. Argentinan, Pampa konkistatu eta aborigen eta gautxoekin bukatzeko sortutako armada izango zen 1921ean Patagoniako grebakiak sarraskitu zituen eta herri osoa 1976-1983 bitartean; Txilen, araukano eta maputxetarrekin bukatu eta Pazifikoko gerran (1879-1883) Bolivia eta Peru inbaditzeko sortua izan zen 1883an Norte Grandeko —alegia, Peru eta Boliviari kendutako lurralde bereko— meatzarien eskaerak odolez eta suz zapaltzeko erabilia izan zena, Santa María de Iquiqueko sarraski danteskoa burutu eta urte batzuk beranduago Pinocheten diktadura esperpentikoaren zaindari gisa jarraitu zuena.

INGURUGIROA SUNTSITU

Gizarte autosufizientea (1492aren aurreko nazio amerikar gehienena eta hari atxekirik jarraitu nahi zutenena) eta gizarte eszedentarioa (erasotzaileek, konkistatzaileek, liberalek eta postmodernoez proposatutakoa) maila guztietan, are naturarekiko duten jarre retan ere, hagitz kontrakoak dira. Gizarte autosufizienteetako kideak ingurunearen zati sentitzen dira eta animalia nahiz landare-munduari izugarritzko begirunea diete. Hau dela eta, mendebaldeak, beste kulturak ulertzeko gaitasunik ez duenak, panteistatzaletzat jotzen ditu. Mendebaldetarrak, ordea, gai dira beren buruak kategoriaen erregetzat hartzeko, ez bait dute euren den lurraldea ere errespetatzen, eta garpenera erredutzat daukate basorik gehien suntsitu duen estatua. Maila askotan gizarte eszedentarioa ez da batere justua. Bere jendea fisikoki bortxatua, mentalki alienatua edo zabortegi burrunbatsu bilakatu diren hiri handietan bizi izatera zigortua izaten da. Baina eszedentariismoa suizida da. Gaurko

abiada berean Amazoniako basoak, Andeak, Sierra Madre Mendikatea edota Istmoa suntsitzen jarraitzen badugu, gringoek duela ehun urte egin zuten bezala, hondatu egingo ditugu Lurrari gelditzen zaizkion birika apurrak, eta gure ondorengoei —hazkundearen zentzugabeko sakralizazioagatik gero eta gehiago direnei—, landarerik, urik eta bizirik gabeko basamortua utziko diegu.

SISTEMATIKOKI GEZURRA ESAN

Amerikan, eta 1492tik aurrera, inbaditzaileek, egin zituzten gauzen kontrakoak egin zituztela esan ohi dute. Konkistatzaileek, hiltzaileek, lau haizetara zabaldu zuten *basatiak zibilizatzer*a zihoaztela; misiolariak, berriz, salbaterara. Baina XVIII. mendearen bukaeraz gero ilustratuek, beranduxeago liberal gisa agertu zirenek, gezur galantak esan zituzten. Izan ere, euren egitamu osoa gezur mordo bat baino ez zen. Hala ere, ez ziren gezurti bakarrak izan. 1789an Parisen hasitako prozesuaren garaileek ere, ez zuten aldarrikatzen zituzten askatasuna, berdintasuna eta anaitasuna ezartzerik nahi, doi-doi kontrakoa baizik.

Askatzaile liberalek, espainolei aurre egin ordez, amerikar gehiengoari egin zioten; arrazoian itsu-itsuan sinisten zutelaren zioten, baina arrazoirik gabe arbuiatu zuten nekazal mundua (nekazariak haien egitamua irentsi ez zutelako); askatasunzale sutsutzat zeukaten beren burua, baina hainbat hamarkadatan zehar esklabutza ezikusi egin zuten eta maizegi jo zuten despota edota exekutibo guztiahaldunengana; nazioarteko proiektu baten partaide sentitzen ziren, baina behin eta berriz erori ziren nazionalismoan; beren abertzaletasuna aldarrikatzen zuten, baina Europako edo Ipar Amerikako herrialde kapitalista handien miresle ziren eta haien abokatuak atzerrian; eztabaida ideologiko baten protagonistatzat zeukaten euren burua, baina kanpoko ideologiaren aurrean makurtu baino ez zuten egin; gizarte laiko bat defendatzen zuten, baina beren kultu propioak antolatu zituzten, lehentasuna askatzaileei emanaz; ahoa betetzen zitzaizkien berdintasunaz hitz egiten eta

koloniala baino askoz injustuagoa zen sistema bat eraiki zuten; euren demokratikotasunaz harro sentitzen ziren baina pentsatu, erabaki eta gauza politikoetan parte-hartzea gutxiengo bati zegokiola erabaki zuten andrazkoak, esplotatuak, pobretuak eta analfabetoak baztertzean.

Eta astakeri itxura izan dezakeen arren, liberalen eta kontserbadoreen arteko desberdintasunak ez ziren batere nabariak. Eszedentarizazio-proiektu bakar baten bi aldaki baino ez ziren.

ERREALITATEA XIXKATU

Independentzi gerrak eta gizarte autosufizientetik eszedentariako azken urratsa, ia-ia batera gertatu ziren, eta haiek, urrats haren aspektu edo une gorena baino ez ziren izan. Elkarren arteko trukeen mailan ez zen askok agindu edo itxaron zuen bezalako hedakuntzarik izan, etsipena baizik. Eta independentzi gerra eta atzerakada materialaren berretzearen hasiera kronologikoki ia batera eman zirela askoz beranduago konturatzeak, sezesionismora bultzatu zuten arrazoen eta hura aurrera eraman zuten talde sozialen analisi berri bat eragin ordez, eta hau argi eta garbi dagoela dirudi, fatalitateaz edo traizioaz hitz egitera eraman du.

Laster asko, *independentzia* ostean, etsipena heldu zen; aginte koloniala jauntxoan mesedetan deusezteak eta mundu-merkatu irekitzeak ez zuten hazkunde ekonomiko eta aurrerakuntza materialik ekarri, guztiz bestelakoa baizik. Eta gainera, azken guduaren ondoren, elkarren arteko truke arras desorekatuei, amortizagarria zirudien kanpo-zorra gehitu zitzaizkien. Bestalde, agintari berriek ezin izan zuten irudikatu, gerren ostean errepublika berriek aldi kolonialekoa baino askoz ere dependentzia handiagoz abiatu beharko zutenik. Funtsezko erabakiak, hots, lur berrien inkorporazioa, lehengai berrien esplotazioa, merkatu berrien irekitzea, Londresen, New Yorken edo Parisen hartuak izango ziren, alde batera utziz, noski, latinamerikarren eta euren gobernariaren nahiak.

Milioika europarrek emigratu behar izan zuten Kontinente Berrira beren estatuetakoa aldakuntzek baztertu zituztenean, Buenos Aireseko liberal poblazionisten sirena-kantuak entzun gabe. Londreseko bankeroek euren kapitalez hornitu zituzten latinamerikar ekonomiak, baina ez haien agintarien eskaerei erantzuteko, euren premiak asetzeko baizik. Kontinente Zahar reko finantza-gizonak Atlantikoaz haraindi tren-sarean hedakuntzari lotu zitzaizkion, baina helburua ez zen herrialde haien garapena lortzea, Europako tren-sarearen berrikuntzan erabilgarria ez zen txatarra zaharkituari irteera bat ematea baizik.

NAZIONALITATEAK TAXUTU

Independentzi gerrak behartu egin zituen oligarkiak beren agintepean egongo zen lurraldea eta honek izango zuen estatu-nazio-merkatu bilakaera zehaztera. Miranda-k, Bolívar-ek nahiz San Martín-ek, iparramerikarren eredu jarraituz, Gaztelako India guztiak besarkatuko zituen barrutia zeukaten gogoan; Mirandak Kolonbia izena —Colónen ohorez, jakina— aukeratu zuen eta Bolívar-ek Panamako kongresu anifiktionikoa biltzea lortu zuen (1826) saialdi bat egiteko. Oztopo naturalen, beste oligarkia batzuen gaitzespenaren eta Londresen nahiz Washingtonen etsaigoaren aurrean, oligarkiak zirkunskripzio birreinal zaharretara mugatu ziren, baina oposizio gogorrei aurre egin behar izan zieten (Buenos Airesekoa, adibidez, Platako birreinatua heredatzeko), eta azkenik estatu batzuk —zehazgaitzak kopuruz— antolatu ziren. Hauek, gutxi gorabehera, bat zetozen Inperioaren behe-banaketekin, hots, independentzia, kapitania nahiz entzutegiekin.

1830etik aurrera, mapa politikoa nahikoa finkatua zegoelarik, hiri-oligarkiek estatu hauek indartu nahirik saio zailari ekin zioten. Mugak, garai kolonialean bezalaxe, geografia edo komunitate aborigenak kontutan izan gabe ezarri ziren, eta honenbestez, Chaco edo Llano bezalako lurralde naturalak bierrepublikatan banaturik geratu ziren; gauza bera gertatu zen, edo are okerragoa, hiru herrialdetan sakabanatuak izan zirena aymarar nazio aborigenekin (Argentina, Bolivia eta Perun

barrena barreiatuak) edota maiarrekin (El Salvador, Guatemala eta Mexikon barrena). Beste kultura kolonial, afroamerikar nahiz zimarroi batzuk ere sakabanatuak izan ziren.

KANPO-ETSAI BAT ASMATU

Liberalismoak, bere burua lotsagabeki nazioarteko mugimendu gisa aurkezten duenak, era kontraesankor batez abusatatu egiten du nazionalismoaz, lurralde berean jaiotako jende guztia berdina dela ustean. Arazo hau Latinamerikan esperpentikoagoa gertatzen da maila sozialen arteko desberdintasunez gain, dauden kasta-desberdintasunak ikusirik. Gainera, estatu bateko egoera lehergarria denean beti asmatzen da kanpo-etsai bat erru guztiak hari leporatu ahal izateko; faltsukeria, beraz, *a posteriori* burutzen da maiz, eta berriro ere, HOrri ziria sar dezan eskatzen zaio.

Zorigaitzez halako kasuak ugariak dira. William Walker filibusterak, hegoaldeko esklabistei lotua eta kanal interozeaniko baten irrikaz zeuden untzigile gringoen diru-laguntzaz, Nikaragua inbaditu, bere burua lehendakari izendatu, hizkuntza ofizialtzat ingelesa ezarri eta esklabutza berrezarri zuen. Baina Walker-ek ez zituen gauzak bere kabuz egin. Liberal nikaraguarrek deitu zioten kontserbadoreekin izaten zituzten liskarretako batean. Geroxeago, liberal beroriek izango ziren, izan ere, Somozaren oinarri garrantzitsuenetariko bat.

Dominikar Errepublikan, oligarkiak, beltzaranen herri-matxinada meneratu eta hondamendi ekonomikoa gainditu ezinik, metropoli ohian birsartzea pentsatu zuen, Kuban ustez zuen *arrakasta* ikusirik. Espainiak 1861ean soldaduak, fraileak eta funtzionariak bidali zituen eta lortu zuen gauza bakarra, matxinada, 1863tik aurrera, antiespainoltzat jotzea izan zen. Porrot larri eta Washingtonen esku hartzeari zioten beldur-raren eraginez, atzera egin behar izan zuten, lau urte lehenagoko diskurtsu triumfalistarekin groteskoki kontrastatzen zuen zuhurdura paregabea erakutsiz.

Atzerri-legioak, odolez eta suz Magreb-a konkistatu zuen berak, terro rea inposatu zuen Mexikon. Baina hau gertatu zen oligarkiak beste irtenbiderik aurkitu ez zuelako, Napoleon III.ari laguntza eskatzea baizik, era horretan konponduko zelakoan Benito Juarezek sortu zuen nahaste-borrastea erreforma liberalak sakonki eta gehiengoaren aurka ezartzean. Frantsek kanpora bota eta handik gutxira (1867) Porfirio Díazek eta geroago PRIk eszedentarizazioa ezarri zuten.

LEXIKOA BORTXATU

Leku guztietan bezalaxe —esana eta berresana dut— programa liberala gehiengoaren aurka burutzeraz zihuan. Nekazarien gaitzespena hain euskorra, kementsua eta egituratua izan zen, liberalismoak kamuflatu egin behar izan bait zuen hura bere arerioei irainik handienak egotziz. Euren burua *aurrera-penaren* o rdezkarizat zeukatenez (behin eta berriz errepikatuz beste guztiek ere sinestea lortu zuten), haien aurka zeuden guztiak, nahitaez, erreakzionarioak, ponteigelak edo ultramontanoak ziren; era berean, jakina, karkatzat eta edozein aldaketaren etsaitzat jo zituzten. Baina zailtasunak ikusirik, Benito Juárez-ek gaudituz behar izan zituenak esaterako, klase subordinatuak kirtinak eta astopotroak zirela esan zen, kleroaren menpetik askatzeko gauza ez zirelako edota ulertzen ez zutelako liberalek proposatzen zituzten modernizazio-planak beren onurarako eginak izateaz gain, zorientasuna ere ekarriko liekela.

Azken finean, liberalismo frantsesaren edo bere etsai guztiak karlistatuz jo zituen liberalismo espainiarraren diskurtsu bera da. Baina Latinamerikan liberalismoak gaitzespen gehiagori egin behar izan zion aurre, hala nola herri zimarroiari; eta Pampa nahiz Llanoko jineteenari; hauek menderatzea zaila gertatzen zitzaenez, zaldiei esker ez bait ziren hain zaurgarriak, liberalismoak bandolero edo kuatrerotzat jo zituen; edo esklabuen ondorengoenari, beren arbasoen oposaketa ikasia zutenak eta azalaren koloreagatik gutxiesten zuen arrazakeriaren biktimak; edo inolaz ere utzi nahi ez zuten bizimoduari

loturik zirauten nazio autosufizienteen (Amazonia, Kosta Atlantikoa edo hegoaren hegoa) gaitzespenari, sistemak *barbamedo basati*-tzat jo zituen eta azkenean, gringoen eredia —mendebaldarreka ldi kolonialean burutua jadanik— jarraituz, azken alternatiba erabaki zuen: sakailatzea.

KULTURA ITXURAGABETU

Gero eta ugariagoak dira sustantiboaren erabilpenaren hedakuntza defendatzen dutenak; UNESCOren aurreko zuzendariak, M'Bow-k honela definitu zuen: “Suma de las actividades creadoras de un pueblo, sus métodos de producción y de apropiación de bienes materiales, sus creencias, sus padecimientos, su trabajo y ocio, sus sueños y sus éxitos.”

Garai kolonialean sistemak behin eta berriz esan zuen *basatiak* edo *beltzak* ez zirela arrazionalak, ezin genitzakeela gizakitzat hartu. Orain sistema ez da hain ausarta, baina bazterketa-era berdintsuak erabiltzen ditu: aborigen autosufizienteeak, zimarroiek, afroamerikarrek edo klase subalternoek ez dute kulturarik, edo duten kultura apurra, behemilako kultura da; irakurketari edo musika *klasikoari* atxekiturik dagoen aisialdia bakarrik hartzen du *kultutzat* eta nabarmenkeria ezin handiagoz mintzatzen da *arte ederrez*.

Baina auziak lexikoa bera ere gainditu egiten du. Bazterketa jasan dutenen kultura, gauza askotan, sistemarena baino itxaropentsuagoa da: morala solidaritatean eta elkarrekikotasunean oinarritzen da, ez burukoikerian. Ingurunea, berriro ere diot, euren burua integratu behar duten barrutizat daukate eta ez suntsitu behar duten etsaitzat. Aisialdia da beren bizitzen ardatza, zentzuen bitartez lortzen diren plazerrak asetu nahi dituzte eta ez dute zoriontasuna arrakasta indibidualean, beharrezkoak ez diren ondare materialen metaketan edo agintearen erotikan bilatzen. Ez dira bortxakerian edo alienazioan oinarritzen, kideen arteko kontsentsuan baizik, harmoniari hurbilduz, *Otsoekin dantzan* filmearen protagonistak uste duen bezalaxe.

Hain zuzen ere, azkenekoz errepikatuko dut, proposamen liberalak menderatu eta suntsitu nahi eta behar dituen kulturkin zerikusirik ez duenez, zerrikeria-morbo hau burutzeko beharrea ikusten du bere burua.

Euskaratzailea:
JON BERGARETXE

EBANGELIOA ETA LATINAMERIKA: 500 URTE

LEONARDO BOFF

Historialari askoren ustetan, modernitatea, mundu moderno, ez zen Galileo Galilei-rekin, Lutero-rekin edota Errenazimendu italiarrarekin hasi. Haien ustez, 1492. urtea eta atarik zehatzena kultura modernoaren agerpena definitzeko. Bi arrazoiengatik: urte horretan Errege-Erregina Katolikoek, musulmanak penintsulatik urrunduz, azkenik, Granada konkistatzen dutelako eta europar esparru kristaua homogenotu egiten delako. 1492. urte horretan bertan iristen zen Cristóbal Colón “Santa Maria”n Latinamerikara. Gertakari honek horizonte berria ireki zion Europari eta aldaketa ekonomiko, politiko, kultural eta teologiko sakonak eragin zituen.

Mediterraneo hutsetik Atlantikora iragan zen gaurdaino —eta oraindik orain ere— irekiak dauden perspektibak sortuz. Hamabost urtetan zehar, europar kontinentean barrena normalean mugitzen zen urrea baino hamar aldiz gehiago mugitu zen. Merkatuaren hedapen merkantilista handia gertatu zen eta baita haren animazioa ere. Honek, akumulazio primitiboa eta, ondorioz, kapitalismoaren sorrera eragin zuen, urrea, Portugal eta Espainiaren bitartez, Holandara eta Ingalaterrara pasatuz. Data horrek, hortaz, berebiziko garrantzia du. Transzendentzia handiko gertakari historikoa dugu, are kristau-erreferentzia ez dutenentzat ere, kontinentearen ebangelizazioaz mintzatu nahi ez dutenentzat, alegia.

BI IKUSPEGI

Bi dira 1492. urteari dagozkion ikuspegiak. Lehena, karabeletan daudenena da, iristean “deskubritu dugu” esan eta, Adan bailiran, gauzak izendatzen dituztenena. Cristóbal Colón-ek ikusi zuen lehen lur-zatiari San Salvador deitu zion, bigarrenari, Santa María de la Concepción, hirugarrenari, Ferdinandina, laugarrenari, Isabel... Gauzei izena ematea, haien jabe izatearen seinale da, munduaren jaun eta jabe gauzak sailkatuz ibili zen Adan-en zeinua da.

Komeni da aipatzea Colón-en lehen eskutitzaren testua, itzulitakoan, Tenerifetik (Errege - Erreginari idatzi aurretik) Luis Santangel bere lagunari bidali ziona, mundu europarrera aurkikuntza handia aldarrikatuz. Zera dio: “Hemos tomado posesión por sus Altezas, con pregón y bandera real extendida, y no me fue contradicho.” Akta jasotzen du, San Salvador izena ematen dio lurrari... “Indiak” deitzen die lur haiei, Indietara iritsia zela uste bait zuen. Jainkoari eskerrak ematen dizkio lur horiek ikustera iritsi delako eta errege-erreginentzako aberastasunak aurkitu dituelako.

“Nuestro Redentor dio esta victoria a nuestros ilustrísimos rey y reina y a sus reinos famosos de tan alta cosa a donde toda la cristiandad debe tomar alegría y hacer grandes fiestas y

dar muchas gracias a la Santísima Trinidad con muchas oraciones solemnes por el tanto ensalzamiento que habrán, entonándose tantos pueblos a nuestra fe, y después por los bienes temporales que no solamente a España más a todos los cristianos tendrán aquí refrigerio y ganancia.”

Eta honela bukatzen zen gutuna: “Fue en la carabela, sobre las Indias, las Islas Canarias el quince de febrero de 1493. El almirante Cristóbal Colón.”

Iristen denaren ikuspegia da, karabeletan dagoenarena, abentura eta ausardia esanguratsuez, agian Ilargira edo espazio sideraletara joateko behar dena baino handiagoaz, ezezaguntasunera bait zihoan, itsaso zangarrei aurre egiten diena-ren ikuspegi triunfalista. Hori ikuspegi bat da.

Beste ikuspegia da hondartzetan daudenena eta karabelak heltzen ikusten dituztenena. Cristóbal Colón-ek amodioz beteriko pertsona gisa deskribatu zituenena, zuten guztia emateko prest zeudenena. Jatorrizko bekatua ezagutzen ez zutelako edo —pentsatzen dute lurreratuek— inozentzia sainduan biluzik zebiltzan haiek. Galdutako paradisuaren antzeko zerbait. Baina paradisu hori 1532an jada desmaskaratu zen Mexikoko anonimoari esker ezagutzen ditugun testuekin, Chilán Balam-en —profeta maiatarraren— testu ospetsu batekin, eta gaur egun ezagutzen ditugun testigantzekin, Espainian eta Latinamerikan argitaratuak, eta izentzat “El reverso de la conquista” izena hartzen dutenak. Bertan, inpresioa bestelakoa da:

“¡Entristezcámonos, ay, porque han llegado!”

“Nos han cristianizado, pero nos hacen pasar de un señor a otro como si fuéramos animales.”

“Sólo por causa de los tiempos locos, de los locos sacerdotes, se ha introducido entre nosotros la tristeza, se ha introducido entre nosotros el *cristianismo*. Porque muchos cristianos llegaron aquí con el verdadero Dios, pero éste fue el verdadero comienzo de nuestra miseria, el principio del tributo y el desastre, la causa de donde brotó la discordia oculta, el principio de las luchas con armas de fuego, el principio de los atropellos, el principio del despojo absoluto, el principio de la esclavitud por culpa de las deudas, el principio de las deudas que nos oprimen, el principio de las discordias continuas, el

principio del padecimiento. Fue el principio de la obra de los españoles y de los sacerdotes, el principio de utilizar los caciques, los maestros de escuela, los fiscales...”

“Ellos nos enseñaron el miedo, por ellos se marchitaron nuestras flores. Para que su flor viviese, dañaron y devoraron la nuestra...”

Beste ikuspegia, garaituen ikuspegia da, iberikoen, portugesen eta espainiarren etorreraren inpaktua jasan dutenena. Horrela aurkitzen gara, Paul Ricoeur-en hitzak erabiliz, interpretazioen gatazkaren dikotomiaren aurrean. Karabeletan dauden interpretazioa eta hondartzetan daudenena: inkatarren, maiatarren, aztekarren, tupitarren, guaranitarren, aionomnitarren eta oraindik orain bizirik dirauen beste hainbatentestigantza-kulturak, kultura historiko handiak.

Eta ez da bakarrik hasierako inpaktuak errepresentatu zuena, baizik eta kanpotik etorritako indarren presentzia honek latinamerikarrentzat gaur egun suposatzen duena, bertakoen gorputz-arimak konkistatuz, kulturak menperatuz, eta hogei-tamar mila urteko prozesu kulturalak eten eta desegituratuz.

Gauzak horrela, behekoen ikuspegitik, hondartzetako en ikuspegitik, biktimen ikuspegitik, Bostehun urteen ospakizuna era desberdinetara balora daiteke.

(...)

NOLA OSPATU BOSTGARREN MENDEURRENA

“Karabeletan daudenek” ospakizun penitentziala egin behar dute lehenik eta behin. Irakurketa triumfalista bat egin ordez, irakurketa kritiko bat egin behar dute. “Zer egin dugu gure neba-arrebekin?” galdetu beharko diete euren buruei. Ez zen zibilizazio-topaketa bat izan, manualetan agertzen den diskurtsu ofizialak hala dioen arren. Bertan irakur daiteke kultura europarrak kultura autoktonoekin topo egin zutela eta handik sortu zela mestizajea. Baina ez zen topaketa bat izan, suntsidura ekarri zuen txoke kultural bat baizik.

Ezinbestekoa da Frantzian bizi den Todoroz bulgariarraren *La conquista de América latina, el problema del otro* liburu ederra aipatzea. Oso testu interesgarria dugu, zeinuak semiotikoki aztertzen bait ditu. Historia bera baino gehiago, indigenentzat abentura iberikoaren gertakarien esanahiak zeintzuk diren aztertzen du. Eta, alderantziz, nola espainiarrek eta portugaldarrek sinbolikoki irakurri duten ikusi duten oro. Linguistika eta epistemologia modernoaren baliabideak darabiltzan irakurketa bat da, narratiba historikoa baino zerbait gehiago beraz.

Honela dio: “genozidio” hitzak zentzuren bat baldin badu, zentzu hori Latinamerikan talka gisa aplikatzen da, konkistaren ondorioz sortutako suntsiduraz. Mende bakar batean biztanleria hogeitabostetik batera murriztua izan zen.

Hernán Cortés Mexikoko Anaguaqui goi-lautadan sartzen denean, 1519an, Mexikon kultura desberdinetako 23.200.000 biztanle zeuden: aztekarrak, golmekarrak, toltekarrak, maia-tarrak. 1593an, 23.200.000tik 1.700.000 baino ez ziren gelditzen. Ez da jada legenda beltza: beltza dena ez bait da legenda, gertakariak baizik. Euren ikuspegitik entzun behar dugu; beraiek dira kontatu behar digutenak topaketa horrek zer suposatu zuen. Ez zen sarraski hutsa izan, lanaren superesplotazioa izan zen, indigenen bidalketa meatzetara, zurien gaitxotasunak, ez bait zuten defentsarik haiei aurre egiteko. Ondorioz genozidioa gertatu zen. Horretaz jabetu beharra dago. Ospakizuna, beraz, bai, baina penitentziala. Ospakizun triunfalistik egiten baditugu tristeago bihur dezakegu irainduen eta umilduen bizitza, biktimak iraintzen bait ditugu zoribeltzeko oroimen hori gogoraraziz, beraiek izaki suntsituak enfrentamendu honen eraginez.

KULTUR BERRIKUSKETA

Bestalde, europarrek aukera ezin hobea dute —eta baita geuk ere Latinamerikan— berrikusketa bat egiteko oraindik orain dugun kultur motaz, garapen-motaz, elkarbizitzaz... nahiz XV. eta XVI. mendeetan sortuak izan, merkatarien emer-

gentziaren eta lukuruaren, metatzearen eta hedapenaren araberaren erabilitako proiektu zientifiko-teknikoaren arteko erdibidean. Zer zibilizazio-mota da hau? Indarkerian, odolean, malakoetan oinarritutako zibilizazioa.

Nere bizitza osoan jaso dudan uhukadarik handiena Munich-en jaso nuen, duela urte batzuk, ikasi nuen Unibertsitate berean. Honela eman nion hasiera nere mintzaldiari:

“Señoras y señores, el bienestar que ustedes tienen aquí en Alemania no se debe principalmente a la aplicación del ingenio alemán. Se debe principalmente a la sangre, al sudor y a las lágrimas de nuestros hermanos que yacen allí en América Latina.”

Berehala uhukatu ninduten. Aurrez uste nuen bezala, Banco Mundial delakoaren datuak atera behar izan nituen neure poltsikotik eta Alemania, Suitza, Italia, Ingalaterra, eta abarren aberastasuna nondik datorren zehazten zuten estatistikak irakurri. Alemaniaren aberastasuna, %67, Latinamerikan, Hego Afrikan, Ozeanian, Mexikon dauden alemaniar multinazionalatik dator. Suitzarentzat kopurua askoz handiagoa da: bere aberastasunaren %72 ez da Suitzan bertan sortzen, handik kanpo baizik, inbertsio handiak eta irabazi izugarriak dituzten suitzar multinazionalak —bereziki elikadura eta botikagintzari lotutakoei— esker. Eta era horretan joan nintzen herrialdez herrialde.

Kontutan hartu beharra dago gure eredu dualista dela: alde batetik, aberastasuna sortzen du; bestetik, miseria hutsa. Eta ez dira errealitate paraleloak, elkar loturik daude —nak baizik. Paulo VI.ak zioen legez, besteen pobrezia esker sortzen den aberastasuna da.

Bostehun urteen aukera, izan ere, hori da: eztabaidatzea indarkerian, kapitalak lanaren gain duen pribilegioan, Ipar-Hego banaketan, eta nazioen, arrazen, kulturen diskriminazioan oinarriturik dugun gizarte eta garapen-eredua. Eztabaidatu ea eredu honek apokalipsi nuklearretik, ekologi kataklismotik salba gaitzakeen. Zeren, gauden egoeran, ez bait dago Noeren Arkarik, batzuk salbatu eta beste batzuk kanpoan utz ditza-

keenik. Denok gaude zoribeltzeko patu mehatxagarri beraren aurrean.

Hau, alde batetik, ekosistemak suntsitu, kultur loturak hautsi, pertsonak desustraitu, pobre eta subpobre-multzo izugarri bat sortu egingo lukeen ospakizun-proiektu bat litzateke. Bitartean, bestalde, kontsumoari eta bizibide-ugaritasunari dagokionean, erabat sofistikatua dagoen gizateria batekin topo egiten dugu. Gizateria horrek, bere burua defendatzeko, seguraski, Berlineko harresia ez ezik, beste harresi ikaragarri bat berriki beharko du pobreak ongitasunaren mundu horretan sar ez daitezten.

EBANGELIZAZIO-EREDUA

Kultur eredua ez ezik, Eliz eta ebangelizazio-eredua ere aztertu beharra daukagu. Izan ere, ez zen ebangelizazio bat izan, hitzaren zentzu teologikoan. Ebangelizazioak esan nahi du Ebangelioaren eraikuntza, herriarentzat berri ona. Eta hau ez da *a priori* definitua geratzen Ebangelioa edo Elizaren doktrina errezitateagatik. Beti dago kistau-fedearen kodifikazio bat, hala Testamendu Berrian nola Elizaren doktrinaren ondoren. Kristorenmezua eta bere errebelazioa kulturgabetu egiten da, beste kultura batekin topo egiten duelako, eta kultura horrek topaketa sorkuntza bihurtzen du, zentzu-produkzio bat eragiten du. Kultura desberdinek Ebangelioa beren muinetatik asimilatzen dute, ahal duten bezala irensten dute eta transfigurazio bat eta gehikuntza bat sortzen.

Latinamerikan, ebangelizazioa baino gehiago, sistema ekleziastiko eta belikoaren hedakuntza eman zen. Hara eraman zen Eliz sistema eta han hedatu eta ezarri ziren jainkoen, parrokiaren, sainduen, jaien eta ohituren sistema.

Berretze bat da. Izenak berak nahikoa adierazgarriak dira: Nueva Granada, Nueva Barcelona, Nueva Sevilla. Dena da "berria", hemengoa bera han errepikatua. Ez zen izan elkarriketa erlijioso bat, gaurdainoko indigenen erlijioen desegituraketara eraman zuen kristautasunaren ezarkuntza bat baizik. Eliz eredua eztabaidatu beharra daukagu.

Latinamerikarrek, aztekarrek, Andesetako goi-lautadako indigenek —milioika konta daitezkeenak Bolivian, Perun, Ekua-dorren, Ertamerikako zati batean— euren kultura badute, zergatik ez dute geuk, Espainia, Italia, Alemaniako mendebaldarrok dugun eskubide bera? Guk *geure kategorien barnean* asimilatu dugu kristautasuna, sortu egin dugu gaur egun dugun kristautasuna, bertsio desberdinetakoa —hebraikoa, erromatarra, grekoa, germaniarra—, fedearen eta kulturaren arteko topaketaren produktu gisa sortu dugun herentzia den kristautasuna.

Hemen, Mendebaldean, sortu da kristautasun-mota hori, erromatar katolikoa alegia. Latinamerikan zergatik ez dugu latinamerikar kristautasun bat sortzeko eskubide bera, mestizoen, indigenen, beltzen, mulatoen, azaleratzen ari diren kulturaren kristautasuna, joan zen mendeko emigrante alemaniar, espainiar, italiar, poloniar, suitzar, errusiar, eta abarren aporterazioa duen kristautasuna? Esperientzia guzti horretatik sorbedi kristau-fedearen aurpegi berria, ez besteengandik bereiziaz izateko, irekia eta beste katolikotasun-motekin elkar loturirik bizitzeko baizik.

Gaur arte ukatu egin zaigu eskubide hori. Teologo gisa gaihau planteatzen dugun bakoitzean zismatikotzat hartzen gaituzte eta Eliza paralelo bat sortu eta elkartasun eklesiastikoa hautsi nahi izatea salatzen digute. Nahi dugun gauza bakarra ebangelizatzea da, geure ahotsa izan, geure begiekin ikusi, geure azalarekin sentitu Jesusek zer suposatzen duen, zer esan nahi duen Jainkoa gure artean egoteak, Espirituak bizi gaituela, Jainkoak behin-betirako bisitatu gaituela eta indigena bihurtu dela. Gizaki bihurtu da —Vatikano II.ak *Gaudium et spes*-eko 22 zk. ospetsuan dioen legez— gizakundeari esker. Gizakundeagatik, Jainkoak, hein batean, gizaki bakoitza asumitu du. Ez du inolako eskandalurik sortzen zuri bat, gizon bat asumitu duela esateak. Jada harriturik geratzen gara esaten badugu emakumezko zuri europarra asumitu duela. Baina harridura hau eskandalu bilakatzen da indigena asumitu duela, beltza asumitu duela esanez gero. Eta Jainkoa gizaki bihurtu da eta indigenari hurbildu zaio. Jainkoa indigena da. Eta hau entzutean izutu egiten gara Jesusengan egite bakarra,

errepikaezina dagoela uste dugulako. Baina komenigarria litzateke ez ahaztea Jesus ez zela mendebaldar kristau bat izan: Jesus judutar kulturaren baitan jaiotzen eta funtsean judua da.

Eliz ereduak eztabaida zitekeen eta galdetu ez ote den posible eklesiogenesi bat. Hau da, ez ote den posible, ez azken 500 urteak soilik, baizik eta azken 40.000 urteak hor daramatzaten latinamerikar kultura handien —inkatarren, maiatarren eta aztekarren— balio kulturalak bereganatuko dituen Eliza baten genesia. Harrez gero, hor daude, kontinentean, beren kulturen bitartez Jainkoak bisitaturik, Jainkoak salbaturik. Beraiek ere badituzte Jainkoak eta euren patu zoriontsuak mintzatzen zaizkien profetak, sainduak, jakitunak.

EBANGELIZAZIO BERRIA

Gauzak horrela, berrikusi beharra dago zer den ebangelizazioa. Gogoko nuke zerbait eranstea *ebangelizazio berria*. Aita Santuak leku guztietan zabaldu du diskutsu hori. Orain, are europar ekialdean, ebangelizazioa burutu beharra dago. Aita Santuak honako mezua jaurtiki zuen Santo Domingon izan zenean: berrebanjelizazio bat egin orde, ebangelizazio bat egin behar da latinamerikar kontinentean, erronka berriak asumitzeko ausardia izango duena, eta aldi berean, azken 500 urte hauetan Ebangelioaren presentziak ongi egindako gauzei jarraituko diena.

Gauza bat argitu beharra dago: zergatik da berria ebangelizazio hau? Nere ustez, ebangelizazio klasikoarekiko —1492az geroztikakoarekiko— berria da, lehenik, efektu berri bat, kulturetaz kanpo-efektu bat sortu nahi duelako: kultura sartu, baina ez edozein kulturatan.

Kulturaz ihardutean zehaztu beharra dago zein kulturaz ari garen. Eskuarki kultura modernoan pentsatzen da, (Santo Domingon 1992an ospatuko den topaketa handirako dokumentuak prestatzen ari diren Celam-eko teologo eta ideologoi galdetzen zaienean bezalaxe), kultura aurrerakoian, garrantzian, zientifiko-teknikoan, sekularistan. Ez da pentsatzen gehiengo handien kultura. *Kultura moderno* hori lehen mun-

duko kultura da, latinamerikar eliteen kultura, lehen munduko kulturatik onura ateratzen duena, bai intelektualki, bai ekonomikoki, nahiz kulturalki. Kultura urbanoa da, lehen munduko edozein hirik dituen ezaugarri berekoa. Bartzelonan egon, Rion egon edo New Yorken egon, gunea berdina da: perfumeak berdinak dira, moda ere bera da, janariak, egunkariak, musikak, elizak eta otoitzak ere bai; jada kultura kosmopolita bat da.

Baina *gune* horren inguruan ez dira ikusi nahi ehundaka eta ehundaka konta daitezkeen txabolak, Rion bezala, lau milioi laguneko zinturoia osatzen dutenak. Hiriari, beraz, bai. Baina ez bere alderdi garaitzailetik, bere miseriatik baizik, bere kontraesantetik. Kulturari, bai. Baina isiltasunaren kulturei, inoiz asumituak eta errespetatuak izan ez direnei, indigenen, pobreen, beltzen, langileen kulturei. Abiapuntu izateko pribilegio ebangelikoa duen kultura bat, bertatik hasten bait gara ebangelizatzen. Beraiegangandik ematen diogu hasiera, beste kultura guztiei irekiak, are kultura modernoari ere.

Aurre egin nahi diogu sekularizazio-prozesuari, proiektu zientifiko-teknikoari, urbanizazioari. Jakina. Baina, zein ikuspegitatik? Zapalduaren ikuspegitik, prozesu horren biktimaren ikuspegitik. Prozesu horrek guztiak bi alderdi ditu: bateko, alderdi distiratsua, garailea, eta besteko, alderdi makurra, ezkutua, siniestro, garapen horregatik ordaintzen ari direnen unibertsoa dena.

EBANGELIZAZIOA BESTE SUBJEKTU HISTORIKO BATETIK ABIATUZ

Zapalduen bloketik, eta ez kultura meneratzaileetatik sinpleki. Ebangelizazio berria ere bai, metodo berri bat darabilelako, indoktrinazio-metodo bat izan ordez —mezu guztia jadanik prest eramán—, herriarekin, bere baloreekin, bere sentiberatasunarekin, bere kantekin, bere ametsekin, bere mitoeekin, bere erlijioekin bat eginik bizi-proiektu pedagogikoa dena. Han barruan sartu behar dugu eta, askatasun osoz onartzen duten bitartean eta ez inposizio gisa edota beldurragatik, beraiekin batera ibili handik zentzu berri bat atera dadin eta, beraien-

tzat ere, beren kulturaren berretze bat suposa dezan. Eta hor, beren Eliz mota sortzeko posibilitatea sartzen da, beren komunitateekin eta otoitz egiteko erarekin, eta Jainkoari gauzak adierazteko beren moduarekin, eta beste Elizekin komunioan egoteko beren moldearekin, baita Erromako Elizarekin ere, mendebaldeko tradizio handiko elizarekin.

Zapalduaren pedagogia hori onartzen duen Eliza. Ez zapalduarentzako Eliza, baizik eta zapalduarekin batera, ikasi eta bereburua ebangelizatu nahi duen Eliza. Puebla-k ezin hobeto zioen: pobreek potentzial ebangelizatzailea dute, ebangelizatu egiten dute Eliza osoa.

(...)

Dominaren beste alde da. Beraien kulturatik beste edukin batzuk jasotzen saiatzen den eta bizitzaren funtzio eragilea duen ebangelizazioa suposatzen du. Indigenen bizitzen aldeko aukera bat da, suntsiduraren mehatxupean bizi bait dira, bai beraiek eta baita beren kulturak ere.

Lehen ebangelioa bizia ekartzera etorri zen Jesusen ebangelioa izan zen. Beraz, indigena biologikoki erreproduzitzea, berelotura generazionalak birkonpontzea, pertsona gisa berretzea, herri bat salbatzea da, Jainkoarena ere den herri bat salbatzea. Hau edo bestea predikatzen hasi aurretik, indigenen bizia defendatuko luketen Elizak eduki beharko genituzke. Eta gero, bizitzaren Ebangelioa —Jesusen Ebangelioaren funtsa dena— predikatu. Eta hortik aurrera zentzu osoz Jesusez eta beraiengan jadanik iharduten ari den Espirituaz mintzatu, deskubritzen joan daitezen nola beraiengan aurkitzen den Jesusek esandakoaren edukina.

Ebangelizazio berriak suposatzen du gauzak apaltasunez onartzen dituen Eliza, inperialista izan nahi ez duen Eliza. Denak katekesi, liturgi, teologi eta eliz antolakuntza eredu beraren barnean tartekatu nahi ez dituen. Erabat solidarioak, komunitarioak diren eta indibidualismoa ezagutzen ez duten *latinamerikar kulturetatik abiatzen den* Eliza. Kultura hauentzat, gehienentzat bederen, jabegoa beti komunitarioa eta soziala da. Beharrezkoa zaiena bakarrik erabiltzen dute, beste gauza guztiei uko eginez.

Ebangelizazio berriak Ebangeliotik, *koinonia*-tik, komunio-tik, partizipaziotik gertu dauden baloreak dituen kultura bate-tik abiatu behar du. Hemendik Eliz mota berri bat eraiki dezake, Las Casas-ek bere azken fasean amestu zuenaren modukoa: eliza indigena bat, gotzai indigenekin, apez indigenekin, hierarkia indigena batekin, kristau izateko era indigena batekin. Hori guztia, gaur egun, utopia izugarria da. Latinamerikako teologoek eklesiologia inperialaren —leku guztietarako berdina izan nahi duenaren— aurka mantentzen duten borroka etengabea da, neorromanizazio eta neoklerikalizazio-prozesu batez Eliza osoa arautu nahi den unean bereziki, Erromako ardatz gogorrari atxekirik jarraitu eta beste Eliza guztiak satelite bihurtu nahi dituelako.

Nere ustez sakonki birpentsatu beharra dago ea ebangelizazio berria burutu daitekeen irizpide teologiko eta eklesiologiko horiek mantenduz, europar eliz sistemaren hedapena Latinamerikaren gain mantenduz, ebangelizazio berri hau ahalbideratuko duen eliz kreatibitatearen espaziorik gabe.

EBANGELIZAZIOAREN METODOA

Azkenik, oso garrantzitsua iruditzen zaidan gauza bat azpimarratu nahi nuke. Latinamerikar ebangelizazioa ez da edukinen arazo bat: zer esan?, zer iragarri nahi die Jainkoak?, non dago Jainko hori?, nolakoa da errebelazioa? Horri buruz, teologoek, bat etor gaitezke eta unanimitatera iritsi.

Arazorik larriena da *hori nola egiten den*. Ne re aburuz, XVI. mendeko ebangelizazioaren hanka-sartzerik handiena (gaurdaino dirauena) zera izan zen: kolonizazioaren eta zapalkuntzaren zeinupean egin zen ebangelizazioa. Pertsonak *menperatu* eta berehala kristautu nahi izatea. Erronka, gaur, ebangelizazioa *liberazioaren* zeinupean burutzea da. Prozesu liberatzaile bat, beraiek, beren kulturetatik, bereganatuz joan daitezen guri alde aurretik zeintzuk diren erabakitzea ez dagozkigun Ebangelioaren elementuak. Zeren, guk ere, geure erara asimilatu bait dugu Ebangelioa eta, zenbait puntutan, oso era murriztailean.

Puntu bakar bat aipatuko dut. Testamendu Berriaren ardatz nagusietako bat bizkundearen gaia da: gizon eta emakume berriak. Zer egin dugu bizkundeari buruzko gure teologian? Gehiago predikatu dugu Platon eta bere arimaren inmortalitatea, bizkundea baino. Haragiaren bizkundea munduaren bukaerarako uzten dugu. Eta munduaren bukaera noiz izango den inork ere ez dakienez, ahaztu egiten gara bizkundeaz eta arimaren hilkortasunaz. Jesus *Jainkoaren Erresuma*-z soilik mintzatu zen.

Jesusek ez zuen Eliza predikatu, Erresuma baizik. Erresuma horren jabe den Aita predikatu zuen. Zer egin genuen Erresumarekin? Orain Eliza predikatzen dugu. Espiritualizatu egin dugu Erresuma, Zerua, edo bizitza honen ondotik datorrena. Galdu egin dugu Jainkoaren Erresuma kategoriak zuen edukin politikoa, espiritualizatu egin dugu: grazia, balore espiritualetan erresuma. Ez gara erabat hiltzen, gure zati bat bizirik diraelako, eta ez gara erabat bizten, arima jada bizirik dagoelako. Hau da: ez gara behar bezala hiltzen, ez gara behar bezala bizi, ez gara erabat bizten. Bertan behera utzi dugu ikuspegi biblikoa, askoz ere osatuagoa. Gure kulturaren ikuspegiaren baitatik uste dugu hau dela kristautasuna, eta eskema murriztaile bat baino ez da.

Kultura bakoitzak Ebangelioa bere erara asimilatuko du, argi eta garbi edukiz gainera, ez dugula inoiz ere Ebangelioa erabat asimilatuko. Lau idazki ebangelikoez ere —Joanek bere epilogoan dioen legez— ez dute erabat asimilatu Ebangelioa Jesusen pertsona dela. Mundua liburuz beteko bagenu ere, ez genuke Jesukristoz esan behar den guztia esaten bukatuko. Apaltasun osoz onartu beharra dago mugatasuna, kulturen hilkortasuna, beren gaitasuna elementu batzuk bai eta beste batzuk ez integratzeko. Baina bat-eginik, elkar onarturik, osatuz goaz Jesusen aurpegi osoa, Jainkoaren aurpegia munduan. Hau da metodoa.

(...)

ONDORIO GISA

Bostgarren Mendeurrenak *kristautasunaren misio historikoa* planteatu behar digu, baina ez bere iraganaldia eta garai-pena izan zen historia legezatzeko eta konsagratzeko misio gisa. Kristautasuna ez dago gure bizkarretan geratzen den iraganaldi baten zerbait izatera kondenaturik. Gure aurrean egon behar du interpelazio-faktore gisa, itxaropen politikoaren faktore gisa, sormen kulturalaren faktore gisa. Hori behar-beharrezkoa da Latinamerikarentzat, eta hain handiak dira eta hainbeste balore duten kultura horientzat ere, Ebangelioa asumitu ahal izan dezaten, eta Ebangeliotik kristauei kristautasunaren beste aurpegi bat eskain diezaioten. Eta gizate-riari ziur aski beharrezkoak zaizkigun beste balore batzuk bizirik iraun nahi badugu.

Euskaratzailea:
JON BERGARETXE

AMERIKA ETA EUSKALDUNAK

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren
egitamua

EUSEBIO LARRAÑAGA

Aurten 1492 sinbolo-data izango dugu. 1492an jaio zen Amerika Mendebaldeko munduarentzat. Europari bere garapen-arlo ekonomikoan, sozialean, politikoan, kulturean eta erlijiosoan ate berri bat ireki zitzaion. Ate hori zabaltzeak ekarri zuenaren ondorioak luzeak, sakonak eta behin-betirakoak izan dira, Europako herrientzat zein Ameriketakoentzat.

BALORAZIO-ANIZTASUNA

Gertaera horrek jarrai-jarraian izan zituen irakurketa ezberdinak. Orduko gizartearen izaerak eta koiunturak eskatzen

zutenaren arabera baloratu zen gertaera, hau da, honako kategoria hauek kontutan hartuta: aurkikuntza, konkista eta ebanjelizatze-kontzeptuak. Kontzeptu horiek dira, izan ere, sarritan kronistek eta historialariek gureganaino helerazi dituztenak.

Hori dela eta, oraingo garaiek suharririk eta handikeriarik gabeko berrikuste historikoak eskatzen dituzte.

AMERIKA ETA EUSKALDUNAK

1492an Amerika eta Europako Herrien arteko prozesu ireki bat hasi zen. Lehenengo garai horietan baldintza historikoak zirela eta, Euskal Herriaren partaidetza nabaria izan zen: Amerikara joan ziren euskaldunak (marinelak), Sevilla-tik eta Cadiz-etik ari ziren euskal merkatariak, Euskal Herriko itsasontziak, funtzionariak, apezpikuak eta apaizak...

Baina ezin dugu honako hau ahaztu: euskal bale-arrantzaleak noiz hasi ote ziren Terranovara joaten esaterik ez badago ere, esan daiteke, inongo zalantzarik gabe, Kolonek bere aurkikundeak egin zuenerako euskaldunak ez zirela Amerikako lurraldeetara helduberriak.

Harrezkero, eta gure egunetaraino Historiak azaltzen dizkigun zio ezberdinengatik (hots, krisi ekonomikoak, politikoak, etab.), gure herrian jaiotako jendearen horizonteen zati ia natural bihurtu zen garai bateko Indiak, geroagokoen Amerika.

Gaur egun ere, beste neurri batean bada ere, Amerika euskaldunengandik gertu dago, aurrerantzean aipatuko diren arrazoiengatik.

“AMERIKA ETA EUSKALDUNAK” EGITAMUA

LEHENENGO URRATSAK

Amerikako Aurkikuntzaren Bostgarren Mendeurrena oroituz, badirudi heldu zaigula garaia bi Kontinenteen artean zabaldutako prozesua birkontsideratzeko zenbait mailatan:

- Euskal-amerikar gertaera ulertzeko modu berria.
- Berraztertutako iragana kontutan hartuta gaur egunetik etorkizunerako elkarlanaren oinarriak ezartzea.

Eginkizun honetan parte hartu nahian, Eusko Jaurlaritzak bere kompetentzien esparruan eta data baten iragankortasuna gaindituz euskaldunengana jo du laguntza eskatzeko goialdean aipatutakoa “Amerika eta Euskaldunak” Egitamua bidez bete dadin.

Guzti honengatik 1988ko martxoaren 1eko 88/48 Euskal Legebiltzarraren Dekretuaz “Amerika eta Euskaldunak” Batzorde Gorena eta Beterazlea sortu ziren aipatu Egitamua martxan jartzeko.

Beraz, 1492 urteari begira euskaldunen ekintza Jaurlaritzatik bultzaturiko “Amerika eta Euskaldunak” Egitamua bidez aritu da.

Protokoloekintza hutsetatik alde eginez “Amerika eta Euskaldunak” Batzordeak bi motatako ekintzak garatu ditu Egitamua horren inguruan:

- Eusko Jaurlaritzak dirulaguntzak emanez sustatutako egitasmoak, baina Jaurlaritzatik kanpoko egileek burutuak. (Hauek izan dira gehienak).
- Eusko Jaurlaritzak, berak, diseinatu, sustatu eta burututako aktibitateak.¹

GIZARTEARI LUZATURIKO DEIALDIAK

Aipaturiko jitearen harian bost deialdi landu eta agitaratu dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, dagozkien legezko xedapenen bitartez.

Deialdiek, egitasmoetarako diru-laguntzak eskatzeko eta emateko bete beharreko baldintza-erregimena arautzen dute, edozein pertsona fisikok zein juridikok eska ditzakeelarik.

- Kultura eta Turismo Sailaren 1988ko uztailaren 29ko Agindua.
- Kultura eta Turismo Sailaren 1988ko uztailaren 29ko Lehiaketa.

- Kultura eta Turismo Sailaren 1989ko ekainaren 2ko Agindua.
- Kultura eta Turismo Sailaren 1990eko ekainaren 7ko Agindua.
- Kultura eta Turismo Sailaren 1991ko uztailaren 8ko Agindua.

IHARDUERA-PLANGINTZA

Aipatu deialdietan ezarri zen, lan-arloka antolaturik, Egita-
mu horri zegokion iharduera. Honako hauek izan dira:

1. Euskal-amerikar gertaeraren ikerkuntza.
2. Gertakari horren zabalkundea.
3. Lankidetzaren berrien sorpena.
4. Euskadiren irudi moderno baten proiektzioa.

Ikerkuntza

Ikerkuntzaren gaurko egoeran aski ezagunak dira beren bizitza eta eragin historikoagatik itzal handiko euskaldunak (Elcano, Fray Juan de Zumarraga, Lope de Agirre, etab.). Baina hala ere, lan ugari dago egiteke:

- Zenbait arrazoi dela medio eta helburu ezberdinak zituztelarik, aurkikuntzatik gaur arte Amerikara joan eta bertakotzea lortu duen makina bat euskaldun ahanzturatik berreskuratzea.
- Amerikako herrien historian, euskaldunen parte hartzea ezagutzea edo berraztertzea.
- Aztertzea, nola inbertitu zen jatorrizko herrietan Mundu Berrian lortutako kapitala.
- Mende honetako exilioa.
- Amerikan sortu ziren Euskal Herrikoen antzeko Elkar-
teak (Adiskideen Ekonomi Elkar-teak); Euskal Etxeak, "Lau-
rak Bat", etab.
- Hainbat euskaldunen biografiak aztertzea.

Aurkeztu diren ikerketa-egitasmoak onartzeko edo baztertzeko irizpideen artean honako hauek azpimarratzen ditugu:

1. Proposatutako gaiaren interesa, originaltasuna, planteamenduaren seriotasuna.
2. Ikerlariaren “curriculum”a; Lizentziaduna izanez gero ikuskatzaile bat edukitzea.
- 3 Askotan, jakitunen baten iritzia.
4. Aurkezturiko aurrekontuaren egokitasuna.

Eusko-amerikar gertaeraren zabalkundea

Esaldi biribilik erabili nahi gabe, gogoratu beharko dugu herriaren iraganak bere orainaldiko nortasuna zehazten eta finkatzen duela. Iragan hori, batzuetan hain gertu dagoena, ezagutzea beharrezkoa da gaurko egoera hobeto ulertzeko eta azaltzeko.

Hori dela eta, Euskaldunek Amerikan XVI. mendetik gaur arte burutu dituzten iharduerak zein izandako huts handiak ezagutu egin behar dira.

Horrez gain, ikerkuntza-arloan Egitamu honen bidez gure elkarrekiko Historiaren hainbat episodio berraztertzen, galdutako beste hainbat pertsonaia gure Historiarako berreskuratzen, orain arte ahazturik zeuden hainbeste gai aztertzen egin diren izugarritzko ahaleginak dohainekoak izan ez daitezzen ezaguterazi egin behar dira lau urte hauetako ikerlanaren emaitzak.

Aipatu zabalkundea bide ezberdinetatik egin da:

1. Argitalpenak (komikiak, hiztegi biografiko-historikoak, etab.)
2. Irratsaioak
3. Erakusketak
4. Hitzaldiak
5. Ikastaroak
6. Filme dokumentalak (telesailak, bideoak, pelikulak...)
7. Prentsa-lanak
- 8 Ihardunaldiak

Ikerkuntza-mailan bezala, proposatutako gaiaren interesa eta originaltasunaz gain biztanle-kopururik handienarengana heltzea izan zen, besteak beste, egitasmo hauek onartzeko irizpidea.

Lankidetzarako egitasmoak

Garai berriek kausa amankomunak dituzten gizarteetako kideen elkarrekiko harreman eta integratze-era berriak eten gabe bilatzea eskatzen dute. Euskal gizartearen eta Amerikako euskal komunitateen kasua ere hauxe da.

“Amerika eta Euskaldunak” Batzordeek argi samar utzi zuten, Egitamu honen filosofia zehazterakoan, iragana ikertzea eta ezaguteraztea bezain garrantzitsua zela, garrantzitsuagoa ez bazen ere, geroraino harreman-era berriak sortzea eta ezartzea. Hala bada, Egitamu honen lau urte hauetako garapean gero eta gehiago bultzatu da lankidetzeta eta kooperazio-arlo hau.

Sortu eta ezarri diren harremanak gai erabat ezberdinen inguruan sortu dira: medikuntzan, artean, hezkuntzan eta lanbide eta unibertsitate-heziketa arloan (informatika, dokumentazioa, prentsa, kimika...), industrian, musikan, espeleologian, etab.

Harreman hauen agenteak honako hauek ditugu: unibertsitateak, enpresa-elkarteak, kultur elkarteak, etab.

Euskadiren irudi moderno baten proiektzioa

Lehiaketak, erakusketak eta euskoamerikar gertakariarekin zerikusia duten kultur, ekonomi edo arte-ekintzak antolatzeak, Euskal Herriaren eta bere biztanleen irudi modernoa, irekia eta etorkizunari egokitua hedatzen lagunduko du zalantzarik gabe.

EGITAMUAK IZANDAKO EMAITZAK

DEIALDIEKIKO ERANTZUNA

Lehenago esan dugun legez Egitamuak dituen helburuak betetzeko bi motatako ekintzak garatu ditu:

- a. Deialdi publikoen bidez aurkezten diren egitasmoen artean Batzordearen ustez merezi dutenak diruz laguntzea.
- b. Jaurlaritzak berak, Kultura Sailaren bitartez, ekintzak martxan jartzea.

Lehenengo multzo hori ugariena izan da. Bide hori aipatu-tako bost deialdien bidez osatu da. Deialdi horiek izandako erantzuna honako hau izan da:

PROIEKTUAK	DEIALDIAK			
	1988-9	1990	1991	OSOTARA
AURKEZTUAK	83	89	51	232
ONARTUAK	48	41	9	98
ONARTUGABEAK	35	57	42	134

Beraz, erantzuna zabala izan da eta Batzordeak egin duen balorazioa erabat positiboa.

Erantzun zabala izateaz gain anitza eta serioa ere izan da. Hau dela eta Egitamu honetan proposamenak bidali dituztenei biziki eskertu behar zaie euren laguntza, parte hartzea eta lankidetzeta.

ONARTUTAKO PROIEKTUAK

Azken lau urte hauetan 98 egitasmo diruz lagundu dira.

Datozen orrialdeetan egitasmo horiek zeintzuk diren zehaztu aurretik zenbait datu adierazgarri ikusiko dugu:

1. Deialdiaren araberako sailkapena.

Lehenengo urteotan Batzordeak ikerkuntza-arloa bultzatu zuen, batez ere. Azken bolada honetan, aipatu arloari dagokion lana ez zegoela agorturik jakinda ere, lankidetzarako egitasmoak eta etorkizunari begiratzen dioten egitasmoak sustatu ditu.

PROIEKTUAK	1988-9	1990	1991	OSOTARA
IKERKETAK	2	17	3	46
ZABALKUNTZA	14	15	4	33
LANKIDETZA	6	8	2	16
ERREPRODUKZIOA	1	-	-	1
BERRESKURATZEA	1	-	-	1
PROIEKZIOA	-	1	-	1

Hala ere, goikaldeko taulan agertzen den moduan, arlo bion arteko aldea nabaria da.

2. Gaiaren araberako sailkapena.

Kode baten bidez² aurreko taulako sailkapena mantenduz, onartutako egitasmoak zehaztuko ditugu banan-banan, egitasmo horiei dagozkien gaiak erabiliz:

- *Biografiak*

- (I-7) *GALINDEZ, JESUS.*
Sabino Arana Kultur Elkartek aurkeztua eta Iñaki Bernardo Urquijok egina.
- (I-26) *VIANA, FRANCISCO LEANDRO DE, CONDE DE TEPA.*
Patxi Viana ikerlariak aztertu du, Carlos III.aren garaiko "Cámara y Consejo de Indias" delako ministroaren honen bizitza, Arabako Lagra-n jaioa.
- (I-30) *LEZIKA Y TORREZURI, JUAN DE.*
Kortezubiko Udalak aurkeztua eta Gregorio Arrienek aztertua. Argentinako Lujan hiriaren sortzailea (XVIII. mendea) dugu Lezika.
- (I-31) *ARANBURU, FRANCISCO Aita.*
Peru-n heziketa-mailan eragin handia izan zuena mende honen hasieran. Kortezubiko Udalak aurkeztua eta Gregorio Arrienek aztertua.
- (I-35) *ZAMACOLA Y JAUREGUI, JUAN DOMINGO (XVIII).*
Antonio Unzuetak aztertu du. Zamacola honek izugarrizko lana egin zuen Peru-n modernitatea sortzeko.

- (I-36) *ARETXA VALETA, JOSE DE (XIX)*.
Fermín Lejarzak miatu du paperetan Uruguay-en medikuntza modernoaren teknikak sartu zituen mediku bizkaitar honen bizitza.
- (I-38) *LARRAZABAL, GUILLERMO (XX)*.
Fatima Errasti eta Patxi Arzamendi ikerlariiek ikertu dute Ekuador-en bizi eta lana egin zuen artista hau.
- (D-15) *AGUIRRE, LOPE DE*.
Ikusager Argitaletxeak egindako komikia Agirreren abenturari buruz. Enrique Breccia marrazkilaria, Felipe Cava gidoigilea.
- (D-15a) *BOLIVAR, SIMON*.
Ikusager Argitaletxearen komikia.
- (D-19) *ELCANO, JUAN SEBASTIAN*.
Getariako Udalak aurkeztua eta Alberto Oliverasek egindako dokumental didaktikoa.
- (D-23) *ZUMARRAGA, JUAN DE (XVII)*.
Jose Malleak Renoko Unibertsitatean aurkeztutako tesia dugu.
- (D-39) *D'ABBADIE D'ARRAST, HARRY*.
FilMOTECA Vasca-k aurkeztutakoa eta J. Borau-k aztertutakoa, Argentinan jaioa baina Iparraldeko jatorria duen Hollywood-eko zinegilearen bizitza.
- (D-58) *VITORIA, FRANCISCO DE*.
F.E.V.A.-k aurkeztua eta Oswaldo Irigoyen abokatuak egindako lana
- (D-52) *BONAECHEA, DOMINGO DE*.
Getariako Udalak aurkeztutakoa eta J.M. Alonso Ibarrrak egindako dokumentala, Tahiti konkistatu zuen Getariako Bonaecheari buruzkoa (XVI).
- (I-25) *DICCIONARIO HISTORICO BIOGRAFICO DE LOS VASCOS EN EL PERU Y DE PERUANOS DE ANCESTRO VASCO*.
Peru-ko Euskal Etxeak aurkeztua.

• *Emigrazioari buruzkoak*

- (I-1) *FAMILIA, PODER Y EMIGRACION EN EL S. XVI.*
Jose Angel Achonek aztertu ditu Legazpi, Urdaneta eta Elcanoren kasuak.
- (I-6) *RELACIONES SOCIOECONOMICAS ENTRE EL PAIS VASCO Y EL RIO DE LA PLATA. 1900-1992.*
Jose Angel Azconak eta bere taldeak mende honetan Argentinara eta Uruguay-ra joandako euskal emigrazioa ikertu dute.
- (I-8) *EL EXILIO VASCO EN VENEZUELA.*
Koldo San Sebastianek eta Peru Ajuriak egindako ikerlana, 1939-1989 urteetan kokatua.
- (I-14) *CORRIENTES MIGRATORIAS ENTRE VIZCAYA Y AMERICA EN EL S. XIX. LOS INDIANOS.*
Alvaro Hilario Pérez de San Román jaunak egina.
- (I-15) *LA EMIGRACION ALAVESA A AMERICA DURANTE EL S. XIX.*
Angel Rodríguez Arrietaren lana.
- (I-17) *EL FLUJO DE SALIDA Y RETORNO EN GUIPUZCOA DURANTE EL S. XIX: PONDERACION DE SU INFLUENCIA EN LA ECONOMIA Y SOCIEDAD PROVINCIALES.*
Carmen Beatriz Herreras andereak aztertua.
- (I-39) *INMIGRACION VASCA EN LA CIUDAD DE BUENOS AIRES 1830 a 1855.*
Juan de Garay Fundazioaren bidez Patricia Siegrist-ek ikertua.
- (I-64) *EMIGRACION VASCA. PAUTAS DE DESARROLLO EN LA ETAPA PREESTADISTICA, 1840-1889.*
M. Concepción Santiso ikerlariarena.
- (I-65) *BAZTANGO ARANETIK AMERIKETARAKO EMIGRACION XX. MENDEAN.*
Alberto Alday Garay-k osatu ditu estatistikak.
- (I-68) *EL EJE BIZKAIA CADIZ AMERICA. EL PAPEL DE LOS ENCARTADOS EN LA EMIGRACION Y EL COMERCIO CON INDIAS, S. XVI-XIX.*
Julia Gómez Prietok dihardu ikertzen.

- (I-72) *LOS VASCOS Y LA INMIGRACION TEMPRANA EN LA PROVINCIA DE BUENOS AIRES, 1840-1880.*
Tandil-eko Marcelino Iriani historialariak osatua.
- (RI-10) *EL AMERICANISMO EN EL PAIS VASCO: LA EMIGRACION AL NUEVO MUNDO.*
Ronald Escobedok gai honen inguruan Amerikan emandako hitzaldi-zikloa.
- *Ekonomia eta politika ingurukoak*
- (I-4) *REAL SOCIEDAD BASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS Y LAS SOCIEDADES ECONOMICAS NACIDAS A IMITACION DE ELLA EN ARGENTINA, COLOMBIA, CUBA.*
Euskal Herriko Adiskideen Elkartearen bidez Izaskun Alvarez, Marta Santos eta Nekane Urtasun andereek egindako ikerketa.
- (I-13) *ORIGENES Y EVOLUCION HISTORICA DE LA SOCIEDAD "LAURAK BAT" DE BUENOS AIRES.*
Begoña Cava-k eta bere taldekoek ikertua.
- (I-27) *LA BURGUESIA BILBAINA Y EL MERCADO AMERICANO.*
Ana M^a Riverak egindakoa.
- (I-32) *LA COMPAÑIA COMERCIAL "GARDOQUI E HIJOS": SUS RELACIONES POLITICAS Y CULTURALES CON NORTEAMERICA, 1760-1800.*
Natividad Rueda Soler andereak ikertutakoa.
- (I-63) *AUGE Y CRISIS DE LA CASCARILLA (QUINA) EN EL ECUADOR EN LOS SIGLOS XVII AL XIX.*
Luz del Alba Moya andereak aztertua.
- (I-71) *LAS RELACIONES EUSKADI LATINOAMERICA: UNA DE LAS BASES DE LA POTENCIACION DE LA ACTIVIDAD EXTERIOR VASCA.*
Alexander Ugalde Zubirik burutua.
- (I-81) *LA REAL COMPAÑIA DE LA HABANA: UNA EMPRESA VASCA.*
Montserrat Garate andereak dihardu egiten.

- (I-90) *LOS VASCOS EN MEXICO: LA COFRADIA DE ARANZAZU.*
Elisa Luque Alcaide anderea ari da ikertzen.
- (D-19) *CADIZ, LOS VASCOS Y LA CARRERA DE INDIAS.*
Eusko Ikaskuntzaren bidez Jose Garmendiak aztertua.
- (D-69) *LA ECONOMIA MARITIMA DE VIZCAYA Y GUIPUZCOA, 1560-1630: AUGE Y DECLIVE.*
Michael M. Barkham-en tesia.
- (RI-2) *DIFUSION Y COMERCIALIZACION DE ARTESANIA VASCA EN AMERICA.*
Joaquin Ojedak buruturiko estudioa.
- (I-40) *LA COMUNIDAD VASCA EN SONORA, 1640-1770.*
Bernd Hausberger ikerlariak osatua.
- (I-62) *LA COMUNIDAD VASCA EN SEVILLA.*
Fernando Fernández González-ek burutua.
- *Toponimia, Antropologia, Soziologia eta Arkeologiari buruzkoak*
- (I-12) *EXPEDICION ARQUEOLOGICA VASCA AL LABRADOR 1989.*
A. Azcárate eta J.A. Hernández-en taldeek burutua.
- (I-22) *TOPONIMIA VASCA EN EL LABRADOR Y TERRANOVA.*
Miren Egañaren lana.
- (I-34) *LOS VASCOS EN EL DELTA DEL PARANA.*
Alfonso Pérez Agotek gaur egungo euskal komunitate hori aztertzen du.
- (I-45) *ESTUDIO Y PUBLICACION DE LA VISITA PASTORAL DE MARTINEZ DE COMPAÑON A LA DIOCESIS DE TRUJILLO. PERU. 1783-1786.*
Anton M. Pazos-ek eta bere taldeak burutua.
- (I-46) *ESTATU BATUETAKO MENDEBALDE URRUTIKO EUSKAL JAIK.*
Kepa Fernández de Larrinoak aztertua.
- (I-55) *LERTXUN-MARREN IKERKETA.*
Jose Malleak USAko basoetako lertxunen enborretan artzainek egin dituzten marrazkiak eta inskripzioak dihardu aztertzen.

- (D-37) *ZERU ETA LURRAREN ARTEAN.*
Mikel Urretabizkaiak euskal apaizek Amerikan gaur egun betetzen duten lana jasotzen du Telebistarako 8 kapitulutan.
- (D-62) *EUSKAL ARTZAINAK MONTANA ETA WYOMING.*
Lau ataleko telesaila, Iñaki Bizkarrak burutua.
- (D-87) *EL ROBLE Y EL OMBU.*
Amerikan dagoen euskaldun mordo baten testimo-
nioak, Txema Urrutia kazetariak bildu dituenak.
- (RI-21) *I. ENCUENTROS VASCO VENEZOLANOS DE ESPELE -
OLOGIA. EXPEDICION MESA-TURIK 91.*
Euskal Espelelogoen Elkargoak eta Venezuelakoek
burutua.
- (D-17) *1992. AÑO CERO.*
Loiolako Herri Irratiako Txema Urrutiak eginiko irra-
tsaioak, 3 urtetan zehar, Amerikan dauden euskal-
dunei, edo euskal jatorria duten amerikarrei egin-
dako elkarrizketak.
- (D-29) *HIJAS DE EUSKADI.*
Ana M^a Arteagak egindako gidoia dokumental bat
burutzeko.
- *Kultura eta ingurukoak*
- (I-43) *EDICION CRITICA DE "LA REGLA CRISTIANA BREVE"
(MEXICO 1547) DE FRAY JUAN DE ZUMARRAGA.*
Josep Ignasi Saranyanak eta bere taldeak aztertua.
- (I-56) *LA CULTURA DEL EXILIO VASCO 1936-1939.*
Jose Angel Ascunce Arrietak eta bere taldeak 15 mono-
grafia osatu dituzte.
- (I-60) *DOS PERIODICOS VASCOS EDITADOS EN AMERICA:
"ESCUALDUN GAZETA" Y "CALIFORNIAKO EUSKAL
HERRIA".*
Endrike Knörr-ek aztertua.
- (I-74) *AMERICA EN EL PAIS VASCO.*
J.M. González Cembellín-ek Euskadin dagoen Ame-
rikatik ekarritako patrimonioa edo bertako diruaz lor-
tutakoa aztertu du.

- (I-80) *TRANSCULTURACION Y CIVILIZACION EN LA FORMA - CION DE CALIFORNIA: EL APORTE VASCO 1769-1834.*
Idoia Arrieta Elizalde ari da burutzen.
- (D-2) *PROYECTO CINEMATOGRAFICO "VASCOS EN AMERICA".*
Irusoin enpresak telebistarako 7 atal osatu ditu, aurkikuntza, kolonizazioa eta Amerikan euskaldunen egonaldiari buruzkoak.
- (D-7) *HOMENAJE DEL PUEBLO VASCO A LAS CULTURAS PRECOLOMBINAS.*
Nestor Basterrecheak telebistarako 10 atal burutu ditu aipatu gaiari buruz.
- (D-14) *LOREALDIA O EL TIEMPO DE LAS FLORES.*
Oscar Aizpeolearen pelikula. Euskal jatorria duen argentinaren baten istorioa.
- (D-33) *OTRAS PRADERAS. AMERIKANUAK.*
Karel Producciones enpresaren bidez Angel Lertxundik eta Mario Pardok egindako gidoia.
- (D-38) *EL LABRADOR, LA RUTA DE LOS BALLENEROS VASCOS.*
Xabi Oterok buruturiko argazki liburua.
- (D-42) *SERIE DE DIBUJOS ANIMADOS "NERE Y AMERICA".*
Irusoin enpresak aurkeztu eta Muro-k prestatutako gidoia.
- (D-48) *COMIC "AMERICA Y LOS VASCOS".*
"Lur" Argitaletxeak, Gabai pertsonaia erabiliz, osatu duen komikia.
- (D-67) *LA HUELLA AMERICANA EN EUSKADI.*
"Viajes y Vacaciones" Aldizkariaren bidez Amerikaren eragina ageri duten Euskal Herriko herrien gida osatua.
- (Rc-1) *BIBLIOTECA VASCO-AMERICANA EN EUSKADI.*
Harriluzek, Jon Bilbao eta bere Elkarteak aipatu liburutegia bultzatzeko egin dituzten lanak: itzulpenak, katalogazioak, bibliografiak, etab.

- (RI-1) *I. ENCUENTROS DE ESCRITORES IBEROAMERICA - NOS EN EUSKADI*
1991ko EHUko Udako Ikastaroetan burutuak, Rita Gnutzmann arduraduna izanik.
- (RI-3) *EUSKADI ETA AMERIKA, ARTEAN BATEGINIK.*
Mikel Anjel Lertxundi eskultoreak Jon Percy-rekin egindako eskultura, San Francisco hirian kokatu dena.
- (RI-4) *LERTXUNDI, EUSKARADUN ARTE UNIBERTSALA.*
Renoko Unibertsitatean Mikel Anjel Lertxundi eskultorearen lanaren inguruan egindako erakusketa.
- (RI-8) *I.CERTAMEN EUROAMERICANO, XXIV CERTAMEN INTERNACIONAL DE MASAS CORALES.*
Tolosako C.I.T.-ek antolatuta 1992rako.
- (RI-14) *I. ENCUENTROS HISPANOAMERICANOS DE MUSICA CLASICA CONTEMPORANEA.*
Jesús eta Carlos Sánchez-Villasol anaiek antolatu dituzten kontzertuak.
- (RI-26) *ANTOLOGIA DE LITERATURA ORAL QUICHUA DEL ECUADOR.*
Ruth Moyak burutu duena Ekuador-en.

• *Beste batzuk*

- (D-6) *ACTIVIDAD CINEMATOGRAFICA ANTE EL V CENTENARIO.*
Marrazki bizidunak OHO eta BBB mailetarako V mendurrenaren inguruko gaiak pelikulen bidez erakusteko Egitamua burutu du.
- (RI-5) *COOPERACION UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO-EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA CON UNIVERSIDADES CENTROAMERICANAS.*
Ramón Zallok eta bere laguntzaileek hiru mailatan planteatu dute egitasmo hau:
1.- Udetan hemengo irakasleek Ertamerikan ikastaroak ematea.

2.- Hemengo irakasleek sei hilabeteko kurtsoak eskaintzea Ertamerikako unibertsitateetan.

3.- Bertako irakasleek Euskal Herriko Unibertsitatean doktoradutza prestatzea.

- (I-2) *ESTABLECIMIENTO DE UNA RED DE TELECOMUNICACION EN CENTROAMERICA Y EL CARIBE CON EL PAIS VASCO PARA LA COOPERACION AL DESARROLLO Y EL INTERCAMBIO DE DATOS DE INFORMACION.*
 “Hegoa” elkarteak bertoko “Cries” delakoarekin burutua.
- (RI-38) *DESACTIVACION DE CATALIZADORES DE NIQUEL SOPORTADO: EFECTO DE LOS MODIFICADORES.*
 Euskal Herriko Unibertsitateko Mario Montes-ek eta bere taldeak La Platako Unibertsitateko CINDECA taldearekin burutuko duen ikerketa.
- (RI-11) *TERCER CURSO DE PATOLOGIA.*
 Eduardb Blasco eta Ariel Gutierrez doktoreek antolatutako 3. edizio honetara Amerikako espezialistak ekarri dira.
- (RI-16) *PROGRAMA DE COLABORACION TECNICA PARA LA IDENTIFICACION, EVALUACION Y EJECUCION DE PROYECTOS EN EL AMBITO MUNICIPAL.*
 Argentinako Lomas de Zamora hiriko Euskal Etxeko Begoña Ordoqui izan da ikerketa honen arduraduna. Helburua: Euskal Herriko kooperatiba-sistema Udaletan ezartzea, Udaletako Zerbitzuak gestionatzeko.
- (RI-22) *PRIMER ENCUENTRO MUNICIPAL VASCO SOBRE COOPERACION CON CENTROAMERICA.*
 “Fondo Vasco” de Cooperación con Centroamérica delakoan osatua.
- (RI-35) *PROGRAMA DE INVESTIGACION CONJUNTA CON LOS EQUIPOS UNIVERSITARIOS DE SANTIAGO, VALPARAISO Y BUENOS AIRES SOBRE POLIMEROS CONDUCTORES. SINTESIS Y APLICACIONES INDUSTRIALES.*
 Euskal Herriko Unibertsitateko Toribio Fernández-ek eta bere taldeak burutua.

Egitasmoak, jatorriaren arabera

Jatorria kontutan hartuta, Amerikatik bidalitakoak aipatuko ditugu.

Lau urte hauetan zehar heldu zaizkigun 28 proiektuetatik 9 burutu dira eta ez gorabeherarik gabe.

Bederatzi horiek ditugu: José Mallea Olaetxe (I-55); Luz del Alba Moya (I-63); Marcelino Iriani (I-72); Jose Mallea Olaetxe (D-23); F.E.V.A. (D-58); Centro Vasco "Denak Bat" de Lomas de Zamora (RI-16); Ruth Moya (RI-26); Ana M^a Arteaga (D-29); Euskal Etxea de Perú (I-25).

Ondoko grafikoan ikus daiteke zein herrialdek hartzen duen parte eta zer-nolako partaidetza duen:

HERRIALDEA	AURKEZTUTAKO PROIEKTUAK	BURUTZEN ARI DIRENAK
ARGENTINA	15	4
USA	8	2
EKUADOR	3	2
PERU	1	1
TXILE	1	-

Badira beste bederatzi proiektu, diru-laguntza eskaera Euskaditik egin izan arren, Amerikako eta Euskal Herriko partaidetza pare-parekoa dutenak. Hala gertatzen da honako kasu hauetan:

- (I-2) *HEGOA & CRIES (Ertamerika)..*
 Euskal Herriaren eta Karibe-ren artean telekomunikazio-sare bat ezartzea, bi helbururekin:
 a. Elkar-lankidetzako proiektuak elkarren artean burutu ahal izateko,
 b. Elkar-lankidetzako proiektuei buruzko informazioaren berri elkarri eman ahal izateko.
- (RI-3) *ANJEL LERTXUNDI & JIM PIERCY (Estatu Batuak).*
 Eskultura bat egitea, bi artiston kulturak lotuz egina, Euskal Kultura eta Iparramerikakoa.

- (RI-5) *EHU & ERTAMERIKETAKO UNIBERTSITATEAK.*
(Guatemala, Honduras, El Salvador, Nikaragua eta Salvadorreko UCA).
Hiru urteko lankidetza (89-92 bitartekoa) honek honetan datza:
– Ertamerikako irakaslegoarentzako 40 doktordutza-beka (20 irakasle).
– Hilabetetik birako ikastaroak Ertamerikan, irakasle euskaldunak emanik (doktoreak/20, urteko).
– Urtero, sei hilabetez, lau irakasle bertaratuko dira ikerketa-taldeen formazioan edo ikerkuntzan laguntzeko.
- (RI-8) *TOLOSAKO EUROAMERIKAR ABESBATZEN 24.EMANALDIA.*
Argentina, Kanadá, Txile eta hainbat lekutako abesbatzek hartuko dute parte.
- (RI-11) *PATOLOGIA IKASTAROA, "ARANTZAZUKO AMA"REN HOSPITALEAN.*
1991ko azaroan izango den 3. ikastarora Amerikako espezialistak etorriko dira.
- (RI-14) *MUSIKA GARAIKIDEN HISPANOAMERIKAR IHARDUNALDIAK.*
Bartzelonako LIM taldea bezalako beste Europako talde garrantzitsu batzuekin batera Amerikako interpreteak izango ditugu.
- RI-35 *ELEKTROKIMIKA TALDEAK.*
(Donostiako EHUko Fakultateko Toribio Fernández-en lan-taldeak eta Buenos Aires eta Santiago de Txileko Unibertsitate publikoek zein Valparaiso-ko katolikoak osatzen dutena).
Polimeroei buruzko ikerketa.
- (RI-38) *INGENIERIA KIMIKAKO TALDEAK.*
(Donostiako EHUko Mario Montes-en lan-taldea eta La Plata-ko Unibertsitate nazionaleko Katalitikoaren Zentrua)
Katalizadorei buruz elkar lanean egiteko ikerketak.

Ikus-entzunezko proiektuak

Onartu eta burutu diren proiektuen kalitatea eta barietatea egiten ari diren lan guztien mostra argia eta duina besterik ez dira.

Era askotako ikus-entzunezkoak dira baina talde hauetan bana ditzakegu:

- *Telesailak*

(D-2) *VASCOS EN AMERICA.*
 “Irusoin”ena. Zazpi kapitulu ditu, 30 minutukoa bakoitza eta dokumental-eran dago egina. Bale-arrantzaleak, Kolon eta bere bidaiak, Perú, Hegoaldeko Konoa eta Lope de Aguirre, Euskal Herriko marinel apartak, etabar dira euron protagonistak.

(D-62) *PASTORES VASCOS EN MONTANA Y WYOMING.*
 I. Bizkarrarena. Lau kapitulu, 30 minutukoa bakoitza, eta dokumental-estiloan eginak; artzain euskaldunak Estatu Batuetara joan eta bertan duten bizimoduaren berri ematen digute.

(D-7) *HOMENAJE DEL PUEBLO VASCO A LAS CULTURAS PRECOLOMBINAS.*
 N. Basterretxearena. Hamar kapitulu, 30 minutukoa bakoitza. Estilo poetiko-literarioan egina, maya-tarren, olmeca-tarren, azteca-tarren, eta beste batzuen kulturei buruzkoak dira.

(D-37) *ZERU ETA LURRAREN ARTEAN.*
 M. Uretabizkaiarena. Zortzi kapitulu, 30 minutukoa bakoitza. Dokumental-estiloan egina, Amerikan lanean diharduten erlijioso euskaldunik aipagarrienei buruzkoa.

- *Pelikulak*

(D-14) *LOREALDIA O EL TIEMPO DE LAS FLORES.*
 O. Aizpeolearena. Luzemetraia, Donostiako azken Nazioarteko Zinemaldian estreinatu zena. Gaia: jatorri euskalduna duen argentinarr bat bere sorburura buel-

tatzen da 1900ean, Zerain baserrira. Trama horretan tartekatzen zaigu noizbait Euskal Herritik kanpora Argentinako bidea hartu zuten arbasoen historia.

• **Dokumental Didaktikoa**

- (D-19) *JUAN SEBASTIAN ELCANO.*
Getariako Udalarena. Didaktikarako prestatutako bideoa, Elkanoren bizitza, bere ekintza ezaguna eta XV. mendeko marineria (30 minutukoa).
- (D-52) *DOMINGO DE BONAECHEA.*
Getariako Udalarena. Bonaecheak Tahiti-n burututako kolonizazioari buruzkoa (30 minutukoa)

JAURLARITZAK BULTZATUTAKO EGITASMOAK

PUBLIZITATEA

“Amerika eta Euskaldunak” Egitamua zein bere inguruan osatu den lana ezaguterazteko eta zabaltzeko zenbait ekintza martxan jarri zuen Kultura Sailaren bitartez.

Lehendabizi, joan den urtean irrati-kanpaina garatu zen Euskadi Irratian, Radio Vitoria-n, Herri Irratian... eta Euskal Herrian entzuten diren beste irrati batzuetan. Irratsaio hauek ikerlariak eta diru-laguntzen onuradunek hartu zuten parte gehienbat.

Bestetik, prentsaurreko batzuk burutu dira Donostian eta Bilbon Egitamuaren zenbait emaitzaren berri emateko (foiletoak kaleratzeko, egitasmoren bat bukatu ondoan, etab.).

“AMERIKA ETA EUSKALDUNAK” BILDUMA

Egitamuaren helburuetariko bat Euskal-Amerikar gertakaria han-hemen zabaltzea izanik eta, nolabait, egindako ikerketak burutzeko egindako ahalegin ekonomikoa errentabili-

zatu nahian, bukatzen diren heinean lanok argitaratzea erabaki zen.

Batzordeak bildumaren portada aukeratu eta liburuen ezau-garriak zehaztu ondoren, argitaletxera bidali zen G. Arrien jaunak Juan de Lezika, Argentinako Luján-go hiriaren sortzaileari buruz eginiko biografia.

1992ko ekitaldiko aurrekontupean hasiko da hogeita hamabosten bat ikerketa argitaratzen.

“AMERIKA ETA EUSKALDUNAK” ERAKUSKETA IBILTARIA

Zalantzarik gabe, lehen aipaturiko Bilduma eta Erakusketa hau, Egitamu instituzional honen barruan lau urteren buruan egindako lanaren aurkezpen-txartelak izango dira.

Donostiako “Imagen y Comunicación XXI y Asociados, S.A.” enpresak diseinatu eta burutu duen erakusketaren ezaugarriak honako hauek izango dira:

- *Egitura*. 640 m² 4 aretotan banaturik: Sarrera, erakustaretoa, ikus-entzunezkoen gela eta dokumentazio-aretoa.

Sarreran, XV. mendean Amerikako eta Euskal Herriko egoera zein zen azalduko da.

Erakustaretoan, elkarrekiko Historiaren garapena.

Ikus-entzunezkoan, 10 minutuko diaporama eta beste material batzuk eskainiko dira.

Eta, azkenez, beste areto batean historialarientzat eta interesatuentzat informatizaturiko dokumentazioa (9.000 erreferentzia inguru) izango dugu.

- *Kokaguneak*. Baiona, Bilbo, Donostia, Iruñea, Gasteiz.
- *Egunak*. 1992ko azarotik aurrera.
- *Katalogoa*. Prestatu den katalogoak honako hau jasoko du:
 - Euskal-amerikar gertaeraren historia.
 - Jakitun batzuen artikulatuak.
 - Erakusketaren piezen argazkiak.

ONDORIOAK

Neurri handi batean, Batzordeak bete ditu bere helburuak eta baita Egitamuaerenak ere.

Lehendabizi, eta helburu zehatzei dagokienez, ikaragarritzko bultzada jaso du euskal-amerikar gertaerari buruzko ikerkuntzak, eta gertaera horren zabalkuntzak, hara hor, bilduma, erakusketa, etab.

Bestetik, lankidetzaz eta kooperazio-mailan, Batzordeak honako hau lortu du, besteak beste:

1. Harreman berriak sortzea (espeleologoak: RI-21; medikuak: RI-11; udalak: RI-16, RI-22).

2. Jada ditugun harremanak sendotzea (Unibertsitateak: RI-5, RI-19, RI-35, RI-38; misiolariak: RI-14; horko euskal elkarteak: I-25, D-58, I-39).

Gaur egungo harreman horiek hiru mailatan bana daitezke:

Batetik, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza Sailaren Diaspora eta Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak mantentzen dituenak.

Bestetik, Amerikako euskal-amerikar erakundeek ordezkartzen bidez Euskal Herrian dituzten harremanak, hots, zenbait euskal etxek, Fundación Juan de Garayk, F.E.V.A.k, eta abarrek.

Azkenez, Euskal Herriko Unibertsitateak, Elkarte Ekonomikoek, enpresek, Euskal Herriko ONGek (Organizaciones no Gubernamentales delakoek) sortu dituztenak. Benetan aipagarria da azken hauen lana zein Amerikan diren euskal "cooperante"ena.

Helburu zehatz horiek bete ondoren, orokorra ere osatu da, hots: 1992. urteari begira antolatuko diren ekintzetan euskal parte hartzea bultzatzea.

Esandakoen arabera Amerikan euskaldunen aportazioaren prozesua ez dela eten esan dezakegu. Mendean zehar sortu diren euskal-amerikar komunitateen presentzia nabaria da Amerikan eta agian 1992. urtetik aurrera ezagunagoak izango dira Euskal Herrian, eta beraz, gertuagoak.

1. Aurreragoan zehazten dira egitasmo guzti hauek, aipatzen den sailkapenaz baliatuz.

2. I = Ikerketak; D = Zabalkundeak; RI = Lankidetzakoak

G AIAK

GURUTZ ANSOLA

MAASTRICHT ETA EUROPAR BATASUNA

MAASTRICHT ETA EUROPAR BATASUNA

GURUTZ ANSOLA

Maastricht-eko Tratatuak bi ardatz ditu: bata, politika-batasunarena, eta bestea, ekonomi eta moneta-batasunarena. Lan honetan ekonomi eta moneta-batasunari lotuko naitzaio, aurreko lan argitaratuari jarraituz (Ik. *Jakin*, 68 zk., 1992). Orduan, txosten bat genuen aztergai. Delors txostena, alegia. Orain, Tratatu-testu bat. Maastrichten onartutako Trataturia (1992-II-7). Hark proposatu egiten zituen bideak. Honek, aldiz, erabaki eta agindu egiten ditu.

SARRERA

Europar Komunitateak eginkizun larriak hartzen ditu bere gain:

- Komunitate osoaren garapen harmoniaduna eta orekaduna.
- Hazkunde iraunkor inflaziorik gabea eta ingurunea errespetatuko duena.
- Nazioen elkarrekiko hurbilpena edo konbergentzia.
- Lana eta gizarte-laguntza.
- Europarren bizimodua hobetzea.
- Herrien arteko atxekimendu eta solidaritatea.

Helburuok iritsi ahal izateko hiru indar-eragile, elkarren osagarri direnak, prestatu ditu Maastricht-en Europar Komunitateak:

- Barne-merkatu bakarra eta amankomuna.
- Ekonomi eta moneta-batasuna (UEM).
- Komunitateak berak eramango dituen ekintzak eta programak.

Barne-Merkatu Bakarra burutua egongo da 1992. urtea bukatzerako. Barne-muga oro desagertuko da. Merkatu-eremu bakar eta libre horretan barrena, merkantziak, zerbitzuak, pertsonak eta kapitalak inolako trabarik gabe mugitu ahal izango dira. Europar ekonomia erabat indartsuago bihurtuko da. Izan ere, faktore ekonomikoak modu eraginkorragoan erabiliak eta enplegatuak izango bait dira.

Aipatu ditugun helburuok lortzeko, ordea, ez da aski merkatuaren eragina. Barne-merkatua osatu eta indar berriz bete behar da. Eta ekonomi eta moneta-politikaren batasuna da, hain zuzen, merkatuari dinamika hori eman dakiokena.

POLITIKA EKONOMIKOAREN BATASUNA

Estatuek politika ekonomikoa gidatzen jarraitzeko autonomia zabala gordeko dute. Moneta-politikaz baliatzerik ez dute

izango. Aldiz, aurrekontu-politika nazionalek lehen mailan jarriko dira. Hala ere, Estatuak ekidin egin beharko dituzte gehiegizko defizitak. Debekaturik dago defizitak monetizatzea, hau da, Banku Zentralek administrazioari kredituak ematea, ez da zilegi. Bestalde, Komunitateko Kontseiluak politika ekonomikoaren norabide eta xede nagusiak jarriko ditu.

Hitz batean, aurrekontuen autonomiak baditu, nahiz disziplina aldetik, nahiz koordinazio aldetik, datozkion hersturak.

MONETA-POLITIKA

Moneta bakarra erabiliko da Europar Komunitatean, azkarrenik 1997. urtetik, beranduenik 1999. urtearen hasieratik. Europar Banku Zentralean sortuko da eta Estatu-kideen Banku Zentralekin elkartuz sistema berria eraikiko da, Europar Banku Zentralen Sistema. Kanbio-politika ere esku batek eramango du. Ecu-aren eta Komunitatez kanpotik diren beste moneta guztien arteko harreman eta trukeak Europar Banku Zentralaren esku egongo dira.

Moneta-politika bakarraren xede nagusia prezioen egonkortasuna bermatzea eta inflazioari behean eustea izango da.

Bistan da, moneta-batasunak dakartzan aldakuntzak sakinak direla. Horregatik, komunitate-kideek prestaera burutu behar dute. Baldintzak ezarri zaizkie inflazioaren, interes-tipoen, kanbioen, aurrekontu-defiziten eta zor publikoaren alorrean. Eta konbergentzi lan hori egiteko, Estatu bakoitzak egitarau berezia prestatu behar du, Komunitateko Komisioak onartu behar duena.

LEHEN ETAPA: 1993-XII-31 ARTE

Lehen etapa datorren urtearen azkenean bukatzen da. Ordu-rako, konbergentzi egitarauak martxan jarri behar dira. Maastricht-eko Tratatuak lau irizpide ipini ditu ekonomia naziona-

len artean elkar hurbiltze iraunkorra erdietsi den ala ez erabakitzeke. Hurbilbidea burutzeko 1996 arterainoko epea eman da.

Hona hemen lorkizunok:

- *Prezioen egonkortasuna edo inflazio-tasen hurbilpena.* Eredu edo jomuga gisa, inflazio gutxien daukaten hiru Europako nazio hartuko dira.

- *Defizit eta zor publikoak.* Defizitak ez du %3 gainditu behar eta zor publikoak, BPGarekin erkatuz, %60 behetik egon behar du. Finantza publikoen egoera eutsiezina edo jasanezina bihur ez dadin erabaki dira disziplina-arauok.

- *Kanbio-tipoen egonkortasuna.* Jakina denez, Europar Moneta-Sisteman kanbioak zerrenda estu baten barnean mugitu daitezke. Moneta orok zerrendaren mugak errespetatu egin beharko ditu, bi urtetan gutxienez. Eta, denbora berean, monetaren desbaliapenik egiterik ez da zilegi.

- *Interesen hurbilpena.* Inflazioa jaisteak, defizitak arintzeak eta kanbio egonkorrek zera erakarri behar duela, dio Maastricht-eko Tratatuak, alegia, epe luzerako interes-tipoen arteko diferentziak moztea.

BIGARREN ETAPA: 1994-I-1EAN HASI

Bigarren etapan emango diren aldaketa-pausoak aipatuz hasiko gara.

- Europar Moneta Institutua (EMI). EMIren eginbideak izango dira:

- Banku Zentral Nazionalen elkarlana eta koordinazioa sendotzea.

- Europar Moneta Sistemaren egoera zaintzea.

- Ecu-aren erabilera erraztu eta hedatzea.

- *Banku zentralen independentzia.* Banku Zentralek gobernuengandik aske bilakatu behar dute. Lege-aldaketak egin beharko dituzte, horretarako, legebiltzarrek.

- *Konbergentziaren frogantza*. 1996. urtean, estatuek nork bere konbergentzi azterketa garaitu beharko dute. Gorago aipatu lau baldintzaz gain, bakoitzari galdetuko zaio nolako aurrerapenak egin dituen honako gai hauetan: Ecu-aren erabilera, merkatuaren integrazioan, produktibitate eta alokairu-kostuetan... Deitik gora badira esamina garaitzen dutenak, Kontseiluak erabakia hartuko du zein egunetan hasiko den hirugarren edo azken etapa.

- *Estatu-kide lekoragarriak*. Konbergentzi baldintzak betetzen ez dituen Estatuak, lekora geldituko da. Ez da Europar Banku Zentralen Sistemari sartuko. Aldiro, esamin berrietara deituko zaio lekora gelditu den Komunitate-kideari.

AZKEN ETAPA. EUROPAR MONETA BATASUNA OSATURIK

1. Azken etapa irekitzen den egunean, Kontseiluak europar moneten arteko kanbio-neurriak finkatuko ditu, zeintzuk atzerazinezkoak, birraldazinezkoak, geldituko bait dira. Era berean, Kontseiluak zehaztu eta ezarriko ditu Ecu-a eta Komunitateko moneta nazionalen arteko kanbioak. Ecu-a, honela, moneta bete eta osoa izatera iritsiko da.

2. Europar Banku Zentralak banku zentral nazional guztiekin batera osatzen dute Banku Zentralen Europar Sistema. Honek aske eta menpekotasunik gabea izan behar du. Bere xede nagusia presioen egonkortasunari eustea da, hots, inflazioa menpean edukitzea. Horrexegatik, Sistemari dagokio monetar politikak gidatu eta zuzen-zuzenean eramatea. Gordairu eta erreserba ofizialak berak gordeko ditu.

Banku-bilete berriak, Ecu-tan, nork jaulkiko ditu? Baimena Europar Banku Zentralak bakarrik eman dezake. Aldiz, jaulki eta zabaldu, nahiz EBZk nahiz banku zentral nazionalak egin dezakete. Ecu-txanponak ateratzeko ahalmena Estatu-kideen eskuetan gelditu da, nahiz eta kopurua neurripean egongo den.

EBZk kapitalen merkatuetan esku hartuko du. "Open-market" eragiketarak egin ahal izango ditu.

Maastricht-eko Tratatuak xedatzen duenaren arabera, beranduena 1999az geroz, Europan moneta bakarra izango dugu, Europar Banku Zentrala gidari nagusi delarik.

KOMUNITATEAREN EGITARAU OROKORRAK

J. Delors-ek aurtengo otsailean egin du Europar Legebiltzarrean Maastricht-eko Tratatuaren agerpena.

Heldu diren urteak ez ditu argitsuak ikusten Delors-ek. Mundua norabide jakinik gabe omen dabil. Ahuleriak jota dago Europako ekonomia bera ere. Gaitz dauka hazkunde-polo autonomoa izatera iristen. Goragi dago langabezia. Industriak arestian beregan zituen aurrenpuntu eta abantailak galtzen doaz. Etorkizuneko teknologietan ez dabil indartsu. Ikerkuntzari eskaintzen zaizkion baliabideak eskasak dira.

Europar Komunitateak ez dauka geldi egoterik, aldakuntza horien aurrean. Erronka jaurti zaio Europari eta, Komisio-buruak dioenez, Maastricht-ek erantzun egin nahi dio, nagusiki, hiru aldetatik:

- Industriaren konpetitibitatearen aldetik.
- Europan zeharreko sareen bidez.
- Kohesio edo elkar atxekimenduaren aldetik.

Industri alorrean, Komunitateak ahaleginak egingo omen ditu ikerkuntzaren eta teknologi aurrerakuntzaren oinarriak sendoagotzen. Arazoa da ea estatuek aski medio emango dioten.

Europan zeharreko sareak Garraioak, telekomunikabideak eta energiak ezinbesteko dituzten azpiegiturak adierazi nahi da. Sareon bidez elkar lotu eta elkar jarraieran ipini, estatuek dauzkaten azpiegiturak. Mugak deuseztatuko direlarik, azpiegitura horiez baliatuz, europar sareak hedatu.

Elkar atxekimendu edo kohesioa. Merkatuak ez du, berak bakarrik, ekonomiaren eta gizartearen harmoniazko garapena ekarriko. Komunitateak iritsi nahi duen helburu hori lortzeko, ezinbestekoa da herrien elkarren arteko atxekimendu edo kohesioa.

Maastricht-eko Tratatuak dioenaren arabera, kohesioa lortzeko Europako eskualdeen artean dauden bizi-maila diferentziak moztu behar dira. Horretarako egoera makurrean dauden eskualde atzeratuei lagundu behar zaie.

Estrategia hori estatuetako gobernuak eta komunitateak elkarlanean burutzekoa da. Komunitateak, lehendik banatzen dituen fondo estrukturalak gain (FEDGA, FSE, FEDER...), kohesio-fondo berria sortuko du datorren urtea bukatzerako. Ingaruneari begiratzeko eta garraio-sareak hedatzeko izango dira kohesioaren baliabideak. Errenta-maila apalean daukaten Estatuak joango dira. Berariaz diot Estatuak doala kohesio-laguntza. Eta ez erregio edo eskualdeetara zuzenean.

Delors-ek berak esanak adierazten du ezin hobeki: "Orain arte politika erregionala izan dena eskualdeentzat, honen antzeko zera izango da kohesioaren aldeko laguntza estatuentzat".

GUNEN GURPILEAN

RAMON SAIZARBITORIA

BIHAR FASZISMOA
OKINDEGIKO ILARAK
BUESAREN ARRAZOIAK
NEW YORK MANHATTAN GABE

JESUS GIL MASSA

XIX. MENDEKO PINTURA ESPAINIARRA BILBON
"GERNICA": BETIKO EZTABAIDA
EZADOSTASUNAREN MAHAIA
ZORIONAK MATTA

INAKI IRAZABALBEITIA

GALES BAT EUSKAL HERRIAN
ZIENTZIA ETA HUMANISMOA
LABORATEGIKO ANIMALIAK

BEGOÑA DEL TESO

ERICE ETA ANTONIO LOPEZ, MENBRILONDO BATEN
AURREAN KOSTA URDINEAN
ONIK IA EZ ZUEN MATTASUN-ISTORIOA
HALERE...
CANNESETIKO POSTALA
HOLLYWOODEKO OIHARTZUNA
ESZENATEGIAN GELAN BAINO HOBETO
ETB MINEZ

KULTURA
ARTEA
ZIENTZIA
IKUSKIZUNAK

KULTURA

RAMON SAIZARBITORIA

BIHAR FASZISMOA

Orwellek presentea eta, presentearen bidez etorkizuna ez ezik, iragana ere kontrolatzen duen autoritarismoaren salaketa egin zuen. 1984 prebisiblea zen jada 1948an pertsona inteligente batentzat, etorkizuna hala izaten bait da. Goizero egunkarietan azaltzen diren horiek engaina gaitzakete —ahalegintzen dira behintzat— orainaz eta iraganaz, baina ezinezkoa zaie etorkizuna beren gustoko kolorez pintatzea. Guztiok dakiguna da, etorkizuna beti latza.

Ez dago utopiarentzat lekurik jada. Egunkari batetik ETA desagertu ondorengo etorkizuna imajina dezala eskatu diotenean, Jon Juaristik zera esan du: “Bihar faszismoa”. Ez zaio arrazoirik falta ziur asko. Askok, adierazten ausartu ez arren,

berak bezala pentsatzen duela erantsi du, eta horretan ere, ziur asko, arrazoia du.

Literaturaren soziologia distopia edo utopia negatiboaz ari da. Dirudenez, aurrerabidearen arazoak fedea galdu dugu eta, bestalde, iragana orainaren neurrira eraikitzen denez, gizateria, hain zuzen ere, gizatasunaren adierazgarrietako bat den memoria kolektiboaz desjabeturik geratzen da.

Anomia esaten diote geure desmemoria ilun horren barne-amildegietan galtzeari. Atzoko kondukta-ereduak galduta, biharkoak sustraitu gabe, nora ezean ibiltze zoro honi.

Ez dakit berandu ez ote gabiltzan, ordea, J.J. eta biok, lebita beltza jantzi eta Eibarko apaiz laikoaren zeregina suspertuz, *civic gospel* berri baten mezua predikatzen hasteko, instalatu bait zaigu gure literaturan ere, Xabier Mendigurenen eskutik —nork pentsatuko zuen mutil honen itxura atsegina ikusirik— pizti zikin amoral desgraziatu anomikoaren espeziea, eta Joxean Muñoz —*Begien bizkar*— bezalako hitz ederreko gizon ezirik sobrebizitzen bada, indiferentziaren zepata zorrotza gordetzen du gabardinarenean tolesturan. □

OKINDEGIKO ILARAK

Soziologiak ez du gauza handirik balio inkesta azterketa-t resna bakartzat darabilenetik. Are gutxiago estatistika konputerizatuaren emaitzaz inkesta-lana teknifikatu eta erraztu ondoren. Erru estatistikoak kezkatzen ditu soziologoak, baina, “ez muestreokoak” deiturikoez apenas dira arduratzen. Hala ere, irakatsi egin digute edozein astakeria, demagun $p > 0.0001$ ageri duela oinean, egia absolutua balitz bezala onartzen.

Soziologoak ez dira jada, Comtek “soziologia” hitza asmatu aurretik bezala, beren leihoetatik gizarteari begira jartzen. Gure garaiko beste hetxizero horiek bezala, medikuek ari naiz noski, izen-abizenak hartu eta, aurpegira begiratzeko astirik hartu gabe, ekografia bat egiteko agintzen dizute, inkesta bat alegia, eta inkestak, erru estatistiko gehiegirik gabe eta konfiantza maila handiz —gastatu nahi duzun dirutzaren ara-

bera—, jendea demokraziaren eta euskararen alde dagoela jakinerazten dizu.

Ez dakit nik ez ote den hobe Goffmanen mikrosoziologia hori —*Relations in Public-Microstudies of the Public Order*—, egunerokotasuna zeinuen bidez aztertzen duena —zeinu batek mila hitzek baino balio gehiago du—, gure harreman alienatuen berri emateko. Gizarte baten esku izerditsuak burura eramateko tik urduria adierazgarriagoa bait da inkesta/ekografiekin haren egoerari buruz erakutsi dezaketena baino.

Aireportuetako ilarak Hochschildek —*The Managed Hearth*— bezala aztertu ez baditut ere, badakit zertxobait nik igande goizetako okindegiko ilarez. Garai batean lasaiak izaten ziren, igandeetan ez bait zegoen presarik. Eguraldiaz hitz egiten zen, onaz edo txarraz, zer fortunatzen zen, gizonezkoek egunkariak irakurtzen zituzten eta bizarra moztu ondorengo lozio-usain, egia esan, aski kargantea hedatzen zuten.

Egun, nere okindegian behintzat, lau ilara osatzen dira eta ilara bakoitzeko jendeak ondoko besteak behatzen ditu ea azkarrago ote doazen neurtuz eta, artean ere, aldatzea komeni ote zaion baloratuz. Norbaitek eskakizun arrunt bat egin ordeztu aparteko zerbaitei eskatzen duenean —neurri desberdineko ogiak, kroasanak edo madalenak, adibidez— abiadura ohizkoa baretuz, orduan, ilara bihurritu egiten da denak ikusi nahi bait dute, lepoa luzatuz, nor den denbora galtzearen erruduna. Inork ez du hitzik esaten. Saltzaileen ahotsa baino ez da entzuten “hurrena, zer nahi duzu? x pezeta”, “hurrena, zer nahi duzu? x pezeta” automatikoki kantatzen.

Ez zait zaila egiten, oraingoan, amona xahar baten txanponak bereizteko eragozpenaren eraginez luzatu eta bihurritu egin den ilarako kideok zer egiteko gauza ginatekeen imajinatzea, etxean haurrak aste beteko gosez eta ogia bukatu egin dela esango baligute.

Lasaitu nahian, gogoeta hori imajinazio bero eta mente neurotizatu bati dagokiola esaten diot neure buruari, baina ondoko lerroan, itxuraz guda Intxarkundian egina izandako gizon oraindik mardul batek, hain zuzen ere, “lasai, lasai kristauok” esaten du ahots sakonez dendarien “nor da hurrena x pezeta” leloaren eta bezeroen isiltasun urduriaren gainetik.

Gizonak Goffman irakurri ote duen galdetzen diot orain neure buruari etxera abiatzeko lasterka bizioan, euria egin behar bait du. Bidean, manifestaldien buruetan aizkora eta sugea eraman ohi dituen itxura atsegineko andre a rekin gurutzatzen naiz. Nere amak udaran erabili ohi zituen bezalako pikezko soineko hutsez doa jantzia, dudarik gabe momentu batetik bestera euria egin behar badu ere.

Uste bezala, zaparrada hasten da. Nere eskuinaldeko faxadetara arrimatzen naiz balkoi azpietako aterperik zokoenaren bila beti. Aurrez datozenak, ordea, babes berdinenaren bila, hamabost zentimetroko labanak erakutsiko balizkidate bezala, baina oharkabeko zeinuz, mugimendu lehorrez espaloi erdira ateratzera behartzen naute. Behin eta berriz.

Niganantz datorren gazte, itxuraz arrunt, bat dakusat orain eta, nire eskuina gordetzeko eskubideari eustea erabakiz, seko eta firme geratu naiz nere ogia eta madalenak hormaren kontra babestuz. Bera ere geratu egin da, ordea, lotsagabeki aurpegira begiratzen didalarik. Bion bihotzen taupadak entzuten ditut zaldika eta horrela iraun dugu bata bestearen aurrean amaigabea iruditu zaidan denbora luzean. Lehia zentzugabea da erabat, noski, baina ez dakit duintasunik galdu gabe nola etsi eta horretan egon naiz burua harmaila beltz bat ia ukitzerraino, makurturik, irteera bilatu nahian, hain zuzen ere, neure etxeko sarrerakoa dela konturatuz, atarian sartu naizen arte.

Irribarre leuneko andre zuriz jantzia ere, ez galdetu nola iritsi den, hor dago. Igogailuaren atean ikusten dut ea berarekin igo behar dudan galdezka. Nahiago dudala oinez esan eta eskaileretan gora abiatu naiz madalenak bidean galduz joanez, Gora/ETA/Militarraren erritmoak martxa on bat eramaten lagundu didalarik.□

BUESAREN ARRAZOIAK

Nik ere Buesak esandakoaz aipamenen bat egin beharko nukeela iruditzen zait, zergatik oso ondo ez dakidalarik ere, ongi

bait dago Mari Karmen Garmendiak erantzun diona —gaztetan Mari Karmen Garmendiak zentzu on gehiegi eta guzti zuela iruditzen zitzaidan baina oraingo zereginean dena da gutxi— haren iritzi errespetagarri baina, kasu honetan, ez oso zuzenaren gaineratik legea dagoela, alegia, eta Buesa bera dela herriartar guztien artean legea betetzeko obligaziorik handiena duenaren hurrengoa.

Buesak egin duena ez dago ondo, lehendakariordea denez, kasu horretan begiramen handiagoa erakutsi behar bait luke hizkuntza ofizialkidearekiko.

Baina gauza bat da bere pentsamolde hori azaldu duelako haserretzea eta beste bat, arras diferentea, ez adierazpenaz, baik eta pentsamendu beraz harritzea. Azken horixe bait da, ene uste apalean, egun hauetan Buesaren kontra —eta ustez euskararen alde— aritu diren gehienek erakutsi dutena. Bandersek —don Luisek— bezala, estatistiketan gehiegi sinesten dutelako behar bada.

Zer inkestek dioten bezala “haurrek euskara ikas dezatela nahitaezkoa izan behar duela” esakundearen aurrean herriartarren %79a ados balego Buesak ez bait luke bere pentsamendu, kasu horretan bitxia, arraroa alegia, azalduko, eta, are gehiago, ez litzateke, neurri batean behintzat, botoen indarrez, dagoen lekuan egongo.

Esan du Lourdes Oñederrak —enmarkatu egin dut *El Mundo*-n ateratzen zioten erretratoa— “*Hay reticencias más o menos pasivas y auténticos rechazos a la euskaldunización por parte de profesores y alumnos. En realidad esta situación es el reflejo de lo que está pasando en la calle y en Vitoria... .. creo que se ha perdido la pasión del principio. En la sociedad se han abierto una serie de argumentos que influyen en los alumnos*”, etab., etab.

Badakigu, gazteek euskara gutxi edo gehiago badakitelarik ere —gehiengoa B edo D eruedetan ikasiak direnez— ez dutela apenas erabiltzen eta, kantatu behintzat, nahiago dutela ingelesez egitea. Egia da, bestalde, ez dela Axularrena, erabiltzen dutenean, erabiltzen dutena.

Auskalo inkestek zer dioten, baina okindegian entzuten dudanagatik dakit nik. Aitorrek adibidez, momentu honetan bere amaren gona ertzetik tiraka ari den mutikoak, —ama quierrona flauta— ez dakit nola bete dezakeen irakurtzen eta idazten ikasteko eskakizun minimoa, haren ahalegina —umea-ri: Aitor euskaraz; albokoari: me tiene harta, te juro—, agian, uste baino estimagarriagoa bada ere.

— Nahi det una flauta.

Ez dira hobeto, eta ezta erraztasun haundiagoz ere, espre-satzen ETBko mahainguruetan azaldu ohi diren katedratiko, pianista, deportista, politiko, euskaltzain eta ekologista asko, euskaraz ari direnean noski, normalean gazteleraz iharduten bait du hemen jendeak: gazteleraz egin izan ditu ETAk komu-nikatuak, gazteleraz interrogatzen ditu Ertzaintzak ETAkideak, eta auzitegietan itzultzailea eskatzen dutenak ez dira ari bere buruak errazago defenditzearren, euskara erantzun gisa era-biltzeak duen balio sinbolikoagatik baizik.□

NEW YORK MANHATTAN GABE

Berez, gehienetan motibo gehigarriren bat izan ohi da komu-nikatze arruntaren gainetik edo azpitik euskara erabiltzen dugunean. Nik neuk, adibidez, badakit ogisaltzaileak denda barrenetik madalena egin berriak ematen badizkit —ilara bihu-rritu eta kea dariola jarri ohi da— ahal dudan modu atsegi-nenean eta, batez ere, euskaraz eskatzen dizkiodalako dela.

Deia eta *libra* erdiko barra besapean daramatzen gizon anteojudun horrek nerekin komunikatu ahal izateko ez dit hitz egiten. Urteak dira elkar ezagutzen dugula. *Agur, agur Ramon* esaten dit bizkarrean maitekor jotzen naularik besoak luze mantenduz, ordea, *agur, agur Ramon* urrun mantendu nahi banindu bezala esaten dit, ziur aski eguraldi txarra datorrela esateko zailtasuna duelako —denbora txarra egingo mmmm un lio agur agur Ramon—, eta euskalzaletzat naukanez, nahiago du “euskarazko” komunikatze intentsoari eutsi, erretorikaren

mesedetan, badirudi Galiziatik euria datorrela esateko, gaztelera erabili baino.

Guztiok izango ditugula pentsatzen dut estilo honetako esperientzia irrigarriak batzuk, tristeak asko, eta mereziko luke zehazki zirkustantzia bakoitza aztertzea Hizkuntz Politikakoek atera ditzaketen ondorioez gainera geure kondukta-kodigo pertsonalak ahalik eta modu arrazonagarrienean defini ditzagun: noiz transigitu, non exigitu, nola irakatsi, zenbat barkatu.

Edozein modutan gabeziak ezkutatzea ez da komeni, ez bait da falta erreparatu eta gaizki interpreta ditzakeenik. Dударik gabe ataka larrian aurkitzen da euskara, arrazoi ekonomiko, politiko eta sozialen eraginez, noski, baina konbentziturik nago, eta barkatuko al dit irakurle ilustratuak ausardia, erabat bigarren mailan izan arren, hizkuntzaren faktore intrintsekoek ere badutela parte.

Alferrik da ukatzeko hitz jolasak diruditen argudioei bueltak ematea Xabier Kintanak, argitasunez, mutil argia bait da Kintana, sarritan egin ohi duen bezala. Azkena: euskara gaztelera eta frantsesetik oso desberdina delako gertatzen bada ikasten zaila, nola demontre ikasten dugu hain erraz euskaldunok frantsesa edo gaztelera? Ez dakit nik argudio horri teknikoki sofisma esaten ez ote zaion, baina edozein modutan ez dut uste inor euskara ikastera animatzeko haina eman dezakeenik.

Gure aberrikide erdaldunak zerbaitetaz konbentzitu beharrean bagaude, euskararen dimentsio politiko eta kulturalaz da. Hizkuntza bat baino gehiago dela esan behar zaie, gure nazio-eraikuntzarako gakoa ez bada, euskarri garrantzitsuenetakoa da. Ea modu onean insistituz sinesten diguten.

Dena den gauza bat dago argi beste Juaristik, Felipek, esaten duen bezala, euskararik gabe ere Euskalerrriak Euskalerrria izaten jarraituko lukeela, baina hori bai, pobreago eta antzuago. Felipe Juaristiri belarriak moztuko balizkiote bezala, Felipe bai, baina belarrimotza. □

ARTEA

JESUS GIL MASSA

XIX. MENDEKO PINTURA ESPAINIARRA BILBON

XVII. mendean Espainiak ezagutzen duen aberastasun piktoriko apartaren ostean, orain bizi dugun “urrezko gizaldi” berri hau iritsi arteraino —halakotzat hartzen da, behintzat, sarri askotan— bi mendetako etenaldi luzea garatu zen, pintura eskasa eta goibel samarrekoa ia, Goyaren figura eztabai-daezina baina ez beti behar bezain handietsia eman zuena soilik. XVIII. mendeari dagokionez, kanpotarrek bete zuten hutsune piktorikoa azpimarratu izan da, XIX. mendeko pintura, kronologikoki Goya eta Picasso bezalako maisu bikainen artean kokatuta egotean, bidegabeki ahaztua izan den bitartean. Horrek, hain zuzen, eman dio izena joan den urtearen bukaeralean Milanen aurkeztu zen erakusketari (“La pittura spagnola dell’Ottocento. Da Goya a Picasso”), Estatuko hainbat hiritan zehar bideari ekin baino lehenago Bilboko Arte Ederretako Museoa zabaldua izan denaren oinarri ere bihurtu den erakusketari, alegia.

Pintura hau ahazmenduan utzi izanaren arrazoia, ordea, ez da bere urritasunean bilatu behar; lokal zein probintzi mailako edozein museotan, baita erakunde publiko anitzetan ere, berehala aspergarritzat jo ohi diren hainbat obra historizista zein erretratu desberdinak aurki daitezke. Bada, aldiz, beste arrazoirik: Espainiako panorama piktorikoaren konplexutasunak, mende honetako egoera politiko bereziari lotu-lotua, zaila egiten du ondare guzti hau sailkatu eta, beraz, era ordenatu eta, esan dezagun, didaktiko batez, zabaldu ahal izatea.

Konplexutasun hori ederki isladatuta dago aipatu erakusketan, une eta joera bakoitzaren obrarik errepresentagarrienak, modu arretatsu eta ordenatuaz hautatuak, hortxe bait daude ikusgai, hasi mende hasierako neoklasizismoaren pintura ofizialistik Kataluniako modernismoaren garaipenera iritsi arte.

Bi mutur horien artean oso ikuspegi zabal eta joria garatzen da, aipagarri direlarik, besteak beste, Leonardo Alenza edo Eugenio Lucas goyazalearen erromantizismo herrizalea, Domínguez Bécquer anaien kostunbrismo sevillarra, Carlos de Haesen paisaje goxoak edo Madrazoren erretratu apartak, mende honetako historia inguruan hain maitekiro lantzen den pintura ahaztu gabe. Joera inpresionisten egokitzapena begibistakoa da Aureliano de Berueteren lanetan; baita Sorolla edo beti atsegina den Regoyosen obretan ere. Azken honek, Rusiñol modernistarekin edo Zuloaga arras pertsonalarekin batera, Espainiako pintura Europako panorama pikturikoan sartzea ekarriko du.

Bilbon aurkeztutakoak inoiz ez bezalako maila ekarri du oraingoan, eta ez bertan bildu denak kalitatea duelako soilik, Espainiako pinturaren aldi hain ezezagun hori ezaguterazteko pausu garrantzitsua ere gertatu da, ia lehenengo aldiz garai hori onetsi eta baloratzeko aukera publikoari eman diolarik, gainera. □

“GUERNICA”: BETIKO EZTABAIDA

Nekez imajina zezakeen Picassok duela 55 urte eskuartean zeukan obra historian zeharreko lanik mitifikatuenetako bat bilaka zitekeenik, txalo zein eztabaidarako iturri izango zenik, edota makina bat azterketatarako eta iskanbila gehiagorako izo gertatuko zenik. Obra hau 1981eko irailaren 10ean ailegatu zen lehen aldiz Espainiara, Amerikan erbestaldi luzea jasan eta gero; 1937an Parisen ospaturiko Erakusketa Unibertsalean espainiar Errepublikaren Pabiloiaren barruan izan ondoren, Noruegan eta Ingalaterran izan zen erakutsia, eta 1939an New Yorkeko Arte Modernoko Museoan gelditu zen. Handik atera, 1955-56. urteetan bakarrik egin zuen, funtsean Europa baka-riek hartuko zuen ibilaldia egiteko.

Koadroa Espainiara itzultzeko baldintzak artistak berak jarri zituen, alegia, erregimen demokratiko bat ezarria izatea eta koadroa El Prado Museoan kokatzea. Hasieran bi baldintzak bete direlarik, polemika berri bat piztu da orain “Guernica” Madrilgo Reina Sofia Arte Zentrura eramatea proposatu denean lehenik eta hala erabakia izan denean gero.

Bi dira horren arrazoi nagusiak: artistak jarritako baldintzak, batetik, eta obrak daukan izaera enblematikoa, bestetik.

Lehenengoari dagokionez, bidezkoa litzateke artistaren borondatea zenbateraino errespetatu behar duen estatuak, enkargatua eta ordaindua izan den obra batengatik, nork bere buruari galdetzea. Ordaina jaso al zuen benetan Picassok? Egin dezagun historia apur bat. Horretarako Fernando Martínek idatzitako liburua erabiliko dugu, “El Pabellón español en la Exposición Universal de París en 1937” deritzana (Sevilla, 1982). Ugariak dira Picassok murala egiteagatik ezer kobratu ez zuela dioten bertsio eta testigantzak, eta ez dirudi hori gezurra denik, zehazteak merezi badu ere. Garai hartan, artista nolabaiteko eskasian ari zen bizitzen dibortzio batek eraginda, eta ez zeukan ez ondasun higiezinik ez pabiloirako egin behar zuen lanari egokiro heltzeko estudiorik ere. Pabiloiaren Kultur Harremanetarako Batzordearen kide zen Juan Larreak eskua sartu zuen orduan eta baita gestionatu ere, Errepublikaren Gobernuak XVII. mendeko jauregi bat Paris erdian erosi eta Picassorentzako estudio gisa birgaitu zezan, estudioa, bestalde, Picassok jabe antzera erabili zuena eta bere lanaren ordain edo bihurtu zena. Halabaina, Javier Tusselek, New Yorketik ekarria izan zen unean Arte Ederretako Zuzendari Nagusi gisa ari zenak, aditzera ematen du Picassok, “Guernica”z gain, apunte eta bozeto sorta bat ere utzi zuela bere emaria aberastuz; arrazoi nahikoa litzateke hori, bere ustez, multzo guzti hori 1981ean eman zitzaion lekutik ez mugitzeko. Ministraritzak zentzu horretan agertzen duen jarrera argi eta garbia da, alegia, koadroaren jabetza estatuak daukala eta ez dagoela inongo arrazoi juridikorik leku-aldatzea galerazteko. Esan beharra dago, hala ere, zuhurtasunez jokatu dela El Prado Museoa obraren jabetza izaten jarrai dezan eta begirunea erakutsi dela, halaber, senideei galdetzerakoan.

Polemikaren azalezko alderdiak dira orain arte ikusi ditugunak, alde ala aurka agertzeko arrazoiak nahaspilatsuagoak dira eta. Alde batetik, eta Solé Turak adierazi duen bezala, gauza da Estatuak museoen politika arrazionaldu behar duela, eta “Guernicak”, XX. mendeko espaniar abangoardiako artea ondoen sinbolizatzen duen obrak, Arte Garaikidearen Museo

baten buruan behar du egon, horixe bait litzateke irtenbiderik logikoena (honek ez du esan nahi, hala ere, museo hori Reina Sofiak izan behar duenik, Ministraritzak hala erabaki badu ere).

Honek, aldiz, haserrearekin eta tirabirak sortera zuten dituzten, begi-bistakoa bait da, izan ere, administrazio zentralak darabilen politika museistikoa —eta kulturala oro har— guztien onespenean nekez jaso dezakeen zentralismoan oinarritzen dela (hortxe daude, esaterako, erakusketa ibiltari eskasak, museo periferikoetarako eskaintzen den arreta eta diru urriak, etab.). “Guer-nica”ren izaera enblematikoa ez da XX. mendeko espainiar pinturak eman duen obrarik onena izatera mugatzen, bere egilearen maisu-lana ere bada, eta Bartzelona, museo monografikoa bere altzoan duela, oso kokapen egokia izan liteke.

Eta zer esan daiteke Gernikari buruz? Koadroa 1981az geroztik bertan izan balitz, aukera ederra zatekeen Arte Garaikidearen Museo bat sortzeko, Guggenheim fundaziora jo behar izan gabe.

Koadroak ez du izaera narratiborik, hots, ez du Gernikan izandako hondamena edo bertan bizitza galdu zutenak erretratatzeko asmorik. Sakonera joanez gero, gerraren aurkako alegatu bihurtzen da, iluntasun eta basakeriaren aurkako alegatu. Baina honek ez digu ahazterazi behar bere azken esanahiaz baino harantzago (autore askorentzat eztabadagai oraindik) 1937ko apirilaren 26ko gertakizunak izan zirela “Guer-nica” koadroaren jaiotza eragin zutenak.

Ongi etorriko zaigu historia apur bat egitea eta, azaletik bada ere, koadroaren ernalketa-prozesua nolako izan zen gogora ekartzea. Espainiar Errepublikak 1937ko Erakusketa Unibertsalean parte hartuko zuela erabakita zegoelarik, autonomiak ere bertara joateko gaia planteatu zen, eta hasiera batean hiru eraikin altxatzeko aukera aztertu bazen ere, azkenean bat bakarra, baina hiru sekzio —Estatua, Euskadi eta Katalunia— izango zituen egiteko akordioa hartu zen; hiru izan ziren, beraz, komisarioak, euskal ordezkariak txikiaren buruan izatearen ohorea J.M. Uzelairi gain gelditu zelarik (gogora dezagun Mola Generala Ipar Frontearen gainbeherakada lortzen ari zela une haietan).

Pabiloiaren ateak maiatzaren 25erako zabaldu nahi ziren, eta jadanik urtarrilean mural bat egiteko zegoen eskatuta Picasso; honek baiezkoa eman zion enkarguari baina ez zion obrari hasiera eman. Horrela zeuden gauzak Gernikako bonbardaketa gertatu zenean; berriz ere, Juan Larrea-ren portaera azpimarratu beharra dago, Picassori bonbardaketaren berri eman ez ezik, muralaren gaia hori izan zitekeela ere adierazi bait zion.

Gertakari horien aurrean, Espainiako pabiloia osatzen zutenetako batzuk, Euskadiko ordezkariak alegia, ezin zitekeen ezaxolati gelditu, eta Uzelaik eta euskal ordezkariaren beste zenbait partaidek, muralaren gaia Gernika izango zenez, euskal pintore bat izatea lan horren ardura hartuko zuena proposatu zioten Euskadiko Gobernuari. Horretarako Aurelio Arteta-ren iradiala onartu zen, eta honek, Picassorekiko zuen mirespenagatik eta arrazoi pertsonalengatik, ezezkoa eman zuen hasiera batean. Berriz eskatu behar zitzaionean, ordea, ustegabeen agertutako arazoei bere parte hartzea birplantatzen eraman zuten Euskadiko Gobernuak: alde batetik, ezohizko gastu bati egin behar zion aurre Bilboko Museoaren arte-lanak gordetzen zituzten kutxa batzuen aseguroagatik, oker batez bitxiak, balio bankario eta diru gisa etiketatuak izanak ziren eta; bestalde, Frantzia errefuxiatuak zeuden 150.000 pertsona baino gehiagoren beharrak bete behar zituen eta hospitale baten beharrean ere bazegoen; hitz gutxitan esanda, diru-premia zeukan, Errepublikako Gobernuak Picassoren prestigioa behar zuen bitartean, zeren eta Haziendako Ministerioak Juan Negrinek baieztatu zuen bezala “Errepublikaren propagandari begira, Picassok pintaturiko murala han egotea frontean garaipean militar bat lortzea bezalakoa da”. Guzti hau bi Gobernuen artean lortutako akordioaz erabaki zen, alegia, Errepublikar Gobernuak Picasso autore gisa onartua izatea lortzen zuen, eta Euskadikoak hain premiazkoa zuen dirua eskuratzen. Euskadiko ordezkariak etengabe egon zen harremanetan Picassoren obra egiten zuen bitartean, eta nahiz eta aurretik pentsatutako lekuan kokatuta egon (bere zabalera haundia zela eta beheko solairuan jartzea erabaki zen), euskal sekzioaren parte izanik izan zen aurkeztua.

Guzti honek agerian uzten du “Guernica” koadroa Gerni-karako beti eskatze hori ez dela sentimentalismo hutsean oinarritzen. Eta “Guernica”, Gobernuak hala erabakitzen duelako, Madrilen gelditzen baldin bada behin-betirako, mesedez, ez dezala inork, euskal politiko batek hala eskatu arren, bere izena aldatu. □

EZADOSTASUNAREN MAHAIA

Ondare historiko-artistikoa jokuan dagoenean, denetatik gerta daiteke, baita anekdotarik zentzugabekoenak ere. Ataungo mahaiarekin gertatutakoa adibide bikaina dugu. Gauzak honela joan ziren gutxi gorabehera: Juan San Martinek XVII. mende hasierakoa den intxaurkizko mahai bat aurkitzen du Ataungo Udaletxearen ganbara batean, eta bere interesa agertzen du h a r e k i k o ; Udal Batzarrak, Herri Batasuna aurka delarik, Arartekoaren eskuetan jartzeko erabakia hartzen du zaharberritu eta depositu gisa erakunde horretan gera dadin; HBko zinegotziek mahaia kateatu eta haltzaria lekuz aldatua izatea galarazten dute orduan. Hortik aurrera era guztietako esamesak sortzen dira zorioneko haltzaria ganbaratzeko ideia zeinek hartu zuen edo zeinek gordetzen zuen beste gauza batzuen ondoan jakin asmoz.

Txalagarria da benetan ondare historiko-artistikoa gordetzeko tokian-tokiko agintariak erakusten duten interesa ikustea. Bi jarrerak, biak, dira laudagarri. Batetik, Udal Korporazioak haltzaria zaindu nahi du eraberritua izan eta beste erabilgarritasun bat eta ganbarakoa ez den beste kokapen hobea emanak izan dakizkion; pieza salbatzea da garrantzizkoena, nahiz eta horretarako udalerritik atera behar izan (mailegu gisa bada ere); HBko zinegotziek, bestalde, Ataungo ondareak udalerrian jarraitzea nahi dute bertako historiaren lekuko bat ez galtzearen. Denboraren poderioz, mahaiak albiste izateari utzi dio, eta oso litekeena da eraberritua izan ondoren leku bat hartzea Udaletxean, hori bai, ohorezko leku bat.

Pozik ginateteke era horretako gertaerak sarriagotan gertatuko balira baina ekintza sinboliko eta testimonial hutsa gaintutuz;

pozik ginateke gure ondare historiko-artistikoa (egunez egun gutxiago eta okerrago tratatua) ezagutu, baloratu eta gorde egin beharra dagoela denok ohartuko bagina; pozik ginateke gertaera hau beste lekuetara zabalduko balitz, baina ez mahai baten inguruko enfrentamendu gisa ulertuz (XVII. mende-mendekoa izan arren), azken finean enfrentamendu politiko baten alderdi anekdotiko bihurtzen bait da, seriotasunez baizik. □

ZORIONAK MATTA

Roberto Sebastián Matta Etxaurren, Parisen bizi den txiletar artista honek, bere burua euskaldun transnazonaltzat eta euskaldunen ondorengo gisa definitu duenak, 1992ko Artee-tako Asturias Printze-Saria jaso du. Epaimahaiak artista poli-fazetiko honen bizitza eta ibilbide artistiko oso bat jakin du saritzen; bere larogei urteetan surrealismora bizirik hurbiltzen bagaitu ere, bere obrak abangoardia hori gainditzen du 50eko hamarkadan modernitate berri baten hasiera ezarri ez ezik aitzindaritza artistikoa Europatik Ameriketara joatea ere dakarren mugimenduarekin uztartzeko, garrantzi handiko rola jokatu bait zuen, izan ere, André Massonekin batera, “action painting” delakoaren gestazio-bidean.

Miro edo Tanguyren gandik Dalí edo Delvauxerengandik baino hurbilago dagoelarik, Mattaren obra surrealismoaren korronte automatistaren barruan izan da sailkatua. Bere sortze-lanak, ordea, oso automatismo kontrolatua adierazten du pintura sortera duten indarren aurrean guda kontzientea galdu gabe; bere pintura, horrela, ez da hain literala gertatzen inkontzientetik dariona errepresentatzerakoan, bai ordea irudikorragoa, elementu inkontzientez osaturiko amalgama bat elementu fisiko, tekniko eta zientifikoekin txertatzen dituelarik.

Mattaren obrak duen garrantzia ez da 50eko hamarkadako amerikar pintoreen belaunaldi berrian bakarrik bilatu behar (Arshile Gorky eta Robert Motherwellen adiskide eta mentore izan zen), baita Europako pintura signikoan ere, zeren eta bigarren Gerra Mundialaren ostean, eta iparamerikar gizar-

tean nagusitzen zen lehiakeriaz gogaiturik edo, Matta Europara itzultzen bait da harrez gero bertan lan egiteko.

Mattak eratzen duen kosmosean espazio bat sortzea garrantzi handiko elementua da (ez dezagun ahaztu arkitektoa ere badela). Bertan, naturaren presentzia gizakia eta makina elkar lotzen dituzten pertsonaia nolabait mutanteak erre-presentatuz gelditzen da agerian, gestualitate kontrolatu bat dela medio. Mattak unibertso ikuskor berri bat eskaintzen digu gozatzeko. Eskerrik asko horregatik eta zorionak. □

Euskaratzailea:

ZIENTZIA

INAKI IRAZABALBEITIA

JUAN MARI BECERRA

GALES BAT EUSKAL HERRIAN

Joan den maiatzaren lehen astean bisitari oso interesgarria izan dugu gure artean. Iolo ap Gwynn deritzo, Iolo Gwynnen semea alegia. Biologoa da bera eta izenak dioen legez, Galestik etorri zen. Helburu nagusi batekin jin zen gugana, zientziarنالorrean euskara zein neurritaraino erabiltzen den eta zein egoeratan dagoen ezagutzera. Ez zen horretan baka-rrik gelditu bisita, Iolok Galeseko hizkuntz egoera, historia eta esperientziak azaldu bait zituen Leioako Zientzi Fakultatean emaniko hiru hitzaldietan eta euskal kulturaren zenbait ordezkarekin izandako solasaldietan.

Gauza eta esperientzia interesgarriak azaldu zizkigun, bai ikusentzunezkoen munduan galeseraz egiten dutenari buruz,

baita Galeseko Zientzi Akademiari buruz ere. Bidenabar, akademia horrek galereseraz baino ez du egiten.

Bestetik, Iolo gure herrian zientziaren eremuan euskarak duen erabilpenaz oso inpresionaturik gelditu zen, beraiek askoz egoera txarragoan daude eta. Gainera, interes eta jakinmin handia agertu zuen *Elhuyar. Zientzia eta Teknika*. aldizkariari buruz. Berak geurtz, *Y Gwyddonydd* Galeserazko zientzi lauhibetekaria zuzendu behar duelako, seguruenik.

Hala eta guztiz ere, bisita honen inguruan zapore mingots zantzu batzuk gelditu zaizkit. Izan ere, oso oihartzun txikerra izan du. Euskal komunikabideek ez diote, Euskadi Irratiak izan ezik, Iolo ap Gwynn-en bisitari jaramonik ere egin, nahiz eta horietako garrantzitsuenak jakinaren gainean izan. Deitoragarria erabatekoa iruditzen zait lolok esandakoak euskal herritarrengana ezin ailegatu izana. Kontutan hartu behar dugu Euskal Herriko eta Galeseko egoera soziolinguistikoa oso antzekoak direla, hiztun-kopuruari zein portzentaiari, eta gainera, biok gurekin zerikusirik ez duten bi erdara handiekin egin behar dugula borroka.

Euskal Herrian nahikotxo ezagutzen da Irlandako, Quebec-eko edo Kataluniako egoera historiko zein soziolinguistikoa eta jakina, herri horien hizkuntz egoera eta gurea ez dira konparagarriak. Bestetik, gure egoeran edo dauden batzuk arrotz eta urrun gertatzen zaizkigu, nahiz eta 1.000 km eskasera egon. Beraz, ene aburuz, beste norbaiti begiratzea, Galesko herriari esaterako, oso onuragarria gerta lekiguke. □

ZIENTZIA ETA HUMANISMOA

Euskal Herriko Unibertsitateak Rufus H. Ritchie eta Günther Kaiser irakasleak *Doctor Honoris Causa* izendatzearen inguruan buruturiko ekitaldien artean, mahainguru bat burutu zen Donostian *Zientzia eta humanismoa* izenburukoa. Bertan, Pedro Migel Etxenike fisikaria moderatzaile zelarik, Fernando Flores eta Alberto Galindo fisikariak eta Beristain eta Eugenio

R. Zaffaroni juristak aritu ziren hizlari moduan. Gaia interesatzen zitzaidanez gero, hara bildu nintzen ni.

Entzundakoa, hizlariak esandakoa zein entzuleok botatakoa, aberatsa eta oparoa izan zen. Norberak esan zuena aipatzea ez da nere asmoa, giroan somatu nuena baizik.

Zientzilariak eta humanistak elkartzen diren honelako eztabaida gehientsuenetan legez, bi mundu edo ikuspegi zeudela ikusi zen berehala; zientzilariak alde batetik, eta humanistak bestetik, nahiz eta mugak betiere horren zehatz eta definituak izan ez.

Eztabaidak, zati handi batean, entzuleek esandakoan bereziki, ikerketak mugarik behar ote duen ala ez izan zuen mintzagai. Humanista batzuk muga jartzearen alde edo agertu ziren, egun genetikan egiten diren ikerketak aipatzen zituzten bereziki arriskutsu eta kontrolak jarri beharreko modukoak. Zientziarekiko beldurra edo prebentzioa bederen ikusi zen. Pentsatzekoa denez, zientzilariak ez ziren ados agertu, nahiz eta zenbait ikerketa-eremuen arriskua benetakoa dela onartu eta norberak, ikerlariak alegia, jarri behar dituela muga horiek esan. Bestetik, zientzilariak zientzia oro har neutroa dela, erabilpena dela gaiztoa ala ona, defendatu zuten.

Nik, oro har, ikerketari etikak markatzen dituenetatik landa ez zaiola mugarik jarri behar uste dut. Horrelaxe egin da orain arte eta gure inguruari so egiten badiogu, gehienetan onerako izan dela onartu behar dugu. Guk nolako bizi-kalitatea (osasuna, elikadura, bizi-iraupena, etab.) daukagun eta gure berraitonek nolakoa zuten kontutan hartzea baino ez dago. Alderdi txarrak izan dituela (poluzioa, etab.) jakina, baina horiek minimizatu egin behar dira eta hori zientzia eta teknologiaren bidez jadetsiko dugu.

Alabaina, zientzia eta teknologiak gizartearen arazo guztiak konponduko dituztenik ez dut esan gura. Zientzia eta teknologia jainkotzea eta arazo guztien konponbidea dutela pentsatze soilak, oilo-ipurdia jartzen dit. Tamalez, gure gizartean hori gerta daitekeenaren zenbait seinale ikus daitezke eta horrek zientziarekiko beldurrak baino gehiago kezkatzen nau.

Horren kausa nagusia, zientzilarien eta gizartearen artean dagoen komunikazio txikia da ene iritziz. Sarritan, zientzilariak beren munduan ixten dira, beren jerga ulertezina erabiltzen dute eta jendeari egiten dihardutena azaltzen ez dakite. Ondorioz, zientzilarien lana gauza misteriotsu eta ulertezin moduan, fede-osagai handia duena, dager, erlijio moduan hain zuzen ere. Irudizko adibide bat jartzearren, pulpitotik latinez diharduen apaiza dirudikete.

Hortan dago nik uste, zientzilarien erronketako bat, egiten diharduguna gizarteari modu erraz eta ulergarri komunikatzen ikastea, eta bestea, gizartearen bi multzo horien artean zubiak eraikitzea. Zientzilaria eta zientzia agizkoak, egunerokoak izan daitezten lortu behar da eta horrela, beldurrak eta jainkotzeak bazter geldituko lirateke.□

LABORATEGIKO ANIMALIAK

Laborategiko animaliei buruzko eztabaida, ikerketan animaliak erabili behar diren ala ez hain zuzen ere, duela makinatxo bat urte piztu zen lurralde anglosaxoniarretan eta horren lekuko, animalien ganako krudelkeria salatzeke eta borrokatzeke dauden erakunde-mordoa da. Gure artean, eztabaida horrek kaskoak askorik berotzen dituenik ez zait iruditzen.

Dena den, *New Scientist* zientzi astekari britainiarrean gaiari buruzko eztabaida zabaldu dute azken aleotan. Hona jarraian, gaiari buruz argitaratu diren artikulutako biren zati batzuk erakusgarri moduan.

Hona zer dioen Londreseko *University College*-ko Patrick Wall anatomi irakasleak:

“Animali bidezko esperimenduak bultzatzen dituztenen zen - bait argudioekin eta oposizioarekin modu berean sentitzen dut nere burua deseroso. 1990ean Zientziaren Aurreramendurako Britainiar Elkarteak animalia bidezko esperimenduak babesteko eginiko deklarazioak, borondaterik onenarekin gaizki joka daitekeen adibide egokia da. Deklarazioa, animaliak ikerketa medikoan erabiltzeari buruzkoa baino ez da eta gauza bera hiru

bider adierazten du: animalia bidezko ikerketa biziak salbatu, salbatzen eta salbatuko ditu. Hori da animalia bidezko ikerketa justifikatzeko emaniko arrazoi bakarra...

... Deklarazioa bera tranpa bat da. Egungo izpirituaren kume da eta "balioa" merkatuaren funtzio moduan baino ez du ematen...

... Azkeneko 25 urtetan, minaren mekanismoen ulerpidean iraultza gertatu da. Animalia bidezko ikerketaren ondorio izan da...

... Iraultza horrekin eta terapia berriak sortu dituztenekin erlazio estua izateaz berealdiko satisfazioa daukat. Gure lanek, animalia bidezko esperimentuak justifikatzeko balio dezakete, ezagutza baliagarriak eman dizkigutelako. Alabaina, nik ohore hori baztertuko nuke eta horretan aritutako beste zientzilariek gauza bera egingo luketela uste dut...

... Antza, bibisekzioaren kontrako mugimenduaren sorreraren zati bat urdailean dago. Erasoak antzeko kontraeraso biserala eragingo luke "Zuk baino gehiago dakit" edo "Ez badidazu lan egiten uzten HIESaz edo minbiziak hilko zara." Animalia ikerketaren kontrako talde emozionalez, batzuetan hondatzailez, gain RSPCAko, Animalia Esperimentuen Erreformarako Batzordeko eta Animalia Esperimentuen Ordezkapenerako Fondoko kideak hor daude eta horiek animalien ongizateaz arduratzen dira honelako galdera zentzudunak eginez: Animalien bizitokiak egozkiak al dira? Zure galdera arraposteko zenbat animalia behar dituzu? LD₅₀ toxizitate-testak (tratatutako animalien erdia hiltzen duen dosia bilatzen duenak) zure galderari erantzunik ematen al dio? Jende horrek animalia esperimentazioaren arrazoizko justifikazioa behar du...

... Eztabaidarako foruma behar dugu. Horrexegatik, australiarrek egin duten legez, batzorde etikoak edo osatuko nituzke..."

RSPCAko Sheila Silcock-ek hau dio besteak beste:

"Ezagutzaren mugak zabaltzea (norabide ezagunik gabe) sakrosantua da mendebaldeko kulturaren. Britainiako 1986ko Animalia Aktaren arabera "Biologian eta jokamoldearen zientzian ezagutza zabaltzea" animalia esperimentuak egiteko helburu zilegia da. Baina, zein irizpidek mugatzen du "ezagutu behar"

hori eta ondorioz, animalia bidezko esperimenduak egin beharra?...

... Zientzi literaturatik hartutako zenbait adibidek, zenbait ikerketa-lerroen "premiaz" galderak planteatzen dituzte...

... Premia-kontzeptua tokiz toki eta urtez urte aldatzen da gainera....

... Animalia bidezko esperimenduak giza iharduera zenbaiten, itsas sakoneko lentan aritzearen, tunel sakonetan lan egitearen edo espazioan bidaiatzearen arriskuak aurrikusteko edo tratatzeko beharrezko bezala ikusten dira...

... Esperimendu frantses batek arratoiak hamalau egunez isatsetik zintzilikatzea proposatzen zuen pisu-ezaren ondorioak aztertzeko. Esperimendu horien premiaren zentzua delibermendu hauek egitearen ondorio zuzena da: Ipar Itsasotik petrolioa erauztea, Kanaleko tunela egitea eta eguzki-sistema esploratzearen ondorio...

... Animalia bidezko esperimenduak gerarazi nahi dituztenek arrazoi etikoak dituzte batez ere eta balio gabetzat jotzen dituzte haiek. Baina, erdibidean daudenek, animalien ongizatearekin arduratuta daudenek, bereizten dituzte HIESaren kontrako txertoa bilatzeko egin beharreko animalia bidezko esperimenduak

IKUSKIZUNAK

BEGOÑA DEL TESO

eta esaterako, opiazeo naturalek animalien oldargarritasunean duten eragina jakiteko egiten direnak. Askok uste dute, animalia bidezko esperimenduari mugak jarri behar zaizkiola ahalik eta neurririk handienean, beste bide batzuk erabiliz, esperimenduarien diseinu hobek eginez edo (herejia!) esperimendurik ez eginenez..."

Zer uste duzu zuk? □

ERICE ETA ANTONIO LOPEZ, MENBRILONDO BATEN AURREAN KOSTA
URDINEAN

Antonio López pintorea, Victor Erice zinegilea, María Moreno, artistaren emaztea. Hiruen artean egitasmo zail eta arriskutsua burutu zuten: zineak, kamararen bitartez, pinturak argiaz egi-ten duen bilaketa bera egitea, jasotzea. Esperimentu hutsa. Madrilgo patio batean. Mihise zuria. Aldamenean, menbrilon-
doa. Goian, urriko zero nabarrean, eguzki jostalaria. Antonio López-ek horixe pintatu nahi du baina izpiek, kuriketan ihar-
dungo dute margolariarekin. Bitartean, frutuak, apurka-apurka, garatu egingo dira koadroaren neurri guztiak hankaz gora jarritz. Kamara hor dago, zelatan eta inbidiaz.

Esan, “El espíritu de la colmena”ren egileak esana da, zinea-
ren eta irudiaren lengoia, hain gaztea izanda ere, izugarri zaharkitu dela, aldiak bata bestearen atzetik, gosez eta egarriz agortuz. Berak azpimarratua da honako esaldi hau: “Inbidia diot p i n t o r e a r i . Gizakumearen begia zoragarria da. Eskuak ere bai. Pintura Kulturaren eta Gizateriaren hastapen eta oinarrietan e r r o t z e n da. Antonio ni baino hurbilago dago Altamirako gizo-
narengandik. Zineak, berriz, ehun urte besterik ez badu ere, gainbeheraren hizkuntza darabil, nere ustez.”

Antonio López-ek berak honakoa eransten duelarik: “Kon-
tua zera da: zinea gizakia zaharra, oso zaharra zenean jaio zen”. Victor bat dator uste honekin eta honela dio: “Mugi-
mendua duen irudia trebea eta abila da itzaltzen doana biltzean b e r e z i k i . Dagoen gauzarik hauskorrena, iheskorrena, denbora, alegia, harrapatzen du harro.”

Bai Antonio eta baita Erice ere, arras ezinezkoa den/diru-
dien abentura batean murgiltzen dira. Pintoreak jakin badaki ez duela inoiz ere menbrilondoaren garapena mihisean isla-
datuko, eguzkiak ez bait dio ordu betez baino gehiagoz ematen. Halere, “bidaiaz gozaten dut nik eta ez helmugaz” aitortuz, egingo du aurrera. Erice, ordea, ohartu da artista baten lana jasotzeko tankera artistikorik erabiltzea alferrikakoa, ezinezkoa, gehiegizkoa dela.

Beraz, zinegilerik garbiena, hasierakoena, primitiboena, erretolika gutxien duena izaten saiatu da gogor eta gogoz. Eredurik? Bai, Jean Renoir. “Erarik egiazkoena, naturalena erabili izan bait zuen mirari hutsa zena adierazteko”. Elkarri begira jarri ditu “El Sur”en sortzaileak zinea eta pintura. Biek, errezeloz lehenik, maitekiro ondoren, besarkatu dute elkar. Esparru berdintsuetan aritzen dira biak. Batak dituen esperantzak, etsipen bihurtzen dira bestearentzat...

Zer-nolakoa da zeluloidezko emaitza? Ba, Cannesen, zine-ikerketa serio eta sakona eskertzen duen saria bereganatu zuen lanaren antzekoa. Argiari buruzko filme hauskorra, geldoa, garbia. Agian, ezkorra bezain alai. Dokumentu eta gezur ilunabarrekkoa. Esperimentu eta ametsa. Malenkoniatsua. Bideoarekin jolasten duena. Zaila ikusteko. Garratza barneratzeko. Ezinbestekoa Arteari darion izpiren bat harrapatzeko. Beharrezkoa irudia nola pintatu, nola filmatu galderari erantzunen bat ematen saiatzen denarentzat.

Ohar pare bat: filme hau bizkaitar batek egina da. Eibartarra den Javier Agirresarobek (“Beltenebros”en egindako lanagatik Goya saria eskuratu zuenak) argitu du. “Igeldo produkzioak” du izena parte hartu duen ekoiztetxeak. Euskal Media elkarte fantasmak ere jarri zuen dirua Erice-ren izen ospetsuak erakarririk... baina, ez pentsa, azken-azken orduan. Eromen eder eta, agian, ikuslegoarentzat, antzu honen ia zama osoa Antonio López-en emazteak eraman du bere gain. Bihoakio txalo beroa. □

ONIK IA EZ ZUEN MAITASUN-ISTORIOA

Koldo Izagirre idazleak maiatzaren 6an aurkeztu zuen jendaurrean zuzendari gisa burutu duen lehen filmea, “Off-eko maitasuna”, Mónica Molina, Patxi Bisquert eta Klara Badiola antzezle direlarik.

Jakin aldizkariaren sail honetan behin eta berriz aipatutako “Todo por la pasta”k, “Vacas”ek eta “Alas de Mariposa”k urraturiko bidesketatik ibiltzen ohitu garenontzat ustekabe ikaragarria izan da Gipuzkoan eta Extremaduran kokatzen

den lan hau. Atzeraka gabiltzala dirudi. Egun, ausardiak, bekokiak eraginiko akats eta okerrak ikustea da normalena, baina ez “Euskal zinea” ditxoso hori hasi zen garaiko okerrekin estropezu egitea.

Emakume bat, Ana, eta gizonezko bi. Bat gartzelan. Bestea zain. Inguruan, herri bat. Amets eta amets txakurrez bilduta dagoen gure hau. Abiapuntua, nola ez, interesgarria (filme guztiak dira interesgarriak paperean). Lastima gauzak kontatzen ez jakitea. Istorioa behin, bitan, hirutan, etengabe hasten da. Gurpil zoroan garamatza. Ez du aurrera egiten. Kamara era itsusi eta itsumustuan mugitzen da. Argizketa-lana lakatza da. Ez du inolako girorik sortzen. Planuketak, ezgauza edozer sortzen du. Oskorri taldearen musika ez da, inondik inora ere, erabilgarria. Maiz hartzen duen protagonismoak kalte baino ez dio egiten irudiari. Muntaiak ere hutsegite galantak ditu... Pena, pena handia da. 150 milioi gastatu dira. Alferrik. Ton-tamentean. Ilusioak mila zatitan hautsirik... Zinearen jokua ez du ezagutzen Koldok. Traizio hutsa izan da. Modu herabeen jokatu du/dute zeluloidearekin eta hori, gaur, hemen, barkaezina da.□

HALERE...

Hemengo ikusleok badugu zertan esperantzarik izan. Enrique Urbizu zuzendaria (“Todo por la pasta”ren egilea) Urnietan eta Gasteizen izan da zine-ikastaro bi ematen. Ikasleen erantzuna ikusirik, honela mintzo zaigu: “Euskadin bada nahikoa adore eta gogo zinean lan egiteko. Jendeak, herriak bultzatuko du zine-industria. Behetik gorantz. Harrobia badugu. Norbaitek bermatu beharko du”. Halere, nahaste-borraste beldurgarri baten prestakuntzan dabilenak beltz ikusten du industria horren geroa: “Kulturak dituen aurrekontuak irrigarriak, higuingarriak dira oso”...

Jende adoretzu horrek urte batzuz sikiera eutsiko balio...□

CANNESETIKO POSTALA

(Maiatzaren zazpian idazten hasia, hamarrean bukatua, hemezortzian orraztu eta apaindua, hemeretziaren bidalia eta auskalo noiz jaso).

“Basic instinct” filmeaz ekin zion Kosta Urdineko Zinemaldiak. Ustezko hiltzailea lesbiana zela eta Estatu Batuetako homosexualen protestak eta kekek alde batera utzirik (zelako tentelkeriak, amatxo maitea, neska bisexuala bezain ilehoria da. Txiripaz, suertez, gidoiak hala agindua) zera aitortu behar: Paul Verhoevenen lana uskeria da. Luxuzko uskeria erotikoa. Hitchcock-en eta zine beltzaren hainbat eta hainbat maisuren dohaina ez duena. Halere, hona datorrenean (izana da Iparraldean; Hegoaldean, berriz, abuztuan izango dugu) baietz Sharon Stone andereñoaz maitemindu. Betirako...

Zine-festa eta azoka hau izugarri zaharkitu da urtebetean. Sail nagusian ez da modernoa zarela erakusteko paradarik izan. Filme klasikoak, aintzinako neurri eta mugetan ondo kokatuak, samurki landuak, eta kitto. Beste sailetan adoretasun eta ausardia handiagoak. Zuzendari gisa dabilzan aktore batzuk, hala nola John Turturro eta “Mac”, Tim Robbins eta “Bob Roberts”, Edward James Olmos eta “American me”. Mila zatitan hausten den Iparramerikaren testigantza ugari, Jonathan Demmeren “Cousin Bobby”, kasu. Hego eta Ertamerikako zinegileak borrokan irmo: “El viaje”, Solanasena. Zelu-loidearen merkatuan Ekialdeko Europa ez da jada existitzen. Txina atera zen ixiltasunera itzuli da eta Afrika dagokion lekua- ren bila dabil lehia bizian.

Eguzkia. Festak. Hondartzak. Beroa. “Ederra eta piztia”, teknologiarik aurreratuena darabilen marrazki bizidunetako marabila. Edozein festibaletan ikusi beharreko zenbait titulu jarraian: “Reservoir dogs”, Querentino izeneko erreboltari bihurri batena. “C’est arrivé pres de chez nous”, komikia, bideoa, filme belgiarra, telebista maltzur bihurtzen duten horietakoa. “Et la vie continue”, Irango artisau malenkoniatsu eta baikorra den Kiarostamirena. “The long day closes”, irudia eta musika laztan ederrez lotzen duen ispilua.

Cannes, hurrengo denboraldiaren zine-eskapatzea. Far-del polita, barrukoa, ordea... Ofizialki, ezer gutxi mugitzen eta mugituko da fotogrametan. Araurik gabeko aretoetan sartuz gero... pilpilean eta borborrean irudiak.□

HOLLYWOODEKO OIHARTZUNA

Bi lerro besterik ez martxoaren 30ean Los Angeleseko zeluloidezko jaun eta andereek izan zuten kopetaz, agerian jarri zutena barrena txalotzeko. “El silencio de los corderos”i bost Oscar emateak hankaz gora jarri zituen alde zurratik eginiko kiniela guztiak. Moderno eta bizkor, kementsu jokatu zuen Akademiak.□

ESZENATEGIAN GELAN BAINO HOBETO

Larru gorritan geratu omen da Euskal Kultura harri-gaitzak —Guggenheimek, alegia— jota, baina oztopo guztiak gaindituz bizirik dirauen herria izaki, biluzik atera gara plazara. Hel-duak (batzuk, jakina) oraindino negarrez eta zotinka, gordelekuan zauriak miazkatzen ari diren bitartean, gaztetxoek hartu dute erreleboa nonnahi. Eibar, Mutriku eta Elgoibarren VIII. Deba Beheko Eskolarteko antzerki-erakusketa izan zen maiztzean. Bertan, inguruko ikastoletako umeak antzesle, idazle eta zenbaitetan arduradun izan ziren. “Iturritzifa”, “Mamuak”, “Buru gogorak”, “Trebeenak”, “Tximista” ziren beraiek a propos jarritako izenak.

Bazuten zer erakutsi franko eta norengandik ikasi. Madrilgo Cambaleo taldea eta Cubako Okan Deniye —txotxongilo erraldoiak darabiltzatenak— ondoan izan ziren. Ustekabean harrapaturiko ikusleak lekuko ikasle-irakasle halakoak! Irunen ere Antzerki Gaztearen saioa zabaldu zen. Burgos, Madril, Lleida, Tarragona, Valladolideko taldeek esku hartu zuten hantxe. Beraz, ez etsi, arren. Etorriko dira garai hobek eta orain tauletan trebatzen ari direnek egingo dute borroka fina Arteak aurrera, plazara, kalera ateratzeko.□

ETB MINEZ

Hamar urte betetzear dagoen Euskal Telebistak adina, suerte txarra eta erabilpen okerraren ajeak nozitu beharko ditu. Izan ere, dagoeneko ari da nozitzen, eta berarekin batera, gu geu. Zurrumurruei kaso eginez gero, bame-produkzio gehiagorik ez du berak sortuko. Dauden saioetako arduradunak Euskal Herriko ekoiztetxeetara hurbildu beharrean izango dira hemendik aurrera. Zertarako? Ba, daukatena haiek ekoiz dezaten eske. ETBk jarriko omen du tresneria baina produktoreek langilegoa eramango dute. Gauzak horrela, Miramonen eta Iurretan egun dihardutenetariko askok kale gorrian bukatuko dute. ETBk, gainera, berak egitekoa zena erosi egin beharko du. Prezio onean, jakina; bestela, akabo. Publizitatearen minak ere tristeak dira. Gero eta diru gutxiago eskatzen bide die irakarkiak jarri nahi dituztenei. Hauek oso pozik onartzen dituzte salneurriak baina susmo txarra hartzen diote ia musutruk 625 lerroak alokatzen dituenari.

Halere, hamairu lagunek behintzat, itxaropentsu eta giza-legez jokatu izan dute txoritxoarekin. Beraiek dira telesail berri bateko gidoiak aurkeztu dituztenak. Milioi erdia da saria. Irabazleak 150.000 pta. jasoko ditu hurrengo ataleko istorio bakoitzaren ordainez. Umoretsuak izatea zen oinarrietako eskaera bat. Gosez eta farrez... okerrago litzateke goseturik eta "kulebroi" baten pena amaigabeak buruan...

Portzierto, bide batez, ba al daki inork zer demontre egingo duten harrizko beste erraldoi lozorro horrekin, Miramongo egoitzarekin, alegia? Jakin bezain pronto, abisua pasa, faborez. □

TOLOSA HIRIBIDEA. 103-1.C
TEL.(943) 21 80 92
FAX (943) 21 82 07
20009 DONOSTIA

